


ISILIK

PEDAGOGI ALDIZKARIA

4. alea 1984 abendua

250 pzta.





BILINTX
LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermín Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean,

Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar....., aurkituko dituzue.

elkar s.a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A

Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....

124 5888
VR-728/8



Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologo, pedagogo
eta beste

Azala:
Mikel Mendizabal

Diseinugile:
Patxitxiki

Inprimaketa:
Graf. Lizarra


Konposaketa:
LENTE

Dep. Leg.:
S.S. 509/82

**GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEA**ren
ardurapean.

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketan, 12-8a F
Donostia 20010
Tfnoa: 455100-22


**IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN.**



MAJO KOSTATA	3
HEZKUNTZA ETA ELEBITASUNA	4
ELEBITASUNAZ ZENBAIT TEORIA	5
ELEBITASUNARI BURUZKO ONDORIOEN BILAKAERA HISTORIKOA	7
ELEBITASUNA	13
EUSKARAREN ALDEKO DIGLOSIA	17
ELEBITASUNA?	24
EUSKARA ETA IRAKASKUNTZA	28
EUSKAL IRAKASKUNTZAREN HISTORIA APUR BAT	33
BIGARREN HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZAZ	34
«b» EREDUAREN INGURUAN KUXKUXEAZEN	37
IRAKASKUNTZ ELEBIDUNAREN HELBURUAK	39
HIZKUNTZA ETA ESKOLA	40
HABE	44
«B» EREDUKO KOORDINATZAILEEKIN SOLASEAN	49
ESPERIENTZIAK	52
BIBLIOGRAFIA LABUR BAT	64



Majo kostata,



Bai, bai, egia duzu! Eskuartean daukazun aldizkari hau ISILIK duzu. Isil-isilik egon den ISILIK.

Ikus dezakezunez duela urtebete kaleratzeko asmoa genuen baina, gero eta gehiago luzatuz... are eta isilago..., azkenean lehertu eta mutualditik irten den arte ISILIK!

Hasiera batetako artikulu-egileen atzerapenari, diru iturrien eskasia elkartu zitzaion, eta horrela jarraitu dugu behin-behineko bederen, aurkitu diogun arte.

Berrito lehengo asmo hari ekin nahi izan diogu eta prestaturik geneukan ale monografiko hau bota ondoren, idazlanak eskuratu ahala argitaratuz joango gara, beraz, benetan diotsugun aurrerantzean urtean bi aldizkari guttienez kaleratu nahi genituzke, edo-ta gerta liteke bospasei aldizkari argitara beharra (hala gertatuko ahal da!), gure nahia horixe litzatekeela esan beharrik ez dago, baina hori denon esku eta norbere baitan legoke.

Beraz, orainarteko nagikeria eta alferkeria guztiak baztertuz, ekin diezaiogun lanari, ea denon artean aldizkari egoki bat egiten dugun.

Ale honetan darabilgun gaia, duela zenbait hilabete idatzia izanarren, ez dugu uste bere egungotasuna galdu duenik eta hori kontutan izanik, gurre irakaskuntzaren lagungarri izango delakoan, orduan agertu behar zuen gisa doakizue.

Askotan entzun izan zaio lekuko zaharrei asmo eta emaitzen arteko bideari buruz hizketan iharduten.

Gure ere, behin baino gehiagotan, gerturatu zaizkigu aldizkarigintzan inoiz arituak garenez, izan genitzakeen oztopoen agoreroak. Baina ilusioa, maitasunaren antzera, itsua omen, eta bidaltzen genituen, presa-ka. –Bai, izango zetiagu hankasartzeak eta eragozpenak, baina beharra zegok eta jende asko laguntzeko prest ikusten diagu–.

Kontuak horrela, aspaldidanik, ia gure pedagogi aldizkari honen projektuari ekin genionetik genuen –inozoak benetan–, elebitasuna eta haur erdeldunen euskalduntzeari –monografikoki– ale mardul, oso bat eskaintzeko asmoa.

Eskema osatu bat (gure ustetan, noski) idatzi genuen eta eskuartean harturik jende mordo batekin hizketan hasi ginen. Hauek, bedste batzuren lanaren berri eman ziguten eta emeki-emeki, erakitzen joan zitzaigun lortu nahi genuen egitura. Ez genuen inor ahantzi nahi, ARAZOAK izan zitzakeen ikuspegi guztiei eskaini nahi izan genien toki bat. Glotodidaktika entzun eta bila... Soziolinguistika hurrengo eta bila... Psikosoziolinguistika eta non ote bat?...

Ez genuen, hala ere, teoria hutsean gera zitekeen ale bat nahi. Eguneroko lan apalean diharduten irakasle eta ikastetxeen lanaren azaldu beharra hasera-haseratik genuen kontuan. Urtetako esperientziaz jantzitako ikastoletara eta borondate eta ahaleginez estalitako «trasferitu» batzuetan gure asmoren berri eman ondoren, agindutako laguntzaz bigarren atala, esperientziena alegia, osatzea erabaki genuen.

Baina non ote?, eta hortxe zegoen koxka. Ikastaroaren hasera, programaketa txunkundu, berritu, prestatu, egokitu beharra... Hasi berriak... Etorkizuna planifikatu beharra...

Eta ezin al genezake hamabost egun barru bidal?... Nik esan diet baina ez du inork halako lanik bere gain hartu nahi... Dei iezadazu datorren astelehenean, ea bukatu ote dizudan... Ahaleginak egingo ditut, baina ez dakit posible izango ote dudan.

Norbaiti buturatuko zaio agian: Eta nola ez ote dute halako honekin kontaktzen?... Beste hark ere izango likek bada, zeresana honetaz...

Haseran nahi genuen askok kale egin digu. Borobil zitekeen gehiago «ezin dut, lanpeturik nago» esan diguten guztiek parte hartu izan balute, baina ez dezala inork pentsa egin digutena eta duguna mespreziatzen dugunik. Ez dugu hala eta guztiz ere, bankiloko erreserbatara jo. Ez dira ahuntzaren gauerdiko eztlak lortu ditugun kolaborazioak. Urtetako lana eta ikasketen izardiz baitituzte frogatu onartzen dizkieten balioak.

Baina amai ditzagun laudorio eta alabantzak, berarekin daramatzanari iraingarri gerta ez dakizkion.

Badakigu, honenbestez, ez dela geiari dagokion erantzuna amaitzen, baina etorriko dira egunak. Gero-koak gero,

1983. eko abendua.



HEZKUNTZA ETA ELEBITASUNA

Gai horri buruz idatzi izan diren lerroak ez dira gutxi, haietan jaulkia bi folioren estu laburrera ezin ekarria izateko adina bai behintzat. Sozio eta sikolinguistikaren ekarria azpimarratu eta bere garrantzia aipatzera eman gabe uztekoak ez dira, halere. Irakasleak jakinik behar bait du, nori, nola eta zein egoeratan irakasten dion; eta hizkuntzari dagokionez, gurean euskari dagokionez, inork laburbilduan gure hizkuntzaren irakaskuntzan elkarrengana biltzen diren eragin sozio eta sikolinguistikoen arazoa interpretatzeko desioa balu, gomendagarria, eta are beharrezkoa ere badu, José M. Sánchez Carrión «Txepetx» -en *El espacio bilingüe*, Eusko Irakaskuntzak argitaratua. Bere beg hondoraino sartu du elebitasunaren arazoan, eta orain arte eman den sintesirik sakonena argitaratu du, ikuspegi sozio eta sikolinguistikoa batu eta euskararen egoerari aplikatuz. Hizkuntz irakasleak, euskara eta euskaraz irakasten duen profesionalak hantxe aurkituko ditu bere lanaren interpretaziorako behar dituen oinarri teorikoak.

Pretentsio hutsala litzateke, horren ondoren, hitz laburretan hezkuntza eta elebitasunaz ezer berririk adierazi nahi izatea. Baina, aipatu liburua garaiko arduren emaitza den bezala, ardura horiek beraiek aurreratuz, sakonduz eta zabalduz joan ahala, ekarri berriak egin dituzte, eta zilegi da eragin soziolinguistikoen mataza hartan gutxi aipatzen diren bestelako albainu batzuetatik heldurik askatzea.

Izan ere, gauza nabarmena bait da, euskararen inguruan bestelako sentsibilitate berri bat ari dela sortzen. Euskara antzua omen da adierazkortasunari dagokionez. Eta euskara, orain arteko euskara ofizialaren murriztasun eta antzutasun hori salatzen da sarri. Zentzu honetan pozgarriak dira bai textungintzan, bai haurrentzako irakurtegintzan nabari diren ardura eta joera berriak, aldi berean literaturgintzan eta komunikabideetako zenbait alorretan nabari den ardura beraren pareko.

Maila berean, geroz eta zabalago da, batez ere haurrengan -hala uste bait da oraindik- gertatzen diren hizkuntz interferentziei buruzko ardura eta larria.


Eta da ahaztekoa, ezta ere, euskara ofizial honi dagokionez, euskaldun zaharrek, euskara txikitatik bularrarekin haterra edoski dutenek, ageri izan duten erresistentzia eta aiherra. Euskara batua egiten hasi eta ikastoletatik zabaltzen hasi zeneko jendeak harekiko neurri uste baino zabalagoan ageri zuen erresistentzia eta aiherkunde horren benetako konponenteak azterkizun

daude. Eta ez dugu ahazteko eskubiderik, zeren gaur egun bertan ere, zenbait komunikabidetan erabiltzen denarekiko adierazten duten kontrastasuna, haren errepika besterik ez bait da. Guraso bati haurrak ikastolatik bueltan «aita, hori ez da horrela esaten» jaulkitzen zio-nean aitak zuen aurpegiak, eta gaur egun Euskal Telebistari buruz «hi, telebistako horiek gramatika gutxi, e» komentatzen duenekoak antz handia dute elkarren artean, eta gauza berbera esan nahi dute seguruenik. Euskara horrek ez du belarrira «ondo jotzen».

Fenomeno horiek berrito interpretatu behar dira. Eta badago interpretazio horretarako behar den tresneria teorikoa. Hain zuzen ere, hizkuntza garai eta hizkuntza menpekoak aipatzen ditugunean, gurean bezalako egoera batean, erdaldun denok eta batzuk elebidun garenekoan, ez gara hitzegiten ari fenomeno soziologiko axaleko batez. Erdararen gailentasuna askoz ere sakonagoa bait da: esan genezake hitzegiten den euskararen baitan bertan ere ari dela nagusitzen erdara, eta ez lexiko alor batzuetan maileguak duen proportzioagatik bakarrik. Ai hala balitz, sikera! Bai zera, hizkuntzak bere berea duen hartarainoxe iristen da hizkuntza garaiaeren interferentzia, hizkuntzak denotazioaz gainera dituen beste balio guztietaraino. Esan genezake, hortaz, zenbat eta erdara nagusiago, ez dela euskara gutxiago bakarrik egiten, baizik eta are grabeagoa dena, txarkiago eta murriztago, antzuzago egiten dela; egiten den euskarak gutxiagorako balio diola NORBERARI ere. Eta irakaskuntzak irakatsi behar duen hizkuntzak. IKASLEARI balio behar dio batez ere, enuririk ez da komunikazioan, inorekiko komunikazioan eta berekiko bakar hitzetan, berbalizazioan, bere nortasuna, nortasun aberatsa eraiki ahal izateko.

Guzti horretarako, bistan da, nahiz eta ondotox jakin eskilak ezin duela hizkuntza «oso» irakatsi (famili eta adiskide inguruneak ez bait dagozkio zuzenean eskolari), hala eta guztiz ere tresneria teoriko egokia behar du irakasleak bere irakaskuntza eta hezkuntza lana burutzen den ingurunea (haurra, gizartea, hizkuntz oreka eta transmisio moduak) eta ingurune hori baldintzatzen duten eraginak bere sakonean aztertu eta ezagutzeko. Planteamentu berriak egin behar dira hezkuntza eta elebitasunari buruz, soziolinguistika, sikolinguistika eta itzulpen teoriatik (hizkuntz gonbaraketatik) abiaturik batez ere.

Jexux Zabaleta



ELEBITASUNAZ ZENBAIT TEORIA

Elebitasunaz egin diren azterketan, ez dago definizio zehatzik elebitasunaz ulertzen dena adierazteko eta hori dela eta, egoera eta tratamendu desberdinak sor daitzeke elebitasun arazoaren inguruan.

Definizio asko eta ugari eman dira. Hitzaren esanahi funtsezkoari bagagozkio, elebitasuna, bi hizkuntz naturalen bitartez hitzegin ahal izatea da, hots, bi hizkuntzen erabilera txandatua. (Weinreich-ek dioenez).

N. Brook-ek¹ honela dio; Hitzun bat bigarren hizkuntza batetan mintzatzerakoan honen hizkuntz-jokaera ama-hizkuntzari baino gehiago bigarren hizkuntzaren kontzeptu eta eskemenganako atxe-

¹ Brook N. «Language an language learning», New York. Harcourt. 1960 40. orr.

kiduraz bereizten bada, linguistikako, semantikazko eta kultur arloetan batipat, hiztun hau elebiduna dela esango dugu.

Haugen-ek bestalde honela dio: «Hizkuntza ba erabiltzen duen hiztunak, esanahia duten adieraziak eman baditzake beste hizkuntza batetan, elebiduna deituko diogu hiztun honi».

Bloomfield-ek aldiz; «bi hizkuntzen herrikoitasunaren jabe izatea» dela dio. Ikuspegi psikologikotik aztertzen du fenomeno hau, herriko hiztunak dituen bi hizkuntzen menperatasun bezala, alegia.

Christopherson-entzat; hiztun elebiduna zera da; bi hizkuntza ezagutzen dituen eta bi hizkuntz horietako hiztun bakoitzak gaitasun maila berbera duena.

Baina Braun-ek, Bloomfielden eta Christophersonen ideiak bateratu egiten ditu esanez; «hizkuntzaniztasuna, bi edo hizkuntz gehiagoren erabilera berdina, eraginkorra eta egokia izango litzateke.

Baite ere beharrezkotzat jotzen dugu Lewis Balkanek hizkuntza baten jabetasunaz edo menperatzeaz dioena; «Hiztun bat, hizketaren arlo desberdinetako eskakizunei erantzuteko hiztegi egokiaren jabe dela kontutan izanik, eta elementu linguistikoen komenientzi eta hedaduraren arabera ibiltzeaz gain, darabilen hizkuntz horren fonetika, morfologia, joskera eta arautegia menperatzea datza, hizkuntzaz jabetzea, alegia.

Menperatasun hori bikoitza denean, hau da, bi hizkuntzetan ematen denean, «elebitasun orekatua» deritzogu. Elebitasun orekatua esatean hiztun baten bizitzako zati garrantzitsu bat adierazten digu, hizkuntz bakoitzaren inguruan bizi ahal izan duen zati garrantzitsua, gainera.

«Elebitasun fenomenoaren esplikazio eta aztertzeko garaian oztopoak eta trabak besterik ez ditugu aurkitu hainbeste definizioekin» dio Mackey-k.¹

Renzo Titoneren ustez; Nahaste-borrasterik handiena sortu duen elementua zera da, «jatorrizko erabilerara edo usadioa bereizten ez duen erizpidearengan ihardutea» alegia. Elebitasuna bi hizkuntz berdin menperatze bezala hartzen duen kontzeptua baztertzea kontseilatzen digu Mackey-k eta fenomeno honen arlo desberdinak aztertzen dituen analisi berri bat proposatzen du, hots, bi edo hizkuntz gehiagoren erabilerak suposatzen duen zailtasunen sailkapen sistematikora eramango duena.

Baina elebitasuna, bizpahiru hizkuntza menperatzea baino zerbait gehiago dela pentsa arazten digu orain arte jarraituriko bideak eta kontzeptu horrek ez digu inolaz ere adierazten, bi edo hizkuntza gehiagoren elkarbizitzak, komunitate batetan edo pertsona batengan sortzen dituen fenomenoaren ugaritasunaren eragina.

Hori dela eta, Mackey dionez, elebitasunaren kontzeptua erlatibo den zerbait bezala hartu behar omen litzateke. Aurreko honen arabera, oso zaila da «elebitasun maila» aurkitzea eta definizioa, hizkuntz ihardueraren mailari mugatzea proposatzen du.

Horretarako elebitasun fenomenoan eman daitezken zenbait egoera azaltzen digu:

- a) Implikaturiko hizkuntz-kopurua. Bi edo hizkuntza gehiago egon daitezke implikaturik.
- b) Erabilitako hizkuntz-moeta. Implikaturik dauden hizkuntzen erlazioa hartzen da kontutan, hau da, sortzez familia berekoak diren (gaztelania-italianoa) ala desberdinak (euskara-gaztelania, bezala).
- c) Hizkuntza batek bestearekiko duen eragina. Eraginok, fonetikazkoak, egiturazkoak eta lexikalak ere izan daitezke.

- e) Perfekzio maila. Herritar batek menperatzen duen maila egoki batetatik hasi eta gero eta maila desegoki batetaraino doana.
- f) Dudamudak. Elebidun batek egoera desberdinetan hizkuntza bat ala bestearekiko aukeraketa egin lezake.
- g) Gizarte eragina. Egoera desberdinek eta komunikapeneko giza -maila desberdinek, hizkuntza baten ala bestearen erabilerara eska lezakete.

Baina are gehiago zehazten du geroxeago honela dihardunean; «Teorizatze eta klasifikapen sistema eskatu eta ikerketa mailan ereduak markatzeaz gain, ondorioen integritate posibilitatzen duen arazo konplexua da elebitasuna».

Renzo Titonerentzat aldiz, elebitasuna erabilerari hau da, hizkuntz ekintzari dagokio eta ez hizkuntza sistimarekin erlazionatzen duen ezaugarriari.


Elebitasun fenomenoan, arazo siko-indibidualak eta siko-sozialak elkartzen dira. Ekintza linguistikoa giza balorezko konotazio eta erabakiak aukeratzen dituen bezala, elebitasun jokaera, motibo handiagorik, gizabanakoen arteko erlazio eta funtzioen sare trinkoa elkartzen den abiapuntua da.

Elebitasunaren lantzea barne-faktoreen araberrako baldintzez gain (plastikotasun neurologikoa, hizketa, adina...), beste zenbait faktorek ere zerikusi handia du. Adib.; faktore sozialak, kulturazkoak, hezgarriak, etab-ek. Hauen eraginak direla medio, berbiztu edo trabagarri izan bait dakizkioke elebitasunaren desarroiloari.

Feli Etxeberria



¹ Mackey, W.F. «Journal of the Canadian Linguistic Association». 1956.



ELEBITASUNARI BURUZKO ONDORIOEN BILAKAERA HISTORIKOA ELEBITASUNARI BURUZKO AZTERKETAK

Posizio ezberdinak mantenduko diren bi une historiko garbi bereiz daitezke: lehenbizikoa, 1938an, eta GINEBRAN kokatzen zen «Nazioarteko Heziketa Bulegoak» antolatutako LUXEMBURGO ko kongresuak errepresenta dezake, eta bigarren momentu bat 40an hamarkadaren erdialdetik aurrera.

Aipaturiko kongresura azalduriko Pedagogo eta Sikologoen artean aipa daitezke: Boyet, Decrocy eta Bali katalana kongresu honen ondoriotan elebitasuna, konponbideren bat behar zuen kaltetzat jo zen, onartu bait zen elebitasunak, adimenaren bilakaeran, hizkuntza bilakaeran, eskola errendimenduan eta areago, nortasunaren aspektu afektibo, dinamikoetan, eragin negatiboa zuela.

Parte lartzaileek, bigarren hizkuntzaren ikastetan 12 urteak baino lehenago ez hastea gomendatzea erabaki zuten ahobatez.

Kongresua SAER eta HUGUES-ek 20en hamarkadan Gales-en eginiko azterketetan oinarritu zen.

Azterketa hauen berezitasunak

Hauetan, haurtzarotik inglesa erabiltzera behartuak izan ziren galestar haurek inteligentzia probatan elebakar ingelesak baino ondorio eskasagoak zituztela, frogatzen zen.

Antzerako azterketak egiten ari ziren Estatu Batuetan ere beltz eta beste minorien artean. Ondot-

rioek garbi adierazten zuten talde elebidun hauen gutxiagotasuna.

Egia da ordurarte eginiko azterketa gehienek justifikatzen zutela ondorio hau. Haurtan, metodologi hutsuneak eta muestretako subjektu elebidunen sozial eta ekonomi egoera eskasagoak zirela medio, erabilitako teknika gehienetan kaltetuak gertatzen bait ziren.

Bistakoa da, suposatutako gutxiagotasun hau ezin dakiokela elebitasunari lepora, talde bizitza baldintza eskasagoak pairatzeari eta hain muestra ezberdinetan neurgailu berdinak erabiltzeari baizik.

Neurgailu hauek, gainera, subjektu elebkarrentzat asmatuak ziren (hizkuntza dominatzailearen hiztunak eta kultura dominatzaileko partaideak).

Elebidunetako zenbaitek doi-doi menperatzen zuen hizkuntza batetan eginiko galderak ulertu eta erantzuteko zailtasunekin topo egiten zuen.

Egoera honetan, bat edo subjektu elebidun batzuen jarraipenean (ikertzailearen seme-alabak gehienetan) oinarritutako beste azterketa batzuen emaitzak azaltzen hasten dira.

Honelako azterketa batzuk aipatzea merezi dute, partikularki J. Ronjat, M. Paulovic eta W. Leopold-enak.

J. Ronjat, en azterketa elebitasun osoko kasu baten gainean egina dago eta lau urte eta hamar hilabeteko adin arte iristen da. Erabilitako metodoa honako formula honetan oinarritzen da; pertsona bat-hizkuntza bat, kontestu pertsonalen bereizketan, gurasoetako bakoitzak haurrarekiko harremanetan hizkuntza bat, erabiltzen zuelarik. Horrela amarekin alemana eta aitarekin frantsesa ikasiko zuen.

Emaitzak honako hauek izan ziren:

- Ahozkerak hizkuntz bakoitzean haur elebkar batean izan zen; elebitasunak ez zuen atzeratu hizkuntzaren bilakaera orokorra; bi hizkuntzetan bilakaera paralelo bat eman zen fonetika, morfologia eta sintaxiari zegokionez; haurrak bere elebitasunari buruzko kontzientzia hartu zuen.

Ikasketaren eraginez, hizkuntzek nolabaiteko espezializapen bat lortu zuten. Teknika gaiak lortzeko nahiago zuen frantsesa (ikasketa hizkuntza), bere literatur espresiorako alemana, bere ama hizkuntza, erabiltzen zuen bitartean.



W.F. Leopold-ek eginiko azterketa, 1939-1949 bitartean argitaratutako lau tomatan jasoa. Haur konkretu batetan zentratutako hizkuntza bilakaera orokorra eta partikularki elebidunari buruz eginiko azterketarik aberats eta zehatzena da obserbaketatarako erabilitakoa bere alaba Hildegord izan zen:

Atalik aberatsena lehenbiziko bi urteei buruzkoa bada ere, azterketan hamabost urte eta zazpi hilabete arte jarraitzen. Ikasitako bi hizkuntzak ingelesa (Amerikan bizi dira), eta alemana (aitaren hizkuntza).

Lehenengo bi urtetan nabaria izan zen bere elebitasuna, ondoren, bi hizkuntzak interlokutorearen arabera bereizten hasi zen Hildegord.

Leopold, bat dator J. Ronjat-ekin haurren adinen eta linguistika bilakaerari elebitasunak kalterik egiten ez diola dionean, eta areagotuz, abantalia suposatu diezaiekeela esatera ausartzen da. Beste batzuen artean, formari atentzio gutxiago eta edukiari gehiago aipatzen du.

Ikas daitekeen bezalaxe ezberdintasun nabari bat dago Luxenburgoko Kongresuko ondorio eta aipaturiko J. Ronjat eta W.F. Leopold-ek bere semeekin egindako azterketen artean.

Azterketa hauen konklusioak elebidunen alde azaltzen dira, zalantzarik gabe subjektuak baztertutako minorien partaideak izan beharrez, hizkuntza bilakaera bi hizkuntzetan eman dadila zaintzen duten, hizkuntza ezberdinetako gurasoen semeak direlako.

Bigarren momentuan, 40.en hamarkadaren erdialdetik aurrera eta bizi zen nazioartekotasunarekin bater optimismoz gainezko egiten duen mogimendu bat, eta elebitasuna pertsonarentzat kaltegarritzat jo beharrez, haurren bilakaera integralarentzat, ongarriztat jotzen hasten da. Batez ere, mundu modernoan bizi ahal izateko ezinbesteko trebetasuna bezala.

Mundu modernoaren sozial eta Kultur bilakaerak hizkuntzen ikasketak duten garrantziaz kontura erazten ditu guraso eta hezitzaileak. Horrela beste hizkuntza baten ikasketa ez da luxotzat jotzen, oinarritako kultura programaren ataltzat baizik.

Une honetan, ama hizkuntza ez den beste bat asignatura gisa ematen edo haurra elebiduna bihurtzen ahalegintzen den irakaskuntza lantzen duten eskolen ugaltzea ematen da.

Unesco-ren azterketak

UNESCOK bere gain hartu zuen elebitasunaren arazoa, ikerketak bultzatuz eta eginez. Felix Walter, UNESCOn hizkuntza modernoaren programa espezialista izan zen, batez ere, hizkuntz irakaskuntzak gaurko munduan suposatzen duen arazoaz azterketa bultzatu zuena, nahiz hizkuntza barnekoekin borrokatu behar duten herrietan, nazio hizkuntza berrietan, nahiz linguistika behar selektiboagoak izan ditzaketan herrietan.

UNESCO Hizkuntza arrotz baten ikasketei dagoen hastapenak eta aurrera eramateko bidez, Nuwara Eliyako Seminarioan, 1953.ko Abuztuan ospatu ziren ihardunaldiek, kezkatu zuten lehenengo aldiz.

Arazoa luze eztabaidatu zen eta 1959.eko otsailan, Frantziako komisio Nazionalak ihardun zuen UNESCOK gaia gainbegira edo errebisa zezan.

UNESCOKo bere erakunde asoziatu bat, Hamburgoko Unesco-Institut Jun Pedagogik hain zuzen, gonbidatu zuen espezialista talde mugatu bat bil zezan honako helburura iritsi nahiz: «Herbesteko hizkuntzen irakaskuntzaren alde psikologiko eta pedagogikoen ikasketa programa bat formulatzea oinarrizko maileri begira».

1962-eko apirilaren 9an, Hamburgoko konferentzia ospatu zen herri ezberdinetako, eta arlo ezberdinetako espezialistak elkartuz linguistak, glotodidaktak, pedagogoak, psikologoak, neurofisiologoak... Ikerketa ezberdinak bultzatu ziren, hauetariko batzuk J.B. Carroll sikolinguistaren zuzendaritzapean.

Hamburgon dagoen Heziketarako UNESCO-Institutoak bigarren topaketa bat antolatu zuen 1966, espezialistentzat, ez irakaskuntza goiztarrantzat programa bat justifikatuko luketeen arrazoiak topatzeko, herri ezberdinetan landutako esperientziekin zerikusia dokumentazioa biltzeko baizik, Ikerketari eta metodologiari zegozkien arazoak aztertu ziren, nazional nahiz internazional mailako azterketen planifikazioa proposatuz.

Biologiaren eskaintzak

Azterketak, bi arazo hauen inguruan zentratu dira: Plastizitatea, eta esentzia determinismoaren inguruan alegia.

Esentzia amahizkuntza ikasteko fakultate edo ahalmentzat jotzen duten autoreak aipa daitezke, Humboldt eta Preyor esate baterako, baina baita ere teoria honen aurkakoak, Jaspersen, de Saussure, K. Bühler e.a.

Nazio ezberdinetako eta aste gutxiko hurrek ateratzen dituzten hotsen lan konpatatiboak eginak dira eta erraza eraginaren posibilitatea gaitzesten dute.

O.C. Irwnek jai berriekin aztertu zuen arraza ezberdintasunen arazoa. Ikerketarako 50 haur zuri eta 30 beltz aztertu ziren. Ateratzen zituzten fonemetatik abiatuz, bokal eta kontsonanteen perfilak egin ziren, eta honako konklusio edo ondoriora iritsi ziren: perfilak ia berdinak zirela bi taldeetan, fonema defizit berdinak antzematen zirelarik.

A. Meillet, «Edozein haur, edonongoa delarik, edozein hizkuntza hitzegiteko gai da. Sudango beltzen ondorengo batek ongi hitzegiten du Frantseza edo Ingelesa, baldin eta, haurtzaroaren haseratik hizkuntza hoiek ongi mintzatzen diren inguru bat etan praktikatzen baditu».

U. Jespensen-ek dioenez inguruak duen eragina garrantzitsuagoa da genetiko hesedentzia baino.


Omnipotentzialitate linguistikoaren teoria frogatzen




Zenbait aspekturen azterketa

1962.ean Hamburgon ospatutako konferentziaren ikuspuntuak bigarren hizkuntzaren apendizai goiztarrera bultzatzekoaren alde azaldu ziren.

Elebitasun goiztarraren arazoa, fenomenoaren zailtasuna dela eta, alde askotan agertzen da, eta garbi dago alde hauen puntualizaketara arlo ezberdinen bidez iristen dela. Horrela, bada, kontatu behar da biologia, sikologia, soziologia, pedagogia, didaktika eta abarretik jasotzen diren aportazioak.





duten ikerketa ugari dago egina haur hizkuntzaren inguruan.

Hauekin batera, badira beste batzuk, zerebroaren heldutasuna eta plastizitatearen balorea hizkuntzaren bilakaerarekin erlazionatuz analizatzeko.

E.H. Lemebergek aztertu zuen arazoa batez ere lehenengo hizkuntza ikastearen ikuspuntutik, bere ondorioetariko bigarren hizkuntzaren apendizaiari aplikagarriak gertatzen badira ere.

Lehenengo hizkuntza ezin daiteke erraztasun berdinez jaso haurtzarora eta zahartzaroren arteko bitarte guztian. Zerebroaren lateralizazioa ezarritzen den bitartean (pubertatea). Iortutako afasiaren sintomak, itzulezinak egiteko joera bat agertzen dute ondorengo 3 eta 6 hilabeteen artean.

Lehenengo hizkuntza eskuratzearen.

Pubertate sasoi inguruan lehenengo hizkuntzaz jabetzea gertatzen den ahalmen gutxitzea frogatzen da atzeratuaren artean ere, hauek, poliki-poliki lortuzakete hizkuntzaren oinarriko elementuak bigarren hamarkadaren hasiera arte, baina, behin adin horretara heldu ondoren, hizkuntza ahalmenak finkaturik geratzen zaizkie betirako. Fry-k dioenez, «Gorri sakonaz kaltetutako gizabanakoak laguntza prostetikoen bidez hotsetan trebatu behar dira, 2 urteko adinaren inguruan, hizkuntza ahalmen on bat mami dezaten».

Beraz, hizkuntza jabetzerako sasoi kritiko batetaz mintza daiteke. Hasieran heldutasun faltagatik mugatua, eta dirudenez adaptabilitatearen galerarekin erlazionaturik amaiera.

W. Penfield-en jarrera

Canadako neurologoa, Montreal University-ko Neurologia eta Neurocirugia Istituitoaren zuzendaria.

Bere ikerketen bidez, elebidun apendizaiaren dastapen goiztar baten baliofarritasuna frogatu du.

Penfield-ek dio, ematen den «prozesu fisiologiko normala»-rekin batera ikasi beharko liratekeela hizkuntzak.

Zerebroak hizkuntza apendizairako egutegi biologiko bat duenez hizkuntzaren mekanismo konplexuak haurtzaro eta gaztaroaren zehar bilakatzen direla esaten digu.

Bizitzaren etapa ezberdinetan gertaturiko zerebru lesioei buruzko azterketen emaitzetan oinarritzen ditu batez ere bere ondorioak.

Inteligentzia aptitudeetan elebitasunak duen eraginari buruz eginiko ikerketak

1920. urte inguruan hasi ziren planteiatzen elebitasunak intelektual heldutasunean eta gizartekiko adaptazioan zuen eraginaren arazoa. Kezka honi

erantzun asmoz martxan jarritako ikerketek, I. gerra garaian landu eta ondoren asko hedatutako.

Taldeek test-en laguntza jaso zuten.

Badirudi pedagogi kezka izan zela 1920-30 urte bitartean elebitasunari buruz eginiko lehenengo azterketen eragilea. Planteiatutako arazoa, lehen hizkuntza, ama hizkuntza jeneralki, eskola istruzioan erabiltzen ez zuten haurren eskola adaptazioa zen. Urte luzeetan zehar, maisuek frogatu dute, maiz haur elebidunak inferioritatean aurkitzen direla elebakarre kiko.

Fidagarri samarra dira Florence Goodenough-ek egindako azterketak. Honetan, korrelazio altu samar bat aurkitzen du inmigratu talde ezberdinetako haurren batz besteko CI-a (COEFICIENTE INTELECTUAL) eta talde bakoitzean ohizko espresabide gisa ingelese aukeratu zuten gurasoen proportzioaren artean.

Kasu honetan, haur elebidunek bigarren hizkuntzaren hastapen hobea bat jaso zuten eta hizkuntzaren berbalizazioan abantailekin aurkitzez emaitza hobea lortzen zituzten eskolan.

Ziur aski, guraso azkarrenak izango ziren herriko hizkuntza ahalik eta ondoen ikasteak zuen garrantziak konturatzen zirenak. Beraz, haur horiek herendentzia nahiz giza-inguru aldetik mesedetuak gertatzen ziren.

1937.ean Arsenian-n lan interesgarriak emate dira argitara. Lehenengoa 469 eskola haur judutarren muestra aztertzen da, Estatu Batuetan jasoak, eskolara joan aurretik, ama hizkuntzatzat ingelese zuten haurrekin harremanak izateko aukera izandakoak. Arsenian-ek konparatu zituen taldeen batz besteko CI berbalak eta ez berbalak eta ezberdintasun nabarmenik ez zegoela ikusi zuen. Horrela honako ondorio batetara iritsi zen: ez zegoela, nahita nahiez, elebitasun maila eta inteligentzia testetan hartutako puntuazioaren artean erlazio bat. Berak zioen, ezberdintasun eza, eskolaurre sasoi haurrek bizi izan zuten giroaren eraginetik zetorren.

Bigarren lana, Estatu Batuetan jaiotako 1152 italiarren ondorengo eta 1196 haur judutarrekin egin zen.

Lehenengoa bezala, ez zen korrelazio nabarmenik azaldu elebitasun maila eta inteligentzia testetan lortutako puntuazioen artean.

Onartu zen ondorio orokorra zera izan zen: bigarren hizkuntza batetaz jabetzeak ez duela eragin kaltegarri nabarmenik ez kapazitatean, eta ezta, inteligentziaren bilakaeran ere.

Hala eta guztiz ere, baditu bere azterketak metodologi akatsak, subjektuen adina, sexu eta sozioekonomi egoera kontrolatu bazituen ere, Elebitasunaren ebaluaketa Hoffman-en kuestionarioan oinarritzen da soilik. Beraz, azterketa hauek ez dute erabateko ondoriotara iristeko aukerarik ematen elebitasuna eta inteligentziaren arteko erlazioari dagokionez.



1940 urte aurretik haur elebidunei buruz egin diren azterketak Tiremanen eritziz ez ziren zehatzak ikerketa metodoei buruz adostasunik ez zegoelako; hau, elebitasuna neurtzeko tresna komun bat ez izatean froga daiteke.

Horrela bada, ezin izan zuten ikerketa gehienek elebitasunari leporatzeko moduko desberdintasun nabarmenik antzeman esperimantal eta kontrol talderen C.I. en artean. Badirudi, aurkitutako ezberdintasunak elebiduntzat jotako taldearen sozio-ekonomiko egoera eskasa eta herriko hizkuntzan eskolarizatzen berandu hasteari atxiki dakizkiekela.

Zehaztasun zientifiko gehiagoko lanak

E. Real eta W.E. Lambert(1962), eta L.Balkan (1970).

Ikertzaileek elebitasuna eta inteligentziaren arteko erlazioan kokatzen dute azterketa. Elebitasunari buruzko ikerketa korrante berriren aintzindari gisa konsidera daitezke. Ordurarte, ikerketek enfoke siko-tekniko garbi bat zeramaten, proba standarizatuak erabiliaz, aurrean aipaturiko autoreak, Real, Lambert eta Balkanek, elebidunen aptitude ezberdinen patroien baten aipamena egiten dute, eta inteligentzia egituran bi hizkuntz kodigo ezberdinek dute eragina eta egiten duten mesedea azpimarratzen dute.

Real eta Lambert-en lanetan, esperientzia taldeko subjektuak beroien hizkuntz kapazitatearen arabera aukeratuak izan ziren, hau da, frogatua zuten elebitasun «orekatu» (balanceal bilingualisur) baten jabetza.

364 eskola haurren artean 164 hautatuak gertatu ziren, Montrealen, Oinarri heziketako 6 eskoletan zebiltzan 10 urteko ikasleen artean aukeratuak, alegia.

Sozial mailari buruz, berriz, eskola hauek «erdiko klaseko» haurrak jasotzen zituzten.

Sujektuei test berbal eta ez berbal batuak pasa zitzaizkien eta, Montrealgo frantses eta ingeles komunitateekiko portaera baloratu zitzairen.

Emaitzak, oso nabarmenki esperimendu taldearen alde azaldu ziren. Kontrol eta esperimendu taldearen arteko desberdintasuna txikiago zen portaera aldetik, berez zenarekin baino ingeles komunitatearekin identifikatzeko joera handiago bat azaltzen zutelarik elebidunek.

Hala eta guztiz ere, taldeen konposaketa astiroago begiratzerakoan, erabilitako tresnak (bi taldeentzat frantses hizkuntzan inteligentzia berbaleko testa, eta beraz, hizkuntz handikap-ik gabe) eta elebidun en sozio-ekonomi maila garaiagoak suposatzen zuten metodologi mailako akatsak leporatu zitzaizkion.

Jarraitutako metodoari egin zaizkion kritikak kontuan harturik zalantzan geratzen dena zera da, elebiduntzat jotako subjektuen emaitza hobekoak, elebitasunaren eraginez ote ziren, edo eta, esperimendu taldea oratzeko jarraitu ziren erizpideak ez ote zituzten kandidatu hoberenak aukeratuak.

Baldintza hauetan beste galdera bat ere planteia daiteke, esperimendu taldearen emaitza onak ez ote ziren hobekoak izango elebidunak izan beharrez elebakarrak ezan balira, alegia.

Aurre hipotesia gisa eman daiteke: Ongi hautaturiko subjektu batentzat elebitasun orekatu bat neutroa gertatzen da, edo ongari agian: baina, gaizki dotatuentzat, ez ote da agian elebitasuna sobrekarga bat?

Lewis Balkan-en ikerketa esperimentalek, inteligentzia eta elebitasunaren arteko erlazioaren arazoa benetako zorrotasun zientifikoaz aztertzen dute. Bere ikerketaren helburua 11tik 16urte bitarteko ikasleen inteligentzia egituran elebitasun orekatu baten eraginak ikustea zen.

Hipotesi, gisa, aurreratzen du, elebitasun orekatu bat duen subjektu batek, hizkuntza batetik bestera pasatzeko ahalmena lantzearen poderioz, honek suposatzen dituen pespektiba aldaketa guztiekin, elebakar batek azaltzen duena baino «intelligentzia plastizitate» handiagoa azaldu beharko lukeela.

Frantses hizkuntzaz mintzazen den Suizako suizar eta beste nazionalitate etako, ikasleekin egin zen ikerketa.



Muestra aukeratu ahal izateko testak erabiliko ditu, hauek bakoitzaren aptitude perfila eta elebitasunaren estimaziorako ezartzen dituen erizpideak eskainiko dizkiote.



Gainera, sexu, adin, sozio-ekonomi maila eta inteligentzia orokorra bariabileak neutralizatu egin zituen, eta bariabile hauekiko konparagarriak ziren elebidun —elebakar bikoteak egin zituen.

Emaitzen analisiak bere hipotesia baieztatzen du, plastizitate berbal eta pertzepzio plastizitatearekiko elebidunen gehiagotasuna azaltzen da. Azken finean garbi ikusten da elebitasuna handikap bat izatetik oso urruti dagoela. Autoreak dio amaiera gisa, «ez du inolako zentzurik haurarentzat elebitasuna kaltegarri gerta ote dakioken galdetzeak».

Ondorioak

- Aurrerabideak batetik eta nazioartean ulertu beharrak, gero eta gehiago imosatzen ari dira elebitasunaren ezarketa.
- Egoera guztiek ez dute elebitasun era berdina planteiatzen, zenbait hizkuntzatan zatituriko lurraldeek, elkar komunika daitezen bigarren hizkuntz baten premian aurkitzen dira.
- Gutxi hedatutako hizkuntzaren jabe diren herriek, nazio arteko harremanetarako bigarren bat behar izaten dute.
- Badira herri batzuk mundu hizkuntzak bihurtu diren hizkuntzen jabeak (Ingelesa-Estatu Batuetan), politika, kultura edo beste arrazoi batzuk direla medio, bigarren hizkuntza bat. Ikastea oinarritzotzat jotzen dutenak.
- Egoera hauekin batera, beste batzutan, hots, inmigranteen kasuan, bigarren hizkuntza bat menperatzea ezinbestekoa bilakatzen da.

Orain arte aipatutako guztia, sozio-pedagogiko baloreetan inplikaturik dago, eskola sistema, beraz, didaktiko hezitzaile elebidun programa bere gain hartu beharrean aurkitzen da.



ELEBITASUNA

Iralkaskuntzaren munduan azkeneko urte hauetako gertakari nagusienetariko bat elebitasunaren sarre-
ra izan dela ez dago ukatzerik. Jadanik erabateko neurrian ez bada ere, euskararen presentzia nabarmena da irakaskuntzako lehenengo hiru mailetan behintzat, Eskolaurrean, O.H.O.n eta B.U.P. en nahiz F.P.n.

Lehenengo bi horien inguruan doa batik bat gure kontsiderazioa; badakigu irakaskuntza errealitatea, konplexotasunez jantzia dagoela eta areago elebitasunarena, hala ere zenbait oharketaz eginiko gogoramenak azalduko ditugu.

Abiapuntu gisa bi suposapenetik hasiko gara: Gure eskola elebiduna, gizarte diglosiko batetan eta irakaskuntza montaje diglosikoan eratu dira, hau lehenengoa. Eta elebitasun guztiak berengan daramatem gatazka egoera konpontzeko ez da oraindik plangintzarik.

¹ García de Cortazar, Fernando: «Cuento y Razón» aldizkarian 1983. Uztaila-Abuztua. 35. orri.



Lehenengoari buruz badakigu gizarte diglosiko bat egun batetik bestea ez dela aldatzen, hala ere oraindik gizarte mailan ez dira zenbait aitorpen huts besterik egin euskarari indarra emateko, erderaz bai, ugari gainera egin dira hainbat eta hainbat kultur ekintza, «cultura vasca» ren izenean. Egia da, Euskalerriko populazioaren %25 inguruk bakarrik egiten dutela euskara, eta ez gaitzen lilura plazaratu diren beste zenbait datoz. Guk geurok 1.976.ean Donostian eginiko ikerketa batek %29 eman zigun eta konturatu ginen nahiz ikerketa ongi egina egon ez, genuen subjektibotasunak, hau da, erantzun norbanakoak izan zezakeen desbideratzea kontutan hartu. Eta hau diot, ze, Eusko Jaur-laritzapean eginiko ikerketa batek %35 euskaldun eman bait ditu eta datu hau euskara munduan apur bat mogitzen denak badaki ez dela erabat ziurra.

Populazioaren egoera hau bada gizarte eraketa ere ez da aldatu. Gizarte sistema honetan korapiloa lotzen dutenek oraindik ia gehienak dira euskara ezagutzen ez dutenak. Esan daiteke beraz Euskalerriko gizarte sistema osoan, Euskarak ez duela ia lekurik irakaskuntzaz kanpo.

Euskara egoera berezi batetara isolaturik aurkitzen da, berezko indar hutsera abandonaturik. Gizarte sistema honetan disfuntzio bat dugu eta horrela tratadua da, ze oraindik gizarte sistema osoa estaltzen duen plangintzarik ez baita suma, ez eta demagogi garbian ari direnean ere.

Gure ustez hemen dago lehenengo perdesa, hizkuntza batek funtzio guztiak betetzen dituen bitartean, besteak ez du horretarako biderik.

Bigarren, aipaturiko egoera horrek sortzen duen gatazkari aurrez

konponbide zenbait ez zaio bilatu. Hizkuntza biren artean beti izaten da konfliktoa hizkuntza horiek elebitasun egoera batetan planteiatzen badira. Maiz hizkuntza bat besteari kontrajarria agertzen zaigu eta esanen dut zergatik. Ez da hizkuntza bat bestearen etsaia berez, ez, oposaketa hizkuntzak bere baitan darman zenbait funtziotan datza, hau da hizkuntza bat beti mundu erreferentzial batetan kokaturik dago eta mundu horrek bere baitan ba ditu bere balore sistema, bere jerarkia, bere interpretapena, hitz batez beste kultura mundu batetik ezerdina da, badu ingurune ekologiko berezia bere kulturaren eta hau da hain xuxen hizkuntzaren bidez ematen dena, gehienetan beste mundu kultural bati kontrajartzen zaiona eta hau dakakoa; beste kultura batzuetatik interpretatzen den «contenido patriótico-político»¹ hori, ez da guretzat bizi nahi izatea besterik.



Hala ere konfliktua planteiatua dago eta hemen bizi diren %75-eko biztanlegoari ere irtenbide batzuk bilatu behar zaizkio, gure Eskola elebiduna bihurtu, nahi badugu, gizartea ere hildo horretatik abiatu bederen abia dadin.

«El problema lingüístico es muy grave en el P.V. porque la lengua que debería ser elemento de comunicación y de enriquecimiento cultural lo es de separación y de discriminación...»

rrea da, dudarik gabe erregulartasun gehiena eskaintzen duen taldea eta oraindik %12-14 haur kopurua azaltzen zaigu erdera hutsean amaten duena. A. Ereduan % 41,51 haurrek ikasten dute Euskara, ia beste bi ereduak B. eta D.k adina haur biltzen du A. Ereduak. Eta ze erantzun ematen dio haurrari? Nola eratuak daude eredu honetako zentroak? Ze eratako irakaslegoa dute? Ze eratako euskara organizazioa dute zentroan? Ze eratako gurasoak dituzte?

bezala, honen postura eta ekintza elebitasun prozesu honetan. Kontutan izan lehentxoago aipatu dugun %75 erdaldun horien seme alabak eskolara datozkigula eta eskolan hartzen duten arreran eta tratuan dago ela nerri batean behintzat, euskararentzako horien onespina edo gaitzespena.

Gure ikuspegitik landara batek giro egokia behar duen antzera, elebitasunak ere bere inguru ekologikoa behar du erretzeko eta zuz-

Euskalherriko Irakaskuntzaren egoera Eskolaurrean eta O.H.O.ean Euskararen Irakaskuntzaren eremuan ikuspegitik, 1982/83 Ikast.

	Euskar. gabe	A Eredua	B Eredua	D Eredua	Guzti.	Ikasle kopurua
Eskolan	1 14,53	41,51	22,33	21,63	100	33.587
	2 12,79	47,44	19,37	20,40	100	36.620
urra	1 12,54	55,92	13,22	18,32	100	39.852
	2 13,37	59,98	9,74	16,91	100	40.754
O.H.O.	3 13,65	63,61	56,73	16,89	100	39.299
	4 16,05	64,88	4,03	15,03	100	39.043
	5 18,59	65,62	2,85	12,94	100	40.038
	6 21,26	65,67	2,73	10,34	100	40.822
	7 22,43	65,36	2,91	9,30	100	39.369
	8 23,89	64,93	2,50	8,68	100	36.679

(3) Datoen iturria: EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZ Departamentuko Euskara-Zerbitzuko datuak J.I. RUIZ OLABUENAGA t.a.ek egokituak.

Taula hau ikusita badirudi ikasle kopuruaren gehiengo batek euskara maila bat baduela eta horrela da, lehenengo zutabekoek ez ezik, gainetakoek euskara ba dutela badirudi. Hala eta guztiz ere esan beharrekoa da Eskolaurrean ez beste maila gehienetan A. eta B. erdua oso informalki emen direla. Demagun datoen arabera O.H.O.ko 8. mailako ikasleen % 64,93ek A. Ereduan euskara ematen dutela baina ikasle horiek beharbada euskara lehenengo urtez eman dute. Dato hauen erlativeotasuna beraz nabaria da. Eskolau-

Eskolak berak barrura begira badu puntu ezberdinetatik datozkion zenbait gatazka, eta barruko sistema egokitzearen beharra dute lehenbizi, asmo hutsean geratu nahi ez badute.

Eskolaren inguru ekologikoa

Aipatutako gizarte diglosikoak sortzen duen kontraesanek kanpo bada beste bat eta gure ustez eragin handia duena, eskolako giroa da, ez gelakoa bakarrik, eskola zentro

pertzeko. Hobe litzateke eskola guztiak elebitasuna hartu beharrean laurdenak hartzea baina hauek bada ez badakoan ez baina zer nahi dugun eta nola nahi dugun argi ezatea eta eramatea.

Inguru giro honen garrantzia aspaldidanik ikusia dugu. Irakasle gehiena euskalduna ez den eskola batetan euskarak haurrengan duen etekina frogatua dago eta hau ez da sekreto, aitortzen ez bada ere edozeinek daki hau horrela dela, eta irakaslegoaren banaketa sistema al-

datzen ez bada, ez dugu konponbiderik ikusten.

Euskalerriko irakaskuntzan oraindik erdaldun huts diren irakasle asko dago. Ba dakigu egoera hay oso konplejoa eta eztabaidagarria dela baina ez isilik gordetzekoa, nolabaiteko irtenbidea eskatzen duen arazoa da. Irakaskuntzaren eraketaren zenbait atal estatutik eta estatu batuaren zentzuz egiten diren bitartean, elebitasunak, irakaskuntza osoan behintzat, ez du zentzu haundirik.

Bestalde, euskararen irakaskuntza ongi, oso ongi prestaturiko irakasleek egiten ez ba dute, ez da errotuko, ze, erakusteko lehenbizi zer erakutsi ongi jakin behar bait da. Hau da beste koska, nola prestatu irakaslego egokia? Nola berziklatu eskoletan lehendik dagoen irakaslegoa?

Eskolaren inguru giroa eta Euskara

Aipatu gisa eskolak berak barrura begira badu zenbait konflikto eta barru sistema egokitzearen beharra, ze ondorioak zuzenean ikasleengan bait dute islada. Ikus dezagun kuriositate gisa 1.982-83 ikasturtean hiru Eskoletako eskolaurreko gela batetan jasotako zenbait oharpen.

Taula honetan ipintzen ditugu eskola bakoitzaren xehetasunak: Hizkuntzari begiratu, lehenengo bi zentroak Euskara 2. hizkuntzatat

hartua zuten, hirugarrenak berriz, lehenengotzat. Aukerari buruz, lehenengo zentroan guraso batzuekin hitzegin zuten bai, euskara jarri baino lehen, hala ere, guraso gutxi joaten zen bileretara eta bakar batzuk hartu zuten erabakia, ondorioz ikasle gehienak euskara hartu beharrean aurkitu ziren. Ez da hau gertatzen bigarren eta hirugarren zentroan, hauek ikaslegoa hartu aurretik, beren definipena egin bait dute eta ikasleak, bere gurasoak, bai bait dakite ze aukeraren jabe diren. Gurasoen maila erdi maila ingurukoa da. Eta erantzunak ikusten den bezela hobeak dira. Ezberdintasun hau, alderdi batetik baino gehiagotik obserba daiteke, guk Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Saileko programan antzera, edukin gramatikalen ekuspegitik ikus ditzakegu. Hona eskola horietako bakoitzeko hizkuntza klase baten, eta ikastaroaren bukaeran haurren erantzuna.

Elemento gramatikal hauen bidez eginiko esaldiak, A. Ereduan, 18 perpausa izan ziren, B. Ereduan, 49 eta D. Ereduan 85. Bestalde perpausen maila A. Ereduan, lehenengo urteko programaren parekoak, hau da, B. Ereduko lehenengo urterako zegoen programaren edukinak betetzen zituzten. D. Ereduan berriz, aurreko biekin ez zegoen konparaziorik. Azkeneko honetan haurrek euskara erabili egiten zuten erraztasunez eta nahiko ongi. Hemen euskarak komunikazio funtzioa

betetzen zuen normalki. Emaitza, benetan aberatsa iruditu zitzaigun. Ulermenaren sailean A. Ereduan nahiko hedatua zegoen. Irakasleak edozein egunetan diapositibetan ipintzen zien ipui bat ahoz kontatzen zien eta haurrek nekerik gabe ulertzen zuten, erdaraz adierazten bait zuten ulertzen zutena. Erabili ordea ez, ez zuten oraindik eguneroko esaldirik ere erabiltzen.

B. Ereduko zentroan ulermena ez zegoen haun hedaturik, egituraz ariketez lantzen zuten euskara batik bat. Haurrek egituren erantzunak erraztasun haundiz ematen zituzten. Ikus, hain errazak ez diren egiturak nola egiten zituzten:

Irakasleak: - «Leirek eskua buruan du»

Nor da Leire?

Ikasleak: - Eskua buruan duena da Leire.

Irakasleak: - Ea Pello, esan iezaiozu Martini boligrafoa, emateko.

Ikasleak: (martinengana joan eta) - Eman iezadazu boligrafoa.

Eskola honetan hala ere, haur hauek ez zuten hitzegiten, mekanikoki ikasi eta erabiltzen zituzten esaldiak, eta orduan behintzat eskolak ez zuen euskara komunikabide gisa erabiltzen.

Laburpen hau esan dugu eskola saio batekoa dela, aurretik ere jaso genituen hainbat baina haiek laburragoak ziren. Ikastaroan zehar iku-

	Euskara	Aukera	Sozial maila	A.	Eusk.	Hizk.	Erantzu.
	Zentro-arena	Ikasle-arena			zenbat kurtsotan	jatorria	
A. Ere zentroan	2. hizk-tza	Derrigorrezkoa	Langilegoa	4-5	2	Gaztelania	Eskasa
B. Ere. zentroan	2. hizk-untza	Aukerazkoa	Erdi maila	4-5	1	Gaztelania	Egokia
D. Ere. zentroan	1. hizk-untza	Aukerazkoa	Erdi maila	4-5	2	Gaztelandia	Oso ona.



Aurreko taulan ikusitako erantzunaren laburpena

	HIZTEGIA	DEKLIN.	ADITZ. ASP.	ADITZ ERAK.	SINT.
A. Ereduko zentroan	-gorputza -gela	-zer -nor -nola -non	-orain -gero -etzan -eseri	-Indika -Inper. zuzena	-Perp. sinpleak
B. Ereduko zentroan	-gorputza -gela -etxea -denda -antzerki -jolasa	-zer -hor -non -nola -noren	-lehen -orain -gero -joan sin. -egon -galdetu -eseri -egin -pasa -garbitu -bainatu -pintatu	-Indik -Inper. -zuzena zeharkakoa	-perp. sinpleak -p. txerta tuak. erlatiboa
D. Ereduko zentroan	-astearen egunak -egutegia -ezker -eskubi -gora -behera -entxufea -kablea -lapurra ¹ -hondartza -arroka -lapa -gazia -karramarroa -zirkoa-gorputza -gela-etxea (gauzak)	-zer -nola -nork -nori -non -noiz -nondik -nora -noren -partit.	-lehen -orain -gero -egunero -orain lehen -etorri -egin -aldata -hasi-joan -ireki-itxi -ekarri-falta -jakin-kendu -jarri-geratu -iristatu-resbalatu -hartu-kontatu -jan-laguntzail -NOR -NOR-NORI 3. per. NOR-NORK (ez osoa) NOR-NORI-NORK (ez osoa)	-indik. -inperat. -zuzena -zeharkakoa -potenziala -kondizionala	-perp. sinpleak -perp. konp. -konpl. -kausala -helburuzk -zehir gal

(1) LAPURRA: Bi zentzutan erabili zen: LAPURRA betiko zentzuan eta hiru entxufe sar daitekeen elektro-tresna.

si eta obserba ahl izan genuen eredu batetik bestera dauden aldeak eta oraindik hipotesi neurrian besterik ez bada ere Euskararentzat ekologia ezinbestekotzat jotzen dugu, irakur bedi giro egokia, bai zentroaren aldetik baita irakaslearen aldetik ere. Euskararen errendimenduan ez da gelako giroa eta gelako irakaslea, inguruaren eraginaren pisua arrunt erabakikorra dela deritzagu ez Esko-

laurrean bakarrik, baita O.H.O.ean ere.

Euskalerriko eskolak gaurregun elebitasuna eratzeko arazo asko ditu beregain, irakaslearenak: euskara menderatzen ez duen irakaslearenak, eta menderatu nahi ez duenarenak.

Laburtuz, Eskolak lehenengo barruko aukera egin behar du zentro

mailan, hau da lehenengo pausoa gizarte disglósiko bateko eskola disglósikoa gaitzeko derrigorrez eman behar dena.

Frantziska Arregi



EUSKARAREN ALDEKO DIGLOSIA

Kebek-etik bi lerro idazten ditut elebitasunari buruz. Hemen ere badugu hizkuntz borroka gogorra, ingelesa eta frantsesaren artean. Egia da hizkuntz egoera bakoitza berezia dela, eta hemengo esperientzia ez daitekeela den bezala Euskal Herrian aplikatu. Dena dela, uste dut Kebektarrek frantsesastuna irabazi dutela «Hizkuntz'Lege Nagusia» 1979 an bozkatu zutelarik.

Eta haiek egin dutena guk zergatik ez? Azken 15 urte hauetako hizkuntz borrokari nahiz eta guda horretarik zenbait erizpide bildu nahi nituzke, gero ikusteko gure herriarentzat, baliagarri direnatz.

Elebitasun osoaren lilura.

W. Mackey-ek esaten zigun gauza hau: «Asma dezagun kebektar guztiek ingelesa eta frantsesa berdin-berdin dakitela, eta egoera guztietan erabilizeko moduan, bi hizkuntzetarik bat gehiegi litzateke. Esan nahiko luke herri osoan herritar guztiak elebidun orekatu izatea utopia dela, inon eta inoiz gertatu ez dena. Berehala bereiz ditzagun herri elebitasuna eta giza elebitasuna.»

Herri elebidunak badira hala nola Kanada, Belgika, Russia... Baina ez uste ukan Kanadatar guztiek



bi hizkuntz ofizialak errazki erabiltzen dituztenik. Ez. Gizarte elebitasunak esanahi du bi hizkuntzak edo gehiago legezkoak direla, eta bakoitzak bere hizkuntzak edo gehiago legezkoak direla, eta bakoitzak bere hizkuntzean erdiesten ahal dituela gobernuko, udaletxetako edo banketxetako zerbitzuak. Bestela esanez, frantsesdunak zerbitzu publikoetan aurki dezake zerbitzari frantsesduna. W. Mackey-ek dionaz, «elebakardunekin antolatzen da herri elebiduna. Elebidunak ere badira, itzultzaile, bitarteko, politikari, mugazain, taxilari, hertzain, erdi mailako zuzendari, irakasle, hizkuntzalari eta beste. Ehunetarik hogeia.

Ehun biztanletarik hogeia elebidun nahikoa da herri bat elebitasunean antolatzeko. Horietarik zenbaitak elebitasun funtzionala darabil. Hertzainak badaki autozainei bidea erakusten, bideko lege puntuak ulertarazten, larderia adierazten, hizkuntz batean edo bestean, prozedura edo multa ematen paper egokia betez. Gauza bera esan daiteke dendetako edo ostaluetako zerbitzariarentzat, taxilari edo mugazainentzat: lanak eskatzen duen elebitasuna daramate, zenbaitak oso hertsiki, bestek gehiago. Taxilariak badaki hiriko xoko onez mintzatzeko, eguraldiaz ere pixka bat.

Elebidun orekatuak ere badira. Zein dira? Goi mailako jende ikasia eta hoiien familietako haurrak. Edo etorkinak, etxean ama hizkuntzan ari direnak eta gero lan tokian beste hizkuntza batean. Ez aipa eskola elebidunak, esperimentalak bait dira, haur gutxirentzat eta iraupen ttikikoak: W. Lambert-ek hain zehazki aztertu zituen Montrealeko eskola elebidunak, orain elebakardun itzuliak dira.

Diglosia iraunkor da, elebitasuna iragankor

Soziolinguistikak erakusten dizkigu herrialde osoak elebidun edo eleaskodunak direla, hala nola Indian, Kamerunen, Ruandan eta holakoetan. Eta gauza bera esan dezakegu Euskal Herrian eta Israelen.

Kasu bakoitza berezia da. Baina gauzak hurbilago aztertu ondoren, ikus dezakegu diglosia funtzionala iraunkor dela eta elebitasun orekatua iragankor. Bitxikeria! Ez. Afrikan ohartu nintzen hiruzpalau hizkuntza zekitenekin, hizkuntz bakoitzak bazuela funtzio berezia. Adibidez «baule» zen etxeko hizkuntza, «diula» salerospenetan, eta frantsesa ikastetxeetan. Indian gauza bera gertatzen dela diote hizkuntzalariek. Lurralde batean erabil ditzaketela hizkuntz asko, baina hizkuntz bakoitzak baduela bere funtzioa: bat auzoan, bestea merkatuetan, hirugarrena administraziorako, laugarrena, inork ulertzen ez duena, otoitz egiteko.

Hau da beraz diglosia funtzionala, lehen Ferguson-ek definitu zuena:


«Gizarte batean kode ezberdinak erabiltzen direlarik, luzaz irauten dute, batek funtzio berezia betetzen duelarik, besteak betetzen ez duena. Zerbitzu berak eskaintzen dituztelarik, noizbait bat bestea ordaintzen du» (1959).

Diglosia hau gertakizun (fenomeno) zabala eta iraunkorra da, hizkuntza bakoitzak bait du bere eraginkortasuna. Baina hizkuntza horietarik bat baliokotako (polibalente) bilakatzen delarik, besteak suntsitzen ditu. Frogak hor ditugu Irlandako eta Israelgo hizkuntz egoerak gonparatuz.

Irlanda versus Israel

Ikus lehenik zer gertatu den Irlandan. Gaelika da legez herri hizkuntza, Ingelesa aldiz gehien erabiltzen den hizkuntza da. Elebitasuna ezarri zuten ikastetxe guztietan, Ingelesdunek Gaelika ikas zezaten, eta Gaeldunek ingelesa. Hona herri guztia elebitasunean eta iduriz herri hizkuntza salbatua da. Bai zera! Elebitasun hau izan da Gaelika hil duen azken ukaldia. Nolaz hori? Ez ote ziren bi hizkuntzak hein berean? K. Marx-ek zion axeria oilategian ezarriz, denak berdin zirela, baina bata besteak baino berdinago. Ofizialtasun soilak ez dio hizkuntz ahulari indarririk ematen. Legerik gabe, hizkuntz borroka salbaia da. Bi hizkuntzak legezkoak direlarik, borroka «zibilizatuago» da. Bi kasuetan, goiz edo berant, indartsuenak irabazten du.

Alabaina Ingelesdunek gaelika ikasi dute ikur(simbolo) bezala, gramatikalki eta agiria erdiesteko. W. Mackey-ek kontatzen zigun gurasoak zein harro ziren esaten ziotelarik: «Gure semeak badaki bigarren deklinabidea». Alderantziz, Gaeldun guztiek ingelesa ikasi dute, ez sinbolikoki, baina erabiltzeko moduan. Hauek dira egiazko elebidunak, bi hizkuntzen gai



guztietaz mintza daitezkeenak. Funtzio berarentzat bi hizkuntza direnean bat gehiegi da: elebidunen haurrek ingelesa erabiltzen dute eta gaelika ikasten dute ikur bezala.

Diglosia hau iraunkorra izanen da, baina hilgarria herri hizkuntzarentzat. Zenbait urtez Irlandan gaelika irakatsiko da, lehen latina ikasi genuen bezala.

Esanen didazue Israelen herri hizkuntza berriz biztu dutela zenbait mendetan hila zegoena. Egia da hori. Baina nork ez du ikusten soziolinguistikaren aldetik bi hizkuntza hauen baldintzak oso ezberdinak direla? Mende hasieran irudi zukeen gaelikaren egoera hobea zela: hizkuntza bizia zen hebrera aldiz, Liburu Saindu hizkuntza. Artetik esan dezadan, hebrerak bazuen betidanik esanahi mistiko eta herrikoia. Ikasia eta irakurria zen; ez zen beraz arrunt hila, XIII. mendez gero, ez bazen mintzatzeko ere. Eta gero, bi herriek beren nortasuna erdietsi dutenean, batek 1921-ean, besteak 1947-an, herri hizkuntzaren auzia trenkatu behar zuten. Irlandak bazeukan jadanik herritarren arteko hizkuntza, ingelesa, komunikazio funtzioa ongi betetzen zuena. Etsaien hizkuntza zelako ez zuela ikur esanahirik? Bai, baina askoren ama-hizkuntza zen, bai eta Ameriketako adiskideena ere. Beraz hunkipenaren aldetik balioaskotakoa (anbivalente) zen. Eta bestalde, bakea etortzearekin ikur funtzioa ahultzen da: gaelikazko lehen bi deklinabideak eta zenbait kantu zahar aski dira gerra ondoko abertzalentsat.

Israelen aldiz ez zeukaten herritar guztiek ulertzen zuten komunikazio hizkuntzarik. Etorkinek sorterriko hizkuntzak erabiltzen zituzten, alemanera, erusiera, ingelesa, jidixa eta beste. Elkarren artean zein erabil? Han bertako arabea ala gehienek ezagutzen zuten ingelesea? Hemen politika aukera garrantzi handikoa egin zen: Hebrera ororen arteko komunikazio hizkuntza hautatu zuten. Hori izan zen desafio handia: inork erabiltzen ez zuen hizkuntza, baina denek maite zutena, erabil hizkuntza bilakatzea. Hizkuntzalariek Liburu Sainduetako bost mila hitzeta-

rik, berrogeita-hamar mila hitz sor arazi zituzten. Eta irakaskuntza zabaldu zen, haurrentzat eskoletan, helduentzat irrati eta telebistaz, kibutzetako gau eskoletan, etorkinentzat «ulpan» ikastetxeetan. Ikaskuntza dinamika harrigarria sortu zen, hiztegiak, irakasle, programatzaile, ikasle gazte eta zaharren artean. Hogeita bost urtez, hebrera berritua, Liburu Sainduetarik jalgi zen ikastetxeetara, aldizkarietara, ikusgarrietara eta etxeetan, lantegietan, politika bileretan, orotan sartu zen. Eta ondorioak hor daude: herri komunikaziorako hebrera, komunikazio belaunaldi zenbaitetan. Dena dela hebrera berpiztu da beharrezko funtzio bat aurkitu baitu herri hizkuntza bezala.

Hizkuntz funtzioak


Euskal Herriko hizkuntz egoera zertan da? Irudi luke Irlandako egoeratik hurbilago garelako eta euskara ikur hizkuntz bilakatuko dela, komunikazio funtzioa galtzen ari bait da. Nire ustez euskal egoera bestela aztertu behar dugu, hizkuntz funtzioak hobeki definituz.

Zein dira hizkuntz funtzio nagusiak? Ezagutzen dugu A.Martinez-en funtzionalismoa, bai eta Troubetskoy-ten sei funtzioak. Bi teoria hauk hizkuntzalartatik hurbilegi daude eta komunikazio eskemak mugatzen ditu: mezulariak mezua nola helarazten dion entzuleari, gauza baten erreferentzia emanez eta kanala bereziari jarraikiz. Idealki hizkuntz guztiek bete ditzateke funtzio hauek: funtzio deigarria, adigarria, edo adierazgarria, funtzio erreferentziala, poetikoa edo gramatikala. Beste azter-eskema batu hautatuko dugu hizkuntzen espazioa kontutan hartuko duena, Txeppek-ek egin zuen bezala: non, noiz, zein hizkuntza erabiltzen dugu? Iker tresna hobea aurkitu arte, H. Gobard-en «tetraglosia» teoria aplikatu diezaiozun euskarari, «Alienation linguistique» liburitik harturik.

H. Gobard-ek dio lau mintzamolde erabiltzen ditugula, etxekoa eta otoitzekoa, erabilgarria eta kulturala. Bakoitzak badu bere funtzio berezia.

1.- Etxe mintzamoldea (langage vernaculaire) ama-hizkuntza deitzen dugu, haur garenean haren bitartez egin baitugu guren lehen identifikazioa. Hizkuntza hau familian erabiltzen dugu eta auzoan, ahaideekin eta adiskideekin etxondoko lanetan eta herriko jolasetan. Nortasunaren hizkuntza, elkargoa-rena da eta maitasunarena. Psikologiaren aldetik biziki indar handia du. Esan daiteke hizkuntz baten erroak etxe eleak direla hauek dialektala izanik ere.

2.- Erabil mintzamoldea (langage vehiculaire) komunikaziorako tresna da zeinahi jenderekin harremanetan sartzeko hirian erabiltzen dena. Gizarte bizi modernoak gero eta komunikazio zabalagoak eskatzen ditu: salerosleek, langileek, turistek herri mugak pasatzen dituzte, bai eta liburuek eta teknikek ere.





3.- Kultur hizkuntzak (langage referentiaire) lotzen gaitu gure arbasoekin. Jakitate eta sentimendu batzu gizaldiz gizaldi errepikatzen dira. Atsotitzek, literaturak, kantu eta antzerkiak «erreferentzia» ematen digute iragan belaunaldiei buruz. Orain aldia lehen aldiari jarraitzen da eta Kulturak denborari eta herriari ematen die bere batasuna ikaskuntzaren bitartez.

4.- Otoitzak -otoi hitzak?- (langage mythique) beste munduarekin harremanetan ezartzen gaitu, lekuz eta denboraz kanpoko indarrak erdiesteko. Inork ulertzen ez dituen hizkuntza zaharrak erabiltzen dira, zeruko mintzamoldea bait da. Zerukoa edo ifernukoa, aingeruentzat edo sorginentzat, zori ona eskaintzeko edo zori txarra botatzeko.

Lauki baten barnean ezar ditzagun eleketaren lau espazioak eta lau funtzioak.

Mintza-moldea	Noiz?	Non?	Helburua	Hizkuntza
1. Etxe elea	Orain	auzoan	elkargoa	ama-hizkuntza
2. Erabil elea	gero	hirian	komunikazi.	«erdarak»
3. Kultur hizkuntza	lehen	herrian	aberri	eskola hizk.
4. Otoi-hitzak	beti	zeruan	zoriona	hizkuntza zaha.

Badaiteke arbela hau osatu behar izatea, adibidez, laneko mintza-moldea edo ikur hizkuntza falta baita. Esan dezakegu lana auzoan edo hirian egiten dela, beraz lehen edo bigarren espazioan. Ikurra al-diz, bizi diren kulturalak dira, folklore bilakatzearekin zerura bidaltzen ahal ditugu.

Hizkuntz alienazioa

Hau bera da aipatu liburuaren izen burua. Orain arte ikusi dugu zer den diglosia funtzionala, mintzamolde bakoitzak funtzio nagusi bat betetzen duelarik. Hemendik hara diglosiaren dinamikaz ohartu behar dugu. Diglosia iraunkor da bainan ez dago geldirik. Hizkuntzak borrokan ari dira, indartsuenak besteak hiltzeko arriskuan ezartzen ditu Alienazioa gertatzen da kanpotik etorri indar zenbaiten eraginez herriak bere nortasuna galtzen duenean eta beste zerbait bilakatzen denean. Alienazioa bestelakotzea da. Teoria hau, K. Marx-ek erabili zuen ekonomia eta politika alorretan gizarte klaseen arteko guduak aztertzeko. Uste zuen kultur alienazioa ekonomia mailako zapalkuntzaren ondorioa zela. Geroztik badakigu hizkuntz guduak baduela berezitasun bat eta beretzat azter daitekela, H. Gobard, L. Cálvet, G. Heraud eta beste batzuk egin duten bezala. Eta deskulturatzeak baduela bere urraspidea, alor askotan ger-

tatzen dena. Hegel-en «nagusi esklabo» dialektikari jarraituz hona zer esan dezakegun.

Lehen egoera: Etxe elea, erabil elea eta aberri-kultura, hizkuntz beretik sortuak dira, hizkuntz bera- ren mintzamolde bereziak. Otoitz hizkuntza Liburu saindu zahar batetik jalgia da.

Bigarren egoera: Erabil hizkuntza kanpotik dator, gudarien, saltzaileen edo etorkinen bitartez. Hirietan, merkatuetan eta lantegietan erabiltzen den hizkuntz berri hau, herriko klase aurreratuenek ikasten dute eta hurrei irakasten. Poliki eta emeki ibil-elea, etxee-ele bilakatzen da eta ikastetxeetan sartzten. Aberri hizkuntza ere ikasten da eta ikur honek elkargoa atxikitzen du herritarren artean.

Hirugarren egoera: Aberri hizkuntza denek ikasten dute, inork ez baitu erabiltzen. Badauka oraino esanahi mitiko edo sinboliko zerbait, gizarte edo politika guduen aitzaki bezala. Abertzaleek zenbait atsotiz, oihu edo kantu erabiltzen dituzte eta gero erabil hizkuntz modernoan komunikatzen dira bilere-tan. Hizkuntz honek komunikazio espazio osoa betetzen du. Haatik ondoko belaunaldian erabi hizkuntz zabalago bat borrokan sar daiteke.

Harbela honek agertzen du zer gerta liteken alienazio-teoria euskarari edo beste hizkuntza bati aplikatuz. Euskal geolinguistika diakronikoak erakusten digu, hemen arrisku bezala ematen dugun urraspidea, jadanik zenbait lekutan gertatua dela.

Egoera	Auzo eleak	Erabil hizkuntza	Aberri kultura	Otoi-hitzak
1.	herrikoa	herrikoa	herrikoa	h. zaharra
2.	herrikoa	erdara	herrikoa	h. zaharra
3. edo 1.	erdara	erdara	erdara	herrikoa
4. edo 2	erdara	nazioartekoa	erdara	herrikoa

Urraspidearen jarraipena asma dezakegu. Komunikazio zabalerako balio duen hizkuntzak dauka nagusitasuna. Hiriko harremanetatik eta lantegietatik sartzten da eskoletan eta azkenean etxeetan.

Historia gure eskuetan dago.

Harbelatxo honek Irlandako istorioa kontatzen digu, eta urtero inor harritu gabe, hogeitaz hizkuntz itzaltzen dira, eztiki, amonaxo zaharra betiko loan sartzten den bezala. Beste kultura aldiz batzuentzat urraspidea itzuli da: Kebekeko frantsesa bigarren urratsetik lehenera pasatu da eta hebrera laugarretetik bigarrenera. Lau euskaldunetarik bat, bigarren urratsean dago, eta beste hiruak hirugarrenera hel-

duak dira. Nora goaz? Ez naiz profeta, aztertzaile baizik.

Ikus dezagun beraz zer gertatu den Kebeken. Ehun urteko hizkuntz borrokaren buruan bi lege nagusi: Kanadan hizkuntz ofizialen legea, Kebeken frantsesaren lege nagusia. Duela mende bat, 1867-an, Ipar Amerika Ingeleseko Legeak, bi hizkuntzak ezarri zituen hein berean, frantsesa eta ingelesa. Berdintasuna teorikoa zen, indartsuena indartuz zihoan eta ahulena ahulduz. Hainbatetaraino non, 1970-ean, Hizkuntz ofizialen legearekin Kanadako gobernuak errepikatu bait zuen. Baina beti ondorio berarekin, frantsesdunek ingelesa ikasten zuten; aldiz ingelesdunek ez zuten frantsesaren beharrik.

Kebektarrek ulertu dute azeriaren historia, eta 1977-an Hizkuntz lege nagusia bozkatu zuten. Lehen zatiko artikulua bakarra hau da «Frantsesa da Kebekoko hizkuntza ofiziala». Tita (puntu) eta besterik ez. Ingelesa? Hitzik ez. Azeria kanpora.

Legearen bigarren zatiak Kebektarren hizkuntz eskubideak bost puntutan finkatzen ditu: bilerak, zerbitzu publikoak, lana eta sal-erosketak frantsesez. Eta boskarrenik ikaskuntza frantsesez. J.J. Gendron jaunak, hau hizkuntz politikaren antolatzaileetarik bat da, hizkuntzalari honek Gipuzkoako ordezkari eta Euskadiko funtzionario batzuei esplikatzen zien, zergatik ezartzen zen ikaskuntza azkenik eta ez lehenik. Lehenik hizkuntzaren erabilera segurtatu behar zelako, gero beharrezko hizkuntza nahita ez ikasiko bada. Alderantziz irakatsi hizkuntza, ez da beti erabiltzen. Gauza hau ikusten dugu Euskal Herrian.

Zertan ote zen frantsesaren egoera, Lege nagusiaren denboran? Etxe guztietan mintzatua zen eta eskola guztietan ikasia. Baina lantegietan, salerosketetan, banketxeetan, komunikazio-hizkuntza ingelesa zen. Kirola, publizitate, bide seinale, kantu, beti ingelesa belarri zuloetan eta begien bistan. Eta hona non Kebekoko lehendakariak erabakitzen duen: Torontok ingeles itxura duen neurrian, Montrealek frantses itxura hartuko du».

Etxe elari buruz edo ikastetxeetan, Lege nagusiak ez du gauza handirik aldatu. Familietan betidanik frantsesez mintzatzen ziren, edo zuzenago esanez «jual» dialektoan, euskarara itzuliz «zaldi» mintzamoldea. Kultur hizkuntza frantses normalizatua zen, bakarrik behe mailako klaseetan, ingelesarekin goi mailako ikastetxeetan. Literatura eta filologia gaietan frantsesa nagusi zen. Zientziak eta teknikak, liburu amerikanoetan ikasten zituzten. Erabil hizkuntza ingelesa zelako, ondorioz ikaskuntza ere ingelesari buruz zihoan: etorkin guztiek beren haurrak ingeles eskoletan ezartzen zituzten. Belaunaldi pare baten buruko, frantsesdunak «Indio» bilakatuko ziren Kebeken bertan.

Eta hona non hizkuntz lege nagusiak alienazioaren prozesua gelditu duen: herri hizkuntza frantsesa da. Beraz erabil hizkuntza frantsesa da Kebeken. Eta beraz, ikaskuntz hizkuntza frantsesa da ororentzat.

Ingelesa bigarren hizkuntza da, komunikazio zabaleraiko. Egoera hau ez da elebitasuna deitzen ahal, bi hizkuntzak ez bait dira hein berean. Ez eta ere elebakartasuna, ingelesak ere ofizialtasuna bait dauka espazio zabalago batean. Egoera hau elelehentasuna izenda nezake edo Ferguson-i jarraikiz diglosia funtzionala. Diglosia hau pizgarria da frantsesarentzat eta arrisku gabekoa ingelesarentzat.


Teoriatik praktikara lehen bait lehen pasatzeko, Lege nagusiak frantsesaren kontseilua eraiki zuen erabaki eraginkorrek hartzeko. Ondoko ikasturtetik at, etorkinen haurrek frantses eskoletera joan behar zuten. Bi urte barne, bide seinaleak eta erosgaien idazkiak, bi hizkuntzetan ezarri behar ziren. Bost urteren epean, lantegi, bulego, eta erostetxe guztiek frantsesez funtzionatu behar dute: laneko hizkuntza, idazkiak, publizitatea eta beste. Eta frantses agiria erdietsi behar dute, gobernuarentzat lanean ari nahi badute. Horiek guztiak errepresiorik gabe egin dira eta Kontseiluaren laguntzaz.



Eta Euskal Herrian zer?

Gu, ateka arriskugarrian sartuak gara. Erdarak guztien komunikazio hizkuntzak dira. Denak erdaraz alfabetatuak eta kulturatuak gara. Etxe hizkuntza laurden batentzat euskara da, gehientzat erdara. Asimilazioaren laugarren urratsera ote goaz zuzen zuzenean? Ez dut uste. Inkestek erakusten dute alfabetatze-euskalduntze mogimenduaren eta ikastolen ondorio onak. Euskaldun asko beren kulturaz jabetu dira eta erdaldun zenbait euskaldundu dira. Beste gertakizun (fenomeno) ohargarri bat agertu da, erdi-euskaldun ainitz badirela euskara zerbait dakitenak: erdalduntzen ala euskalduntzen ari direnez ez dakigu. Beste inkesta baten gaia liteke eta behar bada hemen dago euskararen geroa. Soluziorik aipatu aurretik, nire aldetik gure hizkuntz egoeraren problematika finkatu nahi nuke laupabost puntutan.

1. Diglosia funtzionala da hizkuntzen egoera «normala» eta ez elebitasun orekatua. Hau gerta daiteke ehunetarik hogeientzat edo bi belaunaldiren arteko epe iragankor batean. Baina herri osoak, epe luzean, bi hizkuntza erabil ditzakela, bata bestea bezain ongi eta egoera guztietan, hau ametsa da. Politika bileretan, aho ukaldi edo slogan bezala zerbait balio du, baina soziolinguistika alorrean ez du esanahi handirik.



2. Etxe elearen garrantzia hamaiketan azpimarratzekoa da. Inkesta guztiek frogatzen dute familieren eragina hizkuntz trasmisioan. Oraingo euskaldun gehien-gehienek bi gurasoak euskaldun dituzte. Gurasoetarik bat erdaldun delarik, haurrak beti erdaldun dira. Euskaldun berriek ere, badute familian hurbileko norbait euskaldun. Euskaldun etorkinak ehunetarik bost dira. Zoritxarrez euskaldun familia askotan haurrak erdalduntzen ari dira. Eta gauza hau kalte izugarria da. Familia baten erdalduntzea, herri hizkuntzarentzat atzeratze lazarria da, gerran hiri baten galtzea bezala.

Ondorioz, lehen bait lehen asmatu behar dugu familien euskalduntzeko didaktika. Guraso erdaldun askoren haurrak ikastoletara doaz, baina ez da gurasorik gau eskoletan ikusten. Familia hauetan ez da beraz, euskara erabiltzen. Gure problema da familia osoa nola euskalduntzen ahal den. Didaktika honek egoera bereziak kontutan hartu behar ditu: guraso bat euskaldun den, edo haurrak ikastolara doazen, edo denak erdaldun diren. Ikas-tresnek euskal irakaskuntza familietan sartuko dute, gurasoek haurrekin euskara erabiliz, ikas dezaten. Liburuak ez dira aski. Beste ikasbide batzu antola daitezke, hala telebistaz nola irratiaz ikaskaien antzezteko: telefona eta etxe askotan laster jarriko den mikro-informatika berehalako itzulpenak erdiesteko. Hizkuntza asko ikasteko erabiltzen diren mass-tresnak, zergatik ez euskararentzat? Eraginkorrago liteke, egiazko euskaldun baten laguntzaz, etxeko edo auzoko norbait. Familien arteko elkar-laguntza ere antola daiteke, iparraldeko «Elebi» mogimenduan bezala.

3. Denbora berean baloratu behar dugu euskaldun zaharren jakinduria. Hauek dira jatorrizko euskaldunak. Ez esan analfabeto direla, ez dakitelakoan euskara batua edo gramatika arauak. Hor gertatzen zaigu gauza harrigarria. Lehen erdaldunek apaltzen zituzten euskaldunak. Orain euskaldunak ari dira euskaldunen kulpabilizatzen, esanez hoienek euskara ez dela egiazko euskara. Hola jokatzuz, etnozidioa akulatzen dugu. Behin betikoz jakin dezagun, jatorrizko hiztunek daukatela «konpetentzia» eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko «euskaranto» hil bat baizik.

4. Euskal kultura ikastoletan irakatsia da: eskoletan ere zerbaitxo eta filologia fakultateetan. Uste dut dinamika hau aurrera doala. Ohar bat egin nahi nuke, euskara batuari buruz. Beharrezkoa dela esateko liburugintzan eta komunikazio zabalerako. Baina den bezala arriskugarria dela, euskalkietako aberastasunak baztertzen dituen neurrian. Gramatikatzailerik latina hil zuten Erdi Aroan, jakite berriek eskatzen zuten malgutasuna, kendu bait zioten Erromatarren hizkuntz ederrari. Beraz, hizkuntz artifizial bat emanaz eredutzat euskaldun berriei eta zaharrei, batutzaileek ere euskara hil dezakete.

Euskalkietan dauden jatorrizko hitzak eta lokuzio beroak bildu behar ditu euskara modernoak. Euskara



bildua da euskara batuaren bihotza, euskaldun guztiek berentzat gogotik onar lezaketena.

Baina bi belaunaldiren pazientziaz: W. Mackeyren beste hitz bat: «Hizkuntza normalizatu behar da, baina tolerantzia handiz». Haatik irрати eta telebistaren bidez epeak labur ditzakegu. Dena dela euskal kultura beritu behar dugu, eta hemen kulturatzaileek daukate azken hitza, bertsolari eta kantariak, idazle eta irakasleak.

5. Erabil-euskara. Hau da hizkuntz borrokaren eta euskal ikaskuntzaren ateka zaila; «Euskara zertarako?» Gizarte komunikazio guztia erdaraz egiten da: bilerak, administrazioa, zerbitzu publikoak, hirietako lanak, salerosketak mass-mediak. Erdaraz bakarrik edo erdara nagusi. Euskarak hemen bere espazioa irabazi behar du. Espazio hau erdarari uzten badio, ikaskuntza ere utziko dio eta gero auzoko harremanak. Euskara erabil-hizkuntza bai ala ez, hau da herri hizkuntzaren bide gurutzea edo bihurtzea.

Irakaskuntzaren dinamika ederki daramagu. Erabilaren dinamika lotu behar dugu. Eta helburua aski gora ezar dezagun. Ez bakarrik hizkuntzen berdintasuna, herri hizkuntzaren lehentasuna, baizik. Beraz euskararen aldeko diglosia funtzionala. Eguneroko komunikazioa euskaraz, komunikazio zabala erdaraz. Euskara erabil-hizkuntza, erdara ibil-hizkuntza. Ikusi dugu gobernuak zer eragin handia duen ofizialtasuna deklaratu, administrazioarako eta ikaskuntzarako elebitasuna edo elelehentasuna finkatuz, hizkuntz ahulena lagunduz eta abar. Baina politikariak ez dira herritarren nahia baino hurrunago aurreratzen ahal. Ez dut hemen aipatu Kebektarrek eta Kanada guztiko frantsesdunek hainbat urtez, eraman zuten hizkuntz gerrila; txekak frantsesetik idatziz, ingelesezko multak ez ordainduz, dendetan gauzak frantsesetik eskatuz. Lantegiak, erostetxeak eta hiribideak legez euskaldundu aurretik. «Urrats txiki estrategia» akulatuko dugu, eguneroko erresistentzia moduan; euskal lantegi, kooperatiba edo erostetxe, hirietako bil-txokoak, euskarazko emankizunak edo bilerak. Zenbaitek dio «geto» jokabideek ez dutela eragin handirik. Orain badakigu «geto»-etako jidixetik, Israelgo hebrera ederrera pasa daitekeela, helbideak luzeak badira ere. Gogoan atxik helburua.

Eta irakaskuntzak ere erabilaren arabera izan behar du. Ikaskuntza gramatikalak helburu kul-

turala du, eta ez du komunikazioa aski laguntzen. Azken urte hauetan, aldiz, hizkuntz ikaskuntza, gramatika ikasbideetarik komunikazio hurbilbidera iragaiten ari da. Hitzun berriak funtzio erabilgarrienak ikasten ditu lehenik, komunikazio gertakariak errazki iragaiteko. Funtzioak, hiztegia eta gramatika ikasten ditu, baina komunikazio egoera konkretu baten alorrean. Erabilera erdiesten bada, kultura ere erdietsiko da. Alderantzizko bidea ez da segurua.

Laburtuz

Euskal Herriak hauta dezala bere herri kultura. Ez daiteke hiru hizkuntzen erdian elehirutasunean egon. Gauzak doazen bezala utziz, herria bi erdal kulturetan zatikatuko da eta etxe-hizkuntza zen euskara, otoitz hizkuntza bilakatuko da. Eta guk azken «Kirie eleison» entzun dugun bezala, gure seme-alabek entzunen dute Zuberoko eliza zahar batean azken «Jauna urrikal». Kultur borrokan ez da urrikirik hizkuntz ahulentzat. Euskara bigarren hizkuntza bada, ez tiki baina segurki hilen da. Dazkan espazio hertsia galduko ditu, karrikatik etxera eta gero etxetik zerura: hizkuntzalarien liburuak eta folkloristen zintak izanen dira gure hilerriak.

Baina zer alternatiba? Herri hizkuntzari eman behar diogu lehentasuna, euskararen aldeko diglosia pizgarri bat antolatuz. Tokian tokiko etxe hizkuntz aberatsak bizirik atxik ditzagun eta erdalduz ari diren familiak euskalduntzen lagun ditzagun. Hemen daude gure nortasunaren erroak. Etxe hizkuntz bai eta kultur hizkuntz ere. Gizaldiei jarraikiz aberriaren indarrak gure alde ezartzen ditugu eta kultur modernoak akulatzen dugu, alde guztietatik bildu euskaraz. Komunikazioan nola ibil eta zein hizkuntza erabil? Erabil lehenik euskara, herrian herriko harremanetan. Ikas ere erdara bat edo beste, herriz herri eta jakitatez-jakitate ibiltzeko. Gutarteko komunikazioa euskaraz, herri arteko harat-honakoa erdaraz. Hori bai, herria txikiago eta erdara beharago dela. Baina txiki izateak ere baditu ondorio onak eta kartsutasuna hobe da zabaltasuna baino.

Beste aldi batez iker genitzake zeintzu diren diglosia funtzionalera heltzeko bideak eta tresnak.

Kebek-etik, 1983-ko urriaren 1-ean.

Erramun Baxok



ELEBITASUNA ?

Herri batetan bi hizkuntz desberdin elkarrekin bizi direnean, elebitasunaz hitzegin ohi da. Hitz honen oso deskribapen sinplea egiten digu, leku horretan bi hizkuntz daukela besterik ez digu adierazten.

Baina zein egoeratan aurkitzen dira hizkuntz hoiek? Zein harreman dituzte beraien artean? Nork hitzeginen ditu? Nork ez? Nork hitzegin behar lituzke?... Elebitasun hitzak ez digu galdera guzti hauen erantzuna eskeintzen. Hizkuntza ez da gauza abstraktu bat, herri konkretu batetako pertsonen erabiltzen duten tresna baizik. Hau horrela delarik, edozein hizkuntzak bi funtzio nagusi betetzen ditu: herritarrak batu eta beste herriengandik bereizi.

Adituek adierazten digutenez, elebitasun motak ia nahi adinakoak dira, gradu arazoa da. Adibide gisara, elebitasun mota batzu aipatuko ditugu, bada:

ELEBITASUN MOTA	MAILA	IKUSPUNTUA
a) Elebitasuna / Sasielebitasuna.	Individuala	Linguistikoa
b) Anbilinguismoa / Elebitasuna.	Soziala	Soziologikoa
d) Simetrikoa / Asimetrikoa.	Territoriala	Sikologikoa
e) Koordinatua / Subordinatua.		Historikoa
f) Iraunkorra / Atzerakorra.		
g) Aktiboa / Pasiboa.		
h) Diglosikoa / Ezadiglosikoa.		
i) Funtzionala / Integratzailea.		
j) Goiztiarra / Berantiarra.		
k) Naturala / Eznaturala.		
l) Onartua / Ez onartua.		

Elebitasuna honako mailotan azal daiteke, maila bakoitza sai-hetsean agertzen diren ikuspuntu guztietatik azter daitekeelarik. Adibidez: elebitasun atzerakorra maila sozialen ikuspuntu historikotik.

Ohar gaitzen, elebitasunaz mintzaten ari zaizkigunean, zertaz ari diren jakiteko, mota guzti haue-tatik zeinetaz ari diren zehaztu beharko liguketela. Leku desberdinetan egoera elebiduna desberdina baita. Ezin ditzakegu pareka Lizartza eta Tuter. Egoera guztiz da desberdina. Kasu hauetan elebitasuna esata edo ezer ez esatea berdintsua da, 2 hizkuntz daudela esaten dute bakarrik.

Arazoaren mamia:

Euskara Euskal Herriko gizartean bizi da. Hizkuntzaz hitzegiten ari gara, baina arestian esan dugun bezala, hizkuntzak herriek hitzegiten dituzte. Pentsatzen badugu «hizkuntza minoritarioa» nazio batek hitzegiten duela, konturatuko gara, hizkuntz hori desagertzen den neurrian, nazioa ere desagertu egiten dela. Hau da, euskara gabe ez da euskaldunik eta euskaldunik gabe ez da Euskal Herririk.

Arazoa historikoa da eta egoera modernoa. Prozesoa, dinamikoa da eta ez estatikoa: Euskara ala erdara erabiltzeko aukera egiten dugun bakoitzean, egunero eta minutu bakoitzean erabakitzen ari den prozedura da. Zeren erabiltzen den hiz-

kuntza bizi da, eta erabiltzen ez dena, nahiz oso bihotzean eduki, galdu egiten da. «Hizkuntza ez baita galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik.»

Baina ikus ditzagun zein diren egoera honetan gure hizkuntza erabiltzeko probabilitateak. Horretarako Fischmanek proposatu zuen inkesta egingo dugu. Euskal Herrian euskal elebatar guztien desagerketa gogorra ezagutu ondoren, gaur % 100ek erdara dakigu (frantsesa nahiz espaniola) eta % 25en inguruan elebidunak gara, euskara eta erdara dakizkigu. Egoera honetan egin behar diren galderak dira: NORK hitzegiten du?, NOREKIN?, ZERTAZ?,... Baina garrantzizkoena zera da, euskara erabiltzeko baldintza guzti hoiak bete behar direla, hots, euskalduna izatea hitzegiten ari dena ETA euskaldun batekin aritzea ETA gai arrunt batez ETA ahoz ETA abar... Aldiz, baldintza hoietako bakar bat betetzen ez baldin bada, erdara erabiliko da: erdalduna baldin bada hizketan ari dena EDO erdaldun batekin ari baldin bada EDO gai formal batez EDO idatziz EDO leku publikoren baten EDO...

Hori dela eta gaur Euskal Herrian, euskararen erabilpenaren maiztasuna ia hutsaren parekoa izatera dator eta aldiz, erdararena ia erabatekoa da, eta erabilpen murriz honek erakusten digu zein izango den biharko euskararen espektatiba,

gaurko erabilpenak biharko iraupena baldintzatzen baitu. Eta horri buruz esan daitekeen gauza bakarra zera da: hain gutxi erabiltzen den hizkuntzak ezin duela luzaro iraun, eta gaurko euskara-erdara harreman honetatik, euskararen betirako hondamendia datorrela eta berarekin Euskal Herriarena.




Euskal Herria, euskalduna izate-tik erdalduna izatera heldu da Historian zehar. Historian zehar beti norabide berean gertatzen da prozesu hau. Euskalduna da elebidun egiten dena, elebatar erdalduna izatera iristeko, eta ez alderantziz.

Aldebateko elebitasun honen nondik norakoa zehaztu egin behar da: herritar gutxi batzuk, erdaraz gain, euskara hitzegiten dugu. Beraz, euskaldungoa, erdaldungoaren azpimultzo bat da.



Elebitasunak ez du esaten zein diren elebidunak eta nola aldatzen diren hizkuntzak ariketa okasio desberdinen arabera.

Euskalduna elebidun izatera heldu da derrigorrez erdara jakin behar izan duelako. Aldiz, erdaldungoa elebakarra da, erdarak edozertarako balio duelako, baita euskaldunarekin hitzegiteko ere



Hau da «egoera minoritario» baten eskema tipikoa. Egoera hau hiru multzo mota zein harremanetan dauden aztertuz adierazi daiteke:

- Jendea
- Hizkuntzak
- Okasioak (Jende horrek hizkuntzak erabiltzeko dituenak).

Egoera honetan erraza da argitzen zein diren euskara-erdara erabilpenaren erregularitateak. Erregularitate hoiek erakusten dizkigute, aldeztu aurretik, zein hizkuntz erabiliko den eta hizkuntz bakoitzaren erabilpenaren probabilitate matematikoak. Adibidez, egoera batetan euskaldunak %50 balira eta erdaldunak beste %50, hau gertatuko litzateke, Euskal Herriko edozein herritan.

NORK HITZEGITEN DU?

Euskaldunak %50
Erdaldunak %50

gehiago jaisten da beste faktore hauen arabera: komunikazioa idatziz edo hitzeginez den, lekua publiko edo ofiziala den, e.a.

Beraz, erregularitate hauek eragingo dute SISTEMATIKOKI ERDARA ERABILTZEAK ETA KORRELATIBOKI EUSKARA BAZTERTZEAK. Hortik dator despro-

portzioa, hiztunen eta erabilpenaren kopuruaren artean.

Aracillen hitzez esateko: «En efecto, detectamos un mecanismo semejante a la dominación-recesión genética, y entrevemos otra vez la conexión entre la «tendenciosidad sincrónica» y la tendencia diacrónica previsible».

Gaur hau baldin badugu erraza da asmatzen bihar zer datorkigun, eta borroka honetatik zein hizkuntz aterako den bizirik.

«Elebitasun» modernoan sorrera:

Gizarte batetan bi hizkuntza daudenean, ez dago orekarik eta

NOREKIN?

+ %25
+ %25

ZERTAZ?

- %12,5 = %12,5
+ %12,5 = %37,5

Euskaldunak beraz %50 balira, hasteko probabilitatea horixe litzateke, baina euskaraz hitzegiteko parekoak ere euskaldun beharko luke, beraz probabilitatea berriro erdira jaisten da, %25. Gainera euskaraz gai arruntetaz besterik ezin daiteke hitzegin, gai serioetan erdaraz mintzo behar baita, beraz azken probabilitatea %12,5 koa izango litzateke. Azken probabilitate hau

koesistentzi pazifikorik, hizkuntz-borroka eta norabide bakarreko ordezkapen linguistikoa baizik.

Historikoki hainbat eta hainbat hizkuntz eta herri desagertu baldin badira beti gertatu ohi da komunitate inbaditzaile bat gainezarri zaiola jatorrizko komunitateari eta hizkuntz harremanak menpetasunekoak izan direla, hots, botereak hizkuntz bat bultzatu du eta bestea

baztertu, beti desagertu aurretik «elebitasun» fase batetatik pasa izan delarik jatorrizko hizkuntza.

Hain zuzen ere, ez Euskal Herrian eta ez inon, «elebitasun» bezala aurkeztu nahi diguten egoera hau ez da berez sortu. Egoera hau prozesu luze baten ondorio da. Zapalketa linguistikoa, zapalketa orokorago baten zati bat besterik ez da, zapalketa honek bere bitarteko militar, ekonomiko, administratibo eta judizial guztiak erabili dituelarik gure herria suntsitzeko.

Estatu arrotzek gure herria (eta beste hainbat) zapaltzeko erabili dituzten harmarik sendoenetakoak beren hizkuntzak izan dira, bi herrien eta bi kulturen arteko borroka azken batetan hizkuntz-borroka bilakatu delarik. Era batetara edo bestera sistemak bere boterea mantendu nahi badu derrigorrezkoa zaio bere hizkuntza berarekin izatea.

Hizkuntz borroka hau esan bezala, norabide bakarreko ordezkapen linguistikoa batetan kokatzen. Ordezkapen honek mail desberdinak ditu, hauek lirarteke nagusienak:

a) Talde militarrek ezartzen dira eta beraiekin batera talde administratibo eta komertziantek, bertako laguntzaileek, menperatzaileen hizkuntza darabilkitelarik.

Boteredun talde txiki horrek hizkuntz menperatzailea darabilen artean herriak hizkuntz menperatua besterik ez daki.

Ezarpina sendotzen ari den birtartean, eskolaren bidez hizkuntz menperatzailea zabaldu eta inposatu egiten da, faktikoki eta gehienbat administralgoari begira, beste hizkuntzik ez balego bezala jokatzeko delarik.

b) Aurreko mailak zentzu bertikalak zuen, hizkuntz bat goian dago eta handik behera ezartzen da. Hizkuntzen banaketa desberdintasun sozialen banaketarekin bat dator.



Mail honek ordea, zentzu horizontala izango du, kontraesan hauek sortuko direlarik:

Berrikuntza – Hiria – Industria – Hizkuntz menperatzailea

Tradizioa – Landa – Nekazaritza – Hizkuntza menperatua

d) Aldebateko elebitasuna:

Aurreko mailatan elebitasuna hizkuntz berri bat (erdara) ikastea zen. Erdara ikastea «behar» bat bezala planteiatzen da, derrigorrez ikasi beharrekoa da eta kitto (Dekretu frankista guztiak eta Konstituzioa). Baina inposaketa hau gure onerako da, «aberastasun» bat.

Mail honetan jada, hizkuntz menperatua dakiten guztiek, menperatzailea ere ezagutzen dute. Elebitasuna orain ez da hizkuntz berri bat ikastea izango, euskara beste hizkuntz batekin bizitzea baino.

Orain arte erdararen inposaketa beti mail sozialean planteiatu bada ere («Todos los españoles tienen el deber...»), hemendik aurrera euskarari irekiko dizkioten bideak beti mail pertsonalean planteiatuko dira eta erdararen nagusitasuna dudatan jarri gabe.

e) Asimilazioa:

Historian zehar herri bat edo nazio bat desegiteko bi bide hartu izan ohi dira: exterminazioa edo asimilazioa. Bata genozidio totala izaten da, bestea berriz, genozidio kulturala. Lehenengoak pertsonak fisikoki akabatzen ditu, (Gernikako bonbaketa edo Ameriketako indioen ezabatzea) bigarrenak pertsonak asimilatu egiten ditu beren izaera aldaraziz eta hau eginez espeziea akabatu egiten da nahiz eta pertsonak bizirik utzi, hots, euskaldunak erdal-dun bihurtzen dira. Beraz, bi metodo esberdin baina ondorio berber, espeziea akabatzea.

Sistemak prozesu hau inor kontsultatu gabe hasi zuen eta orain, pentsatzen zuen bezala bukadadin itzarotea besterik ez zaio gelditzen.

Gero eta euskaldun gehiagok uzten badute euskara bide bazterrean, beraiek bakarrik direla erbaki ho-

rren erantzule sinetsaraziko digute gainera «elebitasunak» eskeintzen dituen aukeren izenean.

Une honetan, hizkuntzaren desagertzea segurtaturik dago.

Elebitasunaren erretolika

Erreforma planteiatzen hasi zenean, eta gauzak ondo lotuta jarraitezaten botereak aurkitu zuen arazoetako bat, nazio-eskubideen onarketarekin uztarturik zegoen arazo linguistikoaren egoera errotik aldatuko ez zuen erantzun bat aurkitzea izan zen.

Erreformaren aurreko urteetan, benetako aldaketa demokratiko baten Europako zoko honetako hizkuntz minorizatuentzat irtenbide egoki, demokratiko eta sakon bat

ekar lezakeela uste bazen ere, sistemak garbi utzi du ez dagoela amore emateko pr desberdinez baldinbada ere, orduarteko helburua lortzekotan dagoela, euskararen eta penintsularen beste hizkuntz minorizatuaren baztertze eta erabateko ezabatzea, alegia.


Eta hemen sortzen da elebitasunaren erretolika. Eta elebitasuna tranpa bsat da. Lortu nahi omen den helburura iritsi ez gaitzen zabaldu diguten tranpa liluragarria.

Elebitasunaren erretolika defendatzen dutenen helburu bakarra, gizartean dauden borroka eta tentsioak lasaitu eta neutralizatzea da, konpromezu pertsonal eta kolektiboak baztertuz, eta hizkuntz borrokaren arazoa errealitatetik at dabilen diskutso baten bidez estaltzea. Hain zuzen ere, eta Euskal Herriari begira, elebitasunaz gehien mintzo direnak ez dira elebidunak eta inoiz ez digute aurkeztu elebitasun hori praktikara eramateko plangintza edo neurri kondreturik. Azazoaren mamia kontutan hartu gabe, soluzioak aurkitu nahi dituzten artean sortutako diskurtso honek (garbi esan zuen Fragak «Es hora de soluciones»), ez du inondik ere, aldarrikatzen duen berdintasuna lortu nahi, arazoa egoera mitiko batetara pasatzea baizik.

Elebitasun orekatuaren proiektua, sarri «demokratek demokratikoki» planteiatuta, ezinezkoa da (Irlanda lekuko), horretarako sortzen diren erresistentziak haundiagoak direlako bultzatzen dituzten indarrak baino. «*Es evidente la perentoria necesidad de garantizar el uso y la enseñanza del castellano en todo el territorio nacional.*» (Martín Villa).

Kike Amonarriz





EUSKARA ETA IRAKASKUNTZA

Zalantzarik ez euskara, gaur duen hedapena zabaldu nahi badiogum laguntza ugari behar duela. Tamalez euskal hiztun garenok mugatzen dizkiogu hegalak arlo guztietara, gizarteko arlo guztietara sar ez dadin. Asko eta askok daramagun jokabidea sinestezina da: kalean eta jendaurrean euskararen eskubi-deak aldarrikatzen eta oihukatzen ditugu, lagunartean eta etxebarnean ateak isten diskiozun aldi berean. Ikastola batetako aski ezaguna den irakasle batek –jendaurrean euskararen alde burukatzen den irakaslea–, euskararik ez zekien bere etxeiko haurra ekarri zigun ikastolara. Zenbat eta zenbat aldiz hasten gara gaztelaniaz –eta ez euskaraz– dendetan, tabernetan, banketxetan, udaletxetan eta abarretan zerbait eskatu behar dugunean. Euskal hiztun garenok ugaritzen ez badugu euskararen presentzia –eta aldi berean euskararen beharra– gizarteko arlo guztietan, gutxirako balioko diote lurralde hauetako berrezko hizkuntzari erakunde publikoetatik etor dakizkiokeen neurri guztiek. Zenbat eta beharrezkoago bilaka arazi euskara gure harremanetarako, orduan eta neurri ugariagoak eta indar handiagokoak hartzera beharturik aurkituko dira erakunde beroiek ere. Orduan bakarrik izanen da emankorra kalean egin dezakegun burruka.

Baina muga nadin, salaketa hori egin ondoren, lantxo honen gaira: euskarak irakaskuntzan izan behar lukeen tokia eta garrantzia azpimarratzera eta zehaztera. Argi dezadan hasieratik hemen eskeintzen dudana gogoeta-sail bat baino ez dela, eta ez dudala besterik egin izan nahi.

Irakaskuntza oinarriz euskaraz

Euskararen hedapena zabaldu nahi bada, jadanik duen indarra sendotzetik hasi beharko da. Euskal hiztuna denak euskara edozertarako baliogarri zaiola sumatu behar du lehenik. Haurren mundura mugatzen garelarik –euskal ikasle gehienak, neurri handi batetan bederen, haurrak bait ditugu–, neska-mutikoek euskara jolaserako, lagunarteko eta etxeiko harremanetarako, atsedenaldietarako eta eskolarako ere tresna egokia gertatzen zaiela sumatu behar dute txiki-txikitandik, hizkuntza hori bere kontzientziapean aintzakotzat jo dezaten.

Etxebarnean eskolari garrantzi handia ematen zaio gaurko gure gizarte honek eskolaketa on bat eskatzen bait dio gizartekideari edozertarako. Baldintza eta eskakizun horrek eraginik, gurasoek ardurara handiz jokatu nahi izaten dute beren haurren eskolaketa aukeratzerakoan eta norabidetzerakoan. Ardura eta garrantzi hori haurrak zuzen-zuzenetik sumatzen eta jasotzen du, bera bait da eskolara joan eta bertan jardun eta saiatu behar duena.

Kontraesan bat jasan beharko luke haurrak bere kontzientziapean etxean euskaraz hitzegitera behartzen duten gurasoek –horretara behartzen badute, bederen– gero euskarari garrantzirik ematen ez zaion ikastetxe batetara bidaliko balute gizarteak gorentzat hartzen duen kultur-antolaketaarako euskarak garrantzirik ez duela frogatuko bait litzaioke horrela jokatuz. Euskararen garrantzia zalantzan jarriko ge-

nioke horrelako haur bati era horretan jokatzuz. Ez da harrizkoa gertatuko, gero biharko gaztetxo edo pertsona heldu horrek ateak isten badizkio bere jokabidezko arlorik garrantzitsuenetan.

Euskara hedatu eta indartuko bada, gizarteak aintzakotzat jotzen dituen arlo eta maila guztietan tresna baliagarri gertatzen zaiola sumatu behar du txiki-txikitandik haurrak. Hau lortzen ez bada, neurri handi batetan alferrikakoak gertatuko dira geroago har daitezkeen neurriak eta emango diren urratsak. Euskal hiztun diren haur guztiei eskolaketa euskaraz egiteko aukerak sortu behar zaizkie, horretarako inolako baldintza berezirik jartzeko: irakaskuntza ordaindu beharra edo antzekorik e.a. Euskarari dago-kionez euskal hiztunen kontzientzia kontzientzipean sendotzetik hasi beharko, nortasunean itsas-itsasorik geratuko bait dira haurtzaroko bizitapen horiek.

Era bereko kontraesana litzateke haurra irakaskuntza euskaraz egitera behartu eta etxebarnen erabaki horri dagokion joka-biderik hartuko ez balitz: haurrentzako irakurgaiak, telebideoak e.a. aukeratzekoan euskarari garrantzirik emango ez bali-tzaio. Zer esanik ez, etxebarneko harremanetan euskarari tokirik egiten ez bazaio.

Era honetan jokatzuz bakarrik lortu ahal izanen da nagusiki euskara hutsez hitzegingo duen euskaldunen gizarte-talde bat. Talde hau izango litzateke euskararen euskarria eta oinarria. Era honetako talde bat osatzen ez den bitartean euskararen etorkizuna zalantzan egondo zaigu beti, hedapen eta indar handiagoak dituzten hizkuntzez inguraturik bait dago. Gurearen egoeran aurkitzen den hizkuntz baten iraupenerako beharrezkotzat jotzen dute aipatutako talde horren antzeko bat bai FISCHAMAN-ek soziolinguistika orokorrez ari denean eta baita SANCHEZ-CARRION («TXEPETX») ezagunak ere zuzenki euskararen etorkizunaz dihardularik: euskara etxebarne eta lagunarterako, teknika eta kulturako, lanbide eta salerosaldietarako oerabiliko duen talde bat osatu beharko dela, eta ia-ia euskara hutsez baliatuko den talde bat gainera. Talde hau zenbat eta handiagoa izan, orduan eta etorkizun hobea euskararentzat.

Honek aez du esan nahi, ordea, talde hori osatuko duten pertsonen beste hizkuntzarik menperatu beharko ez dutenik. Ezinbesteko izanen zaie inguruko hizkuntza nagusietako bat ere ezagutzea.



Bestela talde itxi batetara mugaturik sumatuko lirateke eta hori jasan-ezina eta arriskugarria sumatuko lukete, euskara hutsik eta inguruko hizkuntza bat ez menperatzetik kalteak datozkielakoaz ohartuko bait dira, berriro ere euskararen aurkako jarrera bat hartzeko aukera eta joera ugarituko litzatekeelarik. Aurrera joan behar ordez, atzera joateko baldintzak jarriko lirateke ere horretan, edo horretarako arrisku handiegia legoke. Dena dela argi egon behar luke, beste epe batetan euskara hutsez bizi ahal izateko baldintzak ere sortu beharko direla Euskal Herri barruan, bertako biztanle guztiak gutxienez euskara ulertzek ogai bilaka daitezenean.

Orain artekoa laburbilduz zera azpimarra daiteke, beraz: nagusiki euskara hutsez jardungo den gizatalde bat osatu beharra dagoela. Horretarako aukerak eta baliabideak aeskeini behar zaizkiola (zaizkigula) euskal-hiztun denari (garenoi), eta haur mundura mugatuz, ikasketa guztiak oinarritz euskara hutsez (eta kalitate onez) egiteko aukera eta baliabideak sortzea ezinbesteko dela. Baldintza hau sortzea ezinbestekoa da. Baina baldintza honekin batera beste hau ere eman beharko da: euskal-hiztun garen guztiok (edo ia-ia denok) gure ardurapeko neska-mutikoak bide horretatik gidatzea. Hau da: lehen aipatutako baldintza sortu bai, baina aukera horretaz baliatzen ez direnen taldea zenbat eta handiagoa, orduan eta etorkizun ilunagoa gure hizkuntzarentzat. Izan ere, euskal-hiztunen talde bat (taldearen zenbaitokotasuna kontuan harturik, jakina) euskararen beharrezkotasan sozialaz konturatu gabe dagoen bitartean (eta beharrezko ez delako gertatuko da hori ezinbestean) zaila izango da euskaraz ez dakitenak euskaraz hitzegitera jartzea. Talde batekin bai lortu ahal izango da hori, baina kontzientzi sakon bat dutenekin bakarrik.

Kontzientzia aipatu dudanez, zenbait ohar, pasarran bederen, arazo honetaz. Lambert eta Tuckert-ek eginiko azterketa enpiriko baten ondorioz, hizkuntzen ikaskuntzan eragina duten motibazio nagusiak bietera bil daitezke: eragin integratzaile eta eragin instrumentalera, alegia. Eragin integratzailea hizkuntza bat gizarte batetan bizitzeko ezinbestekoa gertatzen denean ematen da. London-era bagoaz bertan bizitzeko asmotan, inglesa derrigorrezkoa zaigu gizarte horretan bizikera eroso bat (muga minimoetan eroso) eraman nahi badugu. Eragin instrumentala, aldiz, bizi gareneko gizartean lanbide edo maila sozial hobea bat lortzeko beharrezkoa egiten zaigunean emango litzateke. Bi eragin hauen indarrez erraza omen da hizkuntza berri bat ikastea. Eskolako neska-mutikoetara mugatzen garelarik, hauen gurasoek horrelakorik sumatzen ez badute beren semealabei dagokienez, hauek ez lukete etekin handirik eskuratuko hizkuntz-ikaskuntzan emandako ahaleginetatik. Gurasoek sumatzen duten eraginak zuzen-zuzenean bait du bere ondorio seme-alaben ahaleginetan. Irakaskuntza arloan nahiko ezaguna da gertakizun hau.

Euskaraz ez dakitenez aipatutako eratako eraginak suma ditzaten euskal-hiztun garenotatik jaso be-

harko dute euskararen beharra. Eta hemen galdera bat datorkit burura: zein neurritan jotzen dugu euskara beharrezkotzat euskal-hiztun garenok? Beharrezkotasun honen neurriak erabakiko du beste gizatalde batek euskara ikas dezala, eta denbora gutxien euskara ikas dezala gainera.

Irakaskuntza bi hizkuntzetan

Euskararik ez dakiten gurasoen haurrak euskalduntzea eskatzen diogu gaurko eskolari. Bi eginkizun ezartzen dizkiogu era honetan eskolari: haurrak eskolatuz euskaldundu edo haurrak euskaldunduz eskolatu, nolabait adierazteko. Bi eginkizun hauek aurrera eraman beharrean aurkitzen da gaur egun Euskadiko hainbat eta hainbat eskola.

Arazoak bi eginkizun horiek praktikan norabideratzerakoan sortzen dira. Hasieratik dena euskaraz eginaz lor al daiteke haurra egoki eskolatzea, bere amahizkuntza euskara ez bada? Ala hizkuntzaren heldutasunak eskolaketan? Euskaldundu behar dira haurrak, hori argi dagoen eginkizuna da, baina praktikoki nola eratu behar da eskola barruan haur horien euskaldunketa? Horixe da arazoa. Teorian jakin badakigu haur batek bi eta hiru hizkuntza ere ikas ditzakeela batera, eta hori inolako arazo larririk gabe. Horretako, ordea, baldintza zehatz eta egoki batzu derrigorrezkoak dira: eragin integratzailea dagoen tokian hori errez lor daiteke. Eragin instrumentala dagoen tokian ere arazo handirik gabe lor daiteke eskolaketa bigarren hizkuntza (haurrak ikasten duen bigarren hizkuntzan, alegia) oinarrituz egitea. Arazoa, hemen, bi eragin-mota horien presentzia eta indarra nolakoa eta zenbaterainokoa den jakitea da. Gaur gaurkoz, eta beste zehaztapenik egin gabe, eragin integratzaileak ez dago oso ahula da, euskararik gabe ere bizi baitaiteke Euskadin. Eragin instrumentala ugaritzen eta handitzen badoa ere, gaurkoz nahiko murrizta da: lanbiderik gehienetarako ez da euskararik eskatzen, Euskadi osora begiratu, egunkarietako lanpostu-eskeintzak aztertu besterik ez dago horretaz jabetzeko: hamarretik bederatzietarako ez da euskararik eskatzen.

Toki askotan eginak dira jadanik haurrak bigarren hizkuntza batetan eskolatzeko ahaleginak eta saioak. Saio eta ahalegin gehienak ondorio beretara iritsi dira: Galesekoa Dogsonek adierazten digu, Kanadako Lambert eta Tuckert-ek, alemana.

H.Klemp-ek e.a.

Azken honek honelatsu adierazten du urteetan zehar alemanek beren atzerriko eskoletan bildutako esperientzia: ikasleen artean selekzio berezi bat egin ez zen bitartean ikasleen ahalmen intelektualak eta motibazioa kontuan hartuz eskoletan biltzen zizuten lorpenak ez ziren egokiak eta haur asko eskola-frakasora bideratzen zen.

Lambert eta Tuckert-ek ere gauza berdina digute: eskola eta metodologia berdinez eskolatutako hau-

rretan bi eratako emaitzak eskuratzen zirela: eragin instrumentala sumatzen zuten familietako hurrek irakaskuntza osoa frantsesez ederki burutzen zutela (frantsesa bigarren hizkuntza zen haur horientzat, eta inglesa amahizkuntza), aldi berean eragin hori sumatzen ez zuten familietako hurrek ez zutela lorpen onik eskuratzen eskola beretan.

Bide beretik doaz Dogson-ek eskeintzen dizkigun zehaztapenak ere Gales Herriko saioak aurkezten dituenean.

Dirudienez, beraz, irakaskuntza haurrentzat bigarren hizkuntza den batetan antolatuz lorpen egokiak edo ez egokiak eskuratzeko baldintzak ez dira eskolan bertan bilatu behar, baizik eta eskola kokaturik dagoeneko gizartean. Gizarte horrek nolako funtzionaltasuna eta instrumentaltasuna ematen dio haurrentzat bigarren hizkuntza denari? Hori da, inondik ere, garrantzizkoa eta hor ikusi beharko litzateke arazoaren kakoa ere.

Oraindainokoa esandakotik ondorio bat atera daiteke: haurrentzat bigarren gertatzen den hizkuntzan ere eratu daiteke irakaskuntza osoa, baldin eta hizkuntza horrek bertako gizartean eragin integratzaile edo instrumentala handia badu. Eskola batetako irakaskuntza antolatzerakoan kontuan hartu beharko da baldintza hori. Baldintza hori ematen ez bada, ahalegin guztiak hutsean eta haurraren kaltean gertatzeko arriskua dute. Arrisku handiegia, inondik ere, arinegi jokatzen hasteko.



Edo adimenez aurreratuenekin talde bat osatu eta hauekin eskolaketa bigarren hizkuntzan antola daiteke, eskuratuko diren ondorioak onak izango direlakoaren itxaropen osoz. Jokabide honek, ordea, beste era batetako arazoak dakartza, hezkuntzaren filosofiatik begiraturik gero onartu ezin diren arazoak, gainera.

Euskerak oraindik ere eragin handirik ez duen herrietan nola jokatu izango dugu, beraz, arazoa. Irtenbide baten zain dagoen arazoa.

Gurasoek beren haurrak eskolatu nahi dituztenean eskolabide zehatz bat aukeratzen dute horretarako: garaian ezarririk dagoen eskolaketa-bidea gainera: mailaz edo zikloz eraturik dagoen eskolaketa, maila edo ziklo bakoitzean erabakirik dagoena landu behar delarik. (Askotan, eta O.H.O.ko lehen mailatan bereziki, araupetutakoa baino gehiago eskatzera ere jotzen dute zenbaitetan, irakurketa-idazketa eta kalkuluariketaz azkarregi lantzerantz behartu nahi izaten ditztelarik maila horietako arduradunak).

Eskolaketa egoki egiteko edo egoki egin ahal izateko hizkuntzak badu bere garrantzia; hizkuntzaren heldutasun gutxiengo bat ezinbesteko baldintza da hainbat eta hainbat trebetasun lantzeko.

Irakurketa-idazketa lantzeko eskatzen den hizkuntza-heldutasunak urteko haurrak bere amahizkuntzan lortzen duenaren parekoa izan beharko omen luke.

Arau bezala onartzen da hori gure Europa zahar honetako estatu gehienetan: Holandan, Belgikan, Suizan, Alemanian, Austrian e.a. Beste zenbaitetan haurrak 7 urte bete bitartean ez dira irakurketa-idazketa sistematikoa lantzen hasten, hala nola Suezian.

Pedagogiaren ikuspuntutik begiraturik errez uler daiteke jokabide hori: irakurketa-idazketa ahohizkuntza (hizkuntza mintzatua) beste era batetara adierazteko sistema bat da. Egoki eta errez irakurri eta idatzi ahal izateko mintzatu ere erreztasunez eta egoki mintzatu beharko aurrez. Nola idatzi izango du, bestela, haur batek «aspertu nauzulako banao hemendik» (eta adibide haur oinarri-oinarrizko esaldi bat da) hitzegiterakoan esateko gauza ez bada? Irakurtzen eta idazten hasi aurretik, beraz, erraztasunez eta jariokortasunez mintzatzeko gauza izan behar du haurrak. (Nere ustez ez du balio zera esateko: irakurketa eta idazketa trebetasun mekaniko hutsak direla oraintsu ikastola batetako zuzendari batek bere lankideei adierazi dien bezala-, irakurri zerbait ulertzeko irakurtzen bait da, eta idatzi zerbait ulertzerazteko idazten. Trebetasun mekanikoek ulermenaren zerbitzuan egon behar dute, bestela ez da ulertzen zertarako irakasten zaien hurrei irakurtzen eta idazten).

Arazo berdintsuarekin egiten dugu topo matematika eta kalkuloaren arloetan ere, haurraren pentsakera logikoa eta kalkulotrebetasunak inolako sakontasunez landu nahi baditugu bederen. Har dezagun,

adibidez, batuketaren arloa. $7 + 4 = 11$ direla esatera mugatu ote daiteke hasiera zikloko haurraren kalkulo-trebetasuna?

Ala 11 osatzeko 7 eta 4 batzen dituen bezalaxe batu ditzakeela («batu ditzaket») $3 + 6 + 2$ edo $2 + 5 + 3 + 1$, edo «nik 7 kanika badauzkat zenbat eman behar dizkidazu 11 osatzeko zure multzotik?» Eta hori pentsatzeko, egiteko eta galdetzeko gauza izan behar du horrelako haur batek. Hau da, logika eta matematikaren arloan hipotesi konkretuak landu nahi baditugu, hipotesi horiek lantzeko hizkuntza trebetu bat (maila batetaraino trebetutako hizkuntza, noski) ezinbestekoa egiten zaigu. Bestela matematikaren arloan oinarri raketiko batzuetara mugaturik geratzeko arriskuan egon gintezke.



Gogoeta hauek eginik eta oker ez nagoela uste dudana neurrian bidezko derizkiot bereduaren antolaketa eta eraketari. Irakurketa eta idazketarako eta matematikaren lanketarako hizkuntzaren heldutasun maila egoki bat ezinbesteko baldintza bat agertzen den neurrian eta maila hori bigarren hizkuntzan lor ez dadin bitartean, arlo horiek haurraren amahizkuntzan landu beharko lirerateke, hizkuntza horretan izanen bait du haurrak horretarako gaitasuna.

Aldi berean, ordea, euskara trinko lantzeari jarraitu beharko zaio, eta mintzamen mailan lantzeari soil-soilik lehenik (euskara aurrera ateratzeko, gainera, euskara mintzatua behar dugu nagusiki). Horretarako esperientzien arloa, plastikarena eta dinamikarena ere aukera onak dira, oso gai praktikoak bait dira eta harremanetarako beharrezko den hizkuntza lantzeko bide aproposa. (Aldizkari honen ale beronean agertzen da horrela jokatuz euskara nola landu beharko litzatekeen adierazten duen beste lantxo bat ere). Euskara mintzamen mailan neurri batez menperatzen denean hasi beharko litzateke euskara irakur eta idazketaren bidez ere lantzen. Esperientzia erakusten ari zaigunez, era honetaz eskolatzen ari diren haurrak inolako zailtasunik gabe jartzen dira euskaraz irakurtzera eta idaztera horretarako inolako saio sistematikorik beharrezko gertatzen ez delarik: nahikoa da irakurgai errez eta atsegingarriak haurraren eskuetara jartzean, hauek inolako laguntza berezirik gabe euskaraz irakurtzen hasi eta trebatu daitezten. Hortik idazketarako urratsa ez zaie zaila gertatzen.

Jakina da, euskara mintzamen mailan trebatzen doazen neurrian lehenago amahizkuntzan landu dituzten gaiak ere (matematikazkoak bereziki) euskaraz lantzeraz jarri behar dutela haur horiek, menperatzen doazen euskarak edozertarako balio diezaien. O.H.O.ko amaieran edozertarako trabaturik duten euskararen jabe izan behar lukete haur horiek eskolaketan on bat gainditu ondoren.

Beste ohar batekin amaitu nahi nuke gogoeta sail hau. Euskal Herriko eskoletara doazen hurrez osaturiko kopururik handiena langile soilen girokoa da. Bernstein eta bere eskolako ikertzaileek frogaturik utzi dute haur horiek eskolara dakarten hizkerak berezitasun batzu badituela eta ez dela egokiena eskolan gaiak lantzen diren eran lantzeko. Hizkera hori eskolarako mailan jartzetik hasi beharko litzatekeela dionik ere badago eta horretarako pedagogia konpentsatzaile bat burutu duenik ere ezaguna da: kode murrizturik kode landurako bidea erreztuko duen pedagogia konpentsatzaile, alegia. Eta hori ez kode landua kode murriztua baino hobeagoa delako, edo hau hura baino okerragoa delako, kode bakoitzak bait ditu bere aberastasunak eta bere balioak. Eskolan irakaslegoak eta bertan erabiltzen ditugun baliabideak (liburuek e.a.) kode landuz baliatzen garelako baizik. Eskolak ezartzen duen kode landu honen bidez, nahiko egoera txarrean jarri ohi ditugu kode horretaz baliatzeko hainbat trebaturik ez dauden haurrak. Eta trabakuntza baten arazoa baino ez denez, haur horiei beren kodean trabatzeko aukerak ematek hasi beharko luke eskolak, hizkuntz-hezkuntzari eman ohi zaio baino garrantzi handiago eskeiniz. Honelatsuko haurrek duten arazo hori konpodu aurretik (eta arazo ez haurrak arazodun direlako, eskola berak sor dakizkielako baizik) irakaskuntza bigarren


hizkuntza batetan oinarritu nahi izatea arriskugarri gertatuko litzateke. Honelatsuko haurrentzat, nik berederen, B-eredua edo antzeko beste bat gomendatuko nuke.

Adierazi diren bide hauez baliaturik eskolak euskarari eskeini diezaiokeen guztia eginga duela uste dut, guztia bai gutxienez. Era hauetan eskolaturik gizarteratu daitezkeen neska-mutilak beren harremanetan euskarari egingo dioten tokia, ordea, ez du eskolak bakarrik erabakiko.

Lontxo Oiharzabal Rezola
SAN FERMIN Ikastolan,
1983,ko Urriaren 4. ea.

Bibliografia

- Bernstein, B: Spraxhliche Kodes und Soziale Kontrolle Dusseldorf 1975.
 Fisxhaman, J: Sociologia del lenguaje Edit. Cátedra, Madrid-1979.
 Klomp, H: Zur Lage des Faches Deutsch an den Deutschen Schulen im Ausland.
 in: Der Deutsche Lehrer im Ausland, Juni 1973.
 Lambert eta Tuckert: Bilingual Education of Children Rowley, Mass. 1972.
 Meyer, E.: Ersleseunterricht: Theorie und Praxis in Inund Ausland. Stuttgart-1970.
 Sanchez-Carrión, J.M.: El espacio bilingüe -Eusko Ikaskuntza- 1981.
 Schimid-Schönbein, G.: Möglichkeiten und Grenzen des gestenernten Fremd sprachenerwerbs im Vorschnlalter. München, 1978.



Euskal irakàskintzaren historia apur bat

Nobaitek bestela uste badu ere ikastola ez da asmatu berria, XIX. mendean eraindako hazia fruitua baizik. 1896. eraiki zuen Resurrección M^a Azkuek Bilboko Jardines kalean «Colegio Ikastechea» izenekoa. Azkueren helburua euskaraz zekiten mutilak-mutilen eskola zen, ez neskena-euskaraz euskaratzea zen, eta ez zekitenak euskalduntzea. Azkuek garbi ikusten zuen hizkuntza biziko bazen irakaskintza euskaraz antolatzea naitanaiezkoa zela. Behin eta berriz idatzi zuen horretaz, adibidez berak sortu eta zuzendu zuen *Euskalzale* astekarrian.

Baina goian adierazi dugun bezala, Azkue ez zen hitz hutsetan geratu, egin egin zuen. Dena den, «Ikastechea»ren bidea ez zen erraza izan. Azkue gizon langilea zen, baina ezin denetara iritxi eta «Ikastechea» itxi beharrean gertatu omen zen aldi baterako, La Salletarrak 1903ean Bilbora etorri eta euren gain hartu zuten arte.

1912ean Migel Muñoa jaunak «Koru-ko Andre Mariaren ikastetxea» sortu zuen. Muñoa gizon aberatsa zen eta euskaltzale sutsua. Zituen bitartekoak ikastetxearen serbitzutan jarri omen zituen: etxea erosi, irakasleak ordaindu, liburuxkak argitaratu eta ikasle saiatuak saritu. Garaiko aldizkariak diotenez, eta bertako ikasle izan zirenek aitortu digutenez, irakaskintza osoa euskaraz egiten omen zen. Beraz, Muñoa eta bere lankideen ahalegina ez zen txantxetakoia izan. Gure ustez Azkueren asmoa osatu eta ondo borobildu zuten.

1918ean Eusko Ikaskuntzari sorrera eman zion Batzarra ospatu zen Oiñatin. Han Euskal Herriko irakaskintzaren egoera bereziki aztertutuen talde bat jardun zen lanean, eta hemengo eskoletako arazo larriak esparik gabe azaldu zituzten. Ezin ahaztu, adibidez, Luis Elizalde bergarar irakaslearen eritzi eta eska-riak. Honela zion: «*En virtud de no sé qué abstacciones dañosas y de*

unos convencionalismos falsos y perniciosos a más no poder el Estado ha decretado que en el corazón del País euzkeldun en los últimos «auzoa» de la montaña nabarra, guipuzkoana y bizkaina, la enseñanza sea exclusivamente castellana, o no sea». Eta aurrerago hauxe zion: «...organizar nosotros mismos por medio de la asociación, de una especie de «Matitse Skolska» como la de los txequés, las escuelas euskéricas que sean necesarias. Es el único camino que veo, hoy por hoy, camino penoso, difícil, lleno de sacrificios: pero con todo ello, el único camino practicable»¹.

Aipatutako urte horretatik aurrera Eusko Ikaskuntza eten gabe jardun zen, 1936eko gerra etorri zen arte, irakaskintza euskaldunaren alde. Ahaleginak politika alorrean ez ezik –Diputazioetan eta Madrilgo Gobernuarekin batipat– pedagogia eta ekonomi alorrean ere egin zituen. Esate baterako testugintzak lanak eman zizkion, baina gerra ondorengo ikastoletan erabili dugun zenbait liburu ordukoa dugu, *Xabiertxo* adibidez.

1931ean *Euskaltzaleak* izeneko bazkunak Donostian eta Bilbon irakaskintza elebidunari buruzko batzarrak antolatu zituen. Dirudie-nez batzar horiek antolatzaileek uste zutena baino askoz harrera hobea izan zuten. Jendearen artean nonbait, elebitasunari buruzko kezka benetazkoa zen. Egun haietan hizlari eta lankide Bonifacio Etxegaray, Eduardo Landeta, José Villalonga, Maria Uranga, «Aitol» eta Aita Migel Altzo jaun-andreak izan ziren. Batzarrean irakurritako lane-kin liburu bat argitaratzera ere iritxi ziren, baina ez hori bakarrik. Aita Altzoren bidez Europako zenbait gizon jakintsurekin harremanak hasi ere egin zituzten euskal irakaskintzaegoera larria konpondu nahiz. Haien artean Pierre Bovet, Ginebrako «Bureau International de l'éducation»-eko zuzendari jauna eta Ovide Decroly pedagogoia.

1932ean Bizkaiko Euskal Ikastola Batza sortu zen eta honek ere gerra etorri arte iraun zuen.² Lehena-go probintzia honetan eskola ofizialak euskalduntzeko asmoa, bailara

euskaldunetan behintzat, «escuelas de barriada» edo auzo eskolak sortuak ziren. Horien aita gorago aipatu dugun Luis Eleizalde jauna izan zen, baina eskola horietan lortu nahi ziren helburuak eta errealidadean gertatu zena oso urrun zeuden elkarrengandik.

Dena den, ikastolak Hegoaldeko lau probintzietan zabaldu ziren. Indarririk hundierna Bizkaian eta Gipuzkoan hartu zuten, baina Araban eta Nafarroan ere zenbait sortuak izan ziren. Araban aipagarria da Gipuzkoatik hara «destinatutako» apaiz gazteek haurrak euskalduntzen egin zuten lana, buru Lekuona anaiak, Martin zena eta Manuel, zirela. Nafarroan, berriz, Lekaroz-eko ikastetxea da aipagarria. Hemendixek saiatzen zen bide urratzen Aita Altzo. Bereak dira honako lan hauek: «*Métodos a emplear en la enseñanza del euskera a los niños vasco-erdelunes*», «*El derecho a la instrucción primaria en la lengua materna ante el derecho internacional positivo*», «*Métodos usados en el estudio de la capacidad mental del niño bilingüe*».

Eusko Ikaskuntzako paperetan ikus daitekeenez 1936ean ia pauso garrantzitsuak emanak ziren irakaskintza euskalduntzeko. Ikastolak ez zuten izen txarrik, eta eskola ofizialaren aldaketa ere somatzen zuten. Horregatik, hain zuzen, antolatu zituzten maisu-maistrak euskaldundu edo ta alfabetatzeko ikastaldiak eta haur elebidunen izaera eta arazoak aztertzeke lan taldeak. 1936eko ekainaren 9an egin zuten Donostiako Diputazioan azkenengo bilera Aita Altzok eta bere lankideek. Bileran hartan eztabaidatutakoak eta erabakitakoak gaur, oraindik, esku artean darabiltzagun gaiak dira: oinarrizko hiztegia, testak testu liburuak... Ageriko gauza da, izan zen etena izan ez balitz aurrerago joan izango ginela.

M.^a Carmen Garmendia

¹ *Ikus Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, 1919.

² *Ikus ARRIEN, Gregorio, La génesis de las escuelas vascas*, Bilbao, 1983.



BIGARREN HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZAZ

Azkeneko ikerketa lanek aditzera ematen digutenez Euskadiko biztanlegoaren gehiengo handi batek Euskal-herrian euskara nagusi dadila nahi du. (Ikus «JAKIN» aldizkariaren 27gn zenbakia, 1983). Nahi hori nahiko argi eta garbi agertu du Herri honek beste hainbat arlotan ere: Ikastolak, gau-eskolak, Euskaltegiak, AEK, HABE, e.a. nahi horren adierazgarri dira.

Nahi hori bideratzerakoan irakaskuntzari zeregin handia dagokio. Dena dela ez da uste izan behar irakaskuntzak euskara salbatuko duenik. Euskararen hedaketa politika irakaskuntzara mugatu nahi dutenak asko dira Euskal-herrian. Hitzez horrela adierazten ez badute ere, hori argi eta garbi ikusten da egunoroko jokabidea aztertzen bada: haurrak «B» edo «D» ereduan eskolatzea erabakitzen du guraso askok, baina etxeko giroa aldatzeko ez da inolako ahaleginik egiten: berak ez dira euskara ikastera jartzen, edo jartzen badira iraunkortasun motza dute, haurrentzako opariak e.a. erosterakoan euskarak ez du garrantzirik (komikiak, irakurgaiak, musika eta ipuin zintak...), euskarazko irratiak eta telebistak ez dute tokirik etxe barruan, oporretarako ez da kontutan hartzen euskara bizi-bizirik dagoen herririk edo eskualderik e.a. Eskola da haurarentzat euskarak zerbaitetarako balio duela frogatuko dion erakunde bakarra.

Haurrak eskola bidez bereganatuko duen euskara hizkera eskolarra izango da: eskolako gaiak ikasteko, lantzeko eta aztertzeko balioko diona, euskara akademikoa. Eskolak berez eta berak bakarrik ez dezake gehiagorik egin. (Eta guzti hori lortzen badu, asko lortu duela aitortu behar zaio eskolari. Gaur egun eskolak duen eraketagatik ez dio inolako atsegingarritasun berezirik eskeintzen haurrari. Beraz, eskolakin zerikusirik duen

edozerrek ez du haurraren eragin baikor handirik izango. Irakasle bakoitzaren lanak lortuko, inork lortzekotan, haurra eskolarekin identifikatu dadila eta bertako edozer eginkizunetan atseginez saiatu dadila). Onean ere, beraz, ikasleak eskolarako egokia izan daitekeen euskara menperatuko du. Honek ez du esan nahi, ordea, ikasle horrek (batzuetan oraindik ere haurra) bere kaleko harremanetan, bere lagunartean, eskolatik kanpoko eginkizunetan euskara erabiliko duenik Eskolarekin batera beste arloetan ere euskara sumatzen ez badu, ikasleak bereganatuko duen euskara hankamotza izango da. Lanerako, atsedendietarako e.a. euskara beharrezko egiten ez bazaio, ikasleak eskolatik ekarriko duen euskarak (oso zuzena eta egokia izanagatik ere) ez zaio bizitza arrunterako baliagarri gertatuko.

Eskolak erakunde bezala bere indarra eta ahalegin guztiak egin beharko ditu gurasoak jokabide egokietara eragiteko eta bultzatzeko: etxe barneko giro egoki batek irakaslearen lanaren emankortasuna asko gehi dezake. Gurasoei, beraz, orientabide zehatzak eman beharko zaizkie etxe-barneko giroa nola euskaldundu dezaketene e.a. adieraziz. (Gurasoek euskararik ez dakitela eta euskal telebistaren emankizunetaz arduratzen ez badira—eta emankizun horiei inolako sarrerarik ematen ez bazaie etxean— aukera egoki bat lapurtzen diote «B» edo «D» eredura bidaltzen duten haurrari. Alderantziz, berak euskararik ez jakin eta etxean euskal telebistari sarrera ematen badiote euskaraz garrantzi handia duela adierazten diote haurrari beren jokabide horren bidez. Berdin euskaraz ari diren irratiakiko jokabidearen bidez ere. Euskara ez da eskolako gauza soil bat. Etxean ere bere unea eta tokia du. Gertakizun honek eragin handia izan dezake haurraren eskolarekiko jarreraren).

Gurasoekiko egin daitekeen lan honetaz aparte herriko erakundeen arloan ere asko egin dezake gaur euskal-eskolak. Udalaren zerbitzuekin harremanetan jarriz euskalduntze bidean ari diren haurrentzako euskarazko emankizunak antola ditzatela e.a. lortuz. Eskolatik at ere euskara sumatuko lukete era horretan hurrek: antzerki-txotxongilo emanaldiak, euskarazko jolasak antolatuz, zinemak euskaraz eratzuz e.a. Era berean igandetako irtenaldiak euskal monitoreen ardurapean eta antzekoak. Guzti hori euskararen presentzia haurren mundura eramateko helburuz.

Eskolak badu, ordea, eskola barrura begiratzuz eta didaktikaren arloan zeregin berezirik eta garrantzizkorik. Haurrak bere eskolaketa neurri handi batetan beretzat bigarren hizkuntza denean egin dezala nahi badugu, zeregin horrek baldintza bereziak eskatzen dizkio irakaslearen egunoroko eginbeharrari:

1. Haur hauek aurrez euskaldundu ez badira, bere inguruak horretarako behar hainbat euskarririk eskeini ez diolako da. Neurri handi batetan haur horien inguruan euskarak ez du inolako indarrik: ez etxean eta ez kalean ere ez dute haur horiek euskararekin inolako harremanik.

Eskolaren bidea bideratuko zaien harremana arlo zehatz batetakoa izango da beti ere: eskolako eginkizunetarako baliagarri izango zaien euskara landuko adute. Arrazoi honetxegatik dio G'otz WIENOLD-ek eskola bidez irakatsiko den hizkuntza beti selektiboa izango dela, hizkuntza ez dela bere osotasunean hartu behar, baizik eta zein eginkizunetarako behar den hizkuntza hori argi utzi behar dela aurrez, eta eginkizun horren arauera irakatsiko den hizkuntzaren «zatia» zehaztu behar dela. Esan nahi da: ez dela berdina haurrak gurasoekiko harremanetarako erabiltzen duen hizkuntza eta, adibidez, eskolan irakaslearekiko harremanetarako beharko duena. Eskolak muga batzuz ezartzen dizkio ikasle-irakasleen arteko hizkuntzari: eskolak funtzio eta eginkizun berezi batzuz dituzenez hizkuntza selektiboago bat eskatzen die irakasleei eta ikasleei. Horretxegatik erabiliko den hizkuntzaren programatu beharra. Eta programaketa horrek gutxienez hiru arlo hauek izango ditu: hiztegia, morfosintaxia eta fonetika.

HIZTEGIA: eskolan landuko diren gaien arauera egin beharko dena. Gai bakoitzaren ezaugera maila desberdinek ezarriko dute arlo honetan muga: gai bakoitza zenbat eta zehaztasun handiagoz landu nahi izan, orduan eta hiztegi aberatsagoa eskatu beharko da.

MORFOSINTAXIA: eskolaren eginkizun nagusienetako haurrari bere ingurua aztertzen eta ezagutu arazten laguntzea bada, inguruaren ezaugerak lehenik hizkuntza deskribatzaile bat eskatzen du: «*nolakoa da inguru hori?*» aztertu beharko baita da lehenik, eta ondoren «*zer gertatzen da inguru horretan?*». Gero etorriko da «*hori zergati eta noiz?*» gertatzen den aztertu beharra. Eginkizun horrek, beraz, hizkuntza espezifiko bat eskatzen dio eskolari; egitura mota batzuz askoz maizago eta

ugariago erabiliko dira: egitura horiei garrantzi handiagoa eskeini beharko zaie. Zehaztasun mailak egitura formalagoen eskakizuna dakar. Berdin abstrazio mailak ere.

FONETIKA: amahizkuntzatik ikasgai den bigarren hizkuntzara dagoen aldiak eta desberdintasunak arlo honen garrantzia handiagotu edo txikiagotu egiten du. Ez da berdina gaztelaniatik euskarara eta inglesera dagoen desberdintasuna. Dena dela, hizkuntza bakoitzak ditu oinarrizko berezkuntza batzuz fonetikaren alorrean. Berezkuntza horiek ardua bereziz landu beharrekoak dira.



Arrazoi guztiogatik irakatsiko den hizkuntzaren programaketa zehatz bat ezinbestekoa da, helburua bera nahiko mugaturik bait dator eskolaren alorretik. Ez da ulertu behar, ordea, harreman arruntak garrantzirik ez duenik programaketa horretan, edo garrantzirik izan behar ez duenik. Irakaskuntza pertsonen arteko harreman bidez gertatzen denez (irakasle-ikasle eta ikasle beraien arteko harremanetan) irakatsiko den hizkuntzak harreman horietarako egokia izan behar du: eskola barruko harremanetarako egokia. Programatzerakoan, beraz, baldintza hori ere kontutan hartu beharko da.

Dena dela, eta bereziki haur txikietara begiratzuz (Eskolaurreko adineko haurretara, alegia), gauza bat eduki behar da argi: haur horiek beren gurasko eta senideekiko harremanetan erabiltzen duten hizkeria eta eskolan irakaslearekikoan erabiliko duten hizkera oso bestelakoak direla. Guraso eta senideekiko harremanetan lotura afektiboa oso handia da ta hizkera berezi bat eskatzen die harremankideei: erabiliko diren egiturak gehienetan oso motzak izan ohi dira, osatugabeko esaldiak, aukeratzen diren hitzek karga afektibo handia daramate, hizkera-doinua oso berezia da e.a. Eskolako harremanak askoz ere espliziteagoak izan ohi dira, eta esplizitotasunak zehaztasun eta formaltasun handiagoa eskatzen dute. Ahaztu behar ez diren ezberdintasunak.

2. **HAUR** txiki batek euskara ikasiko badu, hizkuntz horren funtzionaltasuna sumatu behar du: hizkuntz hori zerbaitetarako beharrezko sumatu behar du. Behar hori sumatuko ez balu, nekez ikasiko luke hizkuntzarik pertsonak (eta haurrak). Zein funtzionaltasun eman diezaioke eskolak bigarren hizkuntza bati? Eta nola?



Arazo hauei erantzuteko beste honi erantzun behar aurrez: zeintzu dira Eskolaurreko haurren beharrak? Neurri bateko erantzuna emango dugu hemen, eskolara begira: **mugikortasuna**: haurrak mugitu beharra sumatze du, eta mugituz trebatuko du bere gorputza eta ezagutuko du bere ingura. Psikomotrizitatearen arloa litzateke. Mugikortasunarekin lotu-loturik *jolasarena* dator: bakarka edo taldean jolastu beharra sumatzen du haurrak: jolasaren bidez emango bait die irtenbidea bere barrupeko bizitapenei (gogora Piaget-en azterlanei). Jolasarekin batera *fantasiatu* beharra: bere mundu berezi eta aparteko bat osatzen du haurrak, hemen ere bere barrupeko bizitapenei (kontrol konszienterik gabeko bizitapenei) irtenbidea emateko. Eta azkenik *gehiago ezagutu* beharra: zer gertatzen da, nola gertatzen da, zergatik gertatzen da, nolakoa da, zergatik da horrelakoa e.a. haurren kezka dira, haurren jakin-mina esango genuke.

Eskolaurrean hizkuntz berri bat hurrei irakatsi nahi dienak, behar horiei irtenbide bat emateko egokia izango zaien hizkera erabiliz bakarrik irakatsi ahal izango die; psikomotrizitate arlo osoa eta jolasa elkarrekin lotuz eta haurren fantasi-joerari eta jakin-minari erantzunaz, beraz. Irakatsi nahi zaien bigarren hizkuntzaren bidez haurren aipatutako beharrei erantzuten bazaie, bigarren hizkuntza hori ikasteko aukerak asko ugaritzen dira. Irakasleak izan beharko du behar horieri erantzuna ematerakoan *bidea gidatu beharko duena*. Bestela hurrek bere aldetik bilatuko bait dute bigarren hizkuntza horretara jo beharrik gabe beren beharrei irtenbide bat emateko era.

Psikomotrizitatea, jolasa, fantasia (ipuinak, giñolak, antzezpenak e.a.) eta inguruaren azterketa hizkuntzaren programaketarekin bateratu beharko da beraz.

3. Funtzionaltasunaren eskabideak ba du beste eskakizun bat ere; hizkuntzaren identifikazioarena, alegia.

Haur txikiak ez ditu hizkuntzak bereizten, bereizirik eskeintzen ez ba zaizkio. Txikitandik pertsona bat be-

rak bi hizkuntza ezberdinetan egingo balio haur bati, haurrak bi hizkuntzen nahasketa batez hitzegingo luke. Horregatik mende honen hasieran GRAMOND ikertzaileak arau ezagun hura azpimarratu zuen: pertsona bat hizkuntza bat.

Arrazoi horretaz gain badago besterik ere jokabide horretarako: haur batek hizkuntza bat ikasiko badu, hizkuntza horren beharra sumatu behar du. Ezin behar hori sumatu irakasleak haurrari honen amahizkuntzan egiten badio. Haurrak, beste edozein pertsonak bezalaxe, «ahalegin txikienaren» jokabideaz baliatzera joko du.

Hontaz gainera haurrak sumatu dezakeena beste hau ere bada: «nik bezala hitzegiten badakinez, zergatik datorkit orain beste hizkuntza ezegun batez?» Giro nahiko artifiziala sortuko litzateke haurraren eta honek jarrera negatiboa har dezake bigarren hizkuntzarekiko. SCHMID-SCHONBEIN-en hitzez adierazteko, normala da haurrak erridikulu egoera bat zapuztea.

Pertsonez gain beste identifikazio bideak ere asmatu beharko lirateke: tokia, pertsonaiak, ipuin bereziak, baliabide didaktiko apartekoak, amahizkuntzan ezagutzen ez dituen jolasak e.a. Hizkuntza bakoitzak esparru berezi bat beharko luke haurraren eguneroko bizitzan. Esparru horrek –persona, gai, toki, jolas, ipuin bereziz osatu eta eratutako esparru horrek hizkuntza berezi baten beharra sortu behar du haurraren. Hau lortzen ez bada, ez du aurrerapen handirik egingo haurrak bigarren hizkuntzaren lorpen-bideetan. Kontutan hartu behar da haurra ez dela gauza konstziente erabaki bat hartzeko. Haurrak era batetara joka dezala nahi bada, horretarako egokiak diren eraginak sumatu beharko ditu.

4. Eta eragin horiek eskolan irakaslearengandik jaso beharko ditu ikasleak, bera izango bait da euskaraz hitzegingo dion bakarrenetako ingunuan. Inguruak berez euskaraz hitzein dezan eragin handirik eskeintzen ez dionez haurrari, eragin horiek irakaslearen gidaritzatik etorri beharko zaizkio. Zentzu honetan ulertua, irakaslearen pedagogiak pedagogia gidatzailea izan beharko du: berak prestatu beharko duelako gelako giroa haurrarentzat erangingarri gerta dadin. Haurraren inguruan berez sortuko den giroak –bere ikaskideek osatutakoa neurri handienez– ez du haurra euskaraz hitzegitera bultzatuko. Irakasleak izan beharko du haurrak euskaraz hitzegitera jarriko dituen eragilea. Inprobisazioz lortuko ez duen eginkizuna. Bere egunoroko lan aurrez zehatz-mehatz prestatu eduki beharko, beraz.

Laburtuz: haurra eta bere ingurua kontutan harturik hizkuntzaren programaketa, funtzionaltasuna, hizkuntzen identifikazioa eta pedagogia gidatzaile bat (gidatzailea delako sormen handikoa ezinbestean) euskararen irakaskuntzan derrigorrezko baldintzak dira erdal giroko haurrak euskaldundu nahi badira.

Lontxo Oiharzabal Rezola

Hezkuntza eta Kultura Sailekoa.

Gasteizen 1983ko Uztailaren 20ean.



«B» EREDUAREN INGURUAN KUXKUXEATZEN

Makina bat esames sortu da ezkeneko bolada honetan «B» eredia dela eta. Batzuk kontran, besteak alde; jakin nahiean gehienak, ulertu ezinean zenbait. Gaitz guztietatik libratuko gaituen pilura mingarria zenbaiten eritzian, euskara hondamendira eramango duen deabrukeria edo eta euskararen irakaskuntzarako urratu behar den bide berri bat...? Hona hemen, ereflexio gisa, gai honi buruz bururatu zaidan histori bukagabea.

Bukagabea diodanean zera esan nahi dut: Nik euskararen irakaskuntzan histori labur bat eta esperientzi mugatu bat dudala, ez dut, beraz, artikulu honetan azterketa exhaustibo bat egin nahi, inolaz ere; ez dut aldi berean pertsonarikez eta daturik aipatuko, zenbait esperientzi kanpoan utziko nituzkeelako.

Beste alde batetik ez dut uste EGIA-ren jabetza bakarra dudarik eta ondoko lerro hauetan, beraz,

nire impresio pertsonal batzuk besterik ez dira azalduko.

Duela hamar bat urtetara atzeratuko gara, «a la recherche du temp perdu», bat edo batek esango lukeena. Instituzionalizazioaren beharrak bultzatzen gintuen. Ikastolak bizi ala hil, euskara bera bizi ala hil. Posizionamendu politikoak, dogmatismoak alde guztietatik kontradikzio eta postura gogorrak.

Gehiengoan gehiago kezkatzen zuen instituzioaren ortodoxiak Pedagogi argumentuak baino.

Euskararen irakaskuntzaren monopolioa ikastolak zuen batibat, aipatzeko baldin bada ere, zenbait herri txikitan irakasle borondatetsu batzuk Eskola Nazionaletan euskaraz aritzen zirela; baina nik horrelako ale batzuk besterik ez nituen topatu.

Eta euskararen irakaskintza hau, zertaz baliatzen zen? O.H.O.ko azken mailatarako gogoan ditut zen-

bait textu, baita irakur gaiak ere, garai textu produkzio handia izan zen, bai kantitatez eta bai kalitatez ere, nire ustetan.

Arazorik ez zen, ordea, nabarmentzen goiko maila hauetan.

Ikastolak hazkunde handia jasan zuten garai haietan, eremu erdaldunduetan hizkuntza arazoak sortzen hasi ziren hazkundearekin batera.

Haur erdaldunen kopurua gehitzen zihoan eta bide berriak urratzen hasi beharra zegoen, euskaldunen hizkuntza garantizatzearen eta erdaldunek tramendu berezi bat izan zezaten.

Zenbait ikastoletan Eskolaurrean haurrak hizkuntzaz bereizten zituzten era zeharo intuitibo batez. Eta hona, berriz, istilua. Diskriminazioa ote? Erdaldunak getoetan sartzen ote?.

Sistematizazio saio batzuk eman baziren ere, ez dut uste hizkuntzaren eduki eta helburu garbirik zeudenik. Bitartean gero eta haur erdaldun gehiago, gero eta kezka eta frustrazio handiago irakasleengan eta gero eta exijentzi handiago gurasoengandik.

Gauzak horrela, aipatu beharrekoa da I.E.P.A.I. taldearen lana. Talde tekniko honek bide berri batzuk proposatu zituealde tekniko honek bide berri batzuk proposatu zituen:

- Hizkuntzaren irakaskintza sistematikoa.
- Eduki mailakatu batzuk.
- Hizkuntzaren didaktika bat sortu beharra.
- Hizkuntzarekiko sailkapen errazional bat.
- Eskola tipologi desberdinak.



Ikastoletako irakasle asko bildu ginen talde honen eskainiko ikastaroetan eta baita aplikatu ere, aplikatzen hasi ginen ideia berri hauek gure zentroetan.

Sistematizazioaren beharrak harrapatu gintuen bete betean, eta harrezkero NOR-NORI-keria guztiak gure hurrei sartzen hasi, saio intentsibo serio eta formalak.

Behingoz, antzerkiak, kankak, jokuak, e.a. hizkuntzaren irakaskintza sistematikoaren zerbitzuan ipini genituen eta zenbait zentroetan programazio oso bat eratu ere, didaktika bitarteko berri eta zaharra erabiliz.

Honela, euskararen plangintza berri bat osatu behar zela, euskararen irakaskintzak ofizialtasun bat hartu zuela eta programa berrituak egin behar zirela eta Eusko Jaurlaritzak dei bat zabaldu zuen haur erdaldunekin, era sistematiko batean, lanean ari ziren ikastoletan eta programazio desberdinen kontrastean sortu zen «B» eta «D» ereduko Hizkuntzaren Programakuntza, «liburu urdin» famatuetan jasota dagoena.

Liburu hauen balioa ez dut defendituko, ezin atakutuko ere, hor daude, aplikatzen ari dira zentro publiko eta pribatuetan. Denborak eta ebaluaketa sistematikoek zuzenduko dituzte beren hutsune guztiak.

Bide berrietan sartuak bait gara, azter ditzagun azkenik egin ditugun saltsak.

Gaiari, nireak ez diren, kontenido emozional guztiak kentzea ez da batere erraza baina norbaite hasi behar dugula eta Ikastoletatik hasiko naiz.

Azkeneko urteotan errezeloz beterik ibili gara «B» eredua dela eta. Haur erdaldunen hizkuntzaren maila eskasaren konszientzia, euskararen ikaskuntza garantizatuko ote duen «B» ereduaren sitemak, irakasle bakardadea lan espezializatu baten aurrean, bitarteko berriak sortzearen premia, irakurketa eta idazketarako hizkuntza maila egoki bat hartzearen beharra, taldeen kopuru handiak lortu nahi diren helburuetarako.

Guzti honetan gurasoen eta zenbait irakasleen deskonfiantzaren sentimendua azpimarratuko nuke. Inertziaren eragina eta gauza berriak saiatzeko beldurra.

Ikastola gehienetan erdaldunen arazoa baldin badute ere oso gutxitan erabaki dute «B» ereduaren aplikapena kontsekuentzi guztiakin. Emaizak hor daude, hartu nahi dituenarentzat. Baina badirudi ez dela beste munduko disparaterik, urte batzutan presatze eta programatze lan handia exijitzen badu ere.

Guzti honi erantsiko nioke Ikastolen arteko koordinazio premia. Programazio, metodo eta bitartekoen kontrastearen beharra, ebaluaketan hedakuntza...

Eskola publikoari buruz ezer gutxi esan dezaket.

Medio hau gehiegirik ezagutzen ez dudalako bat, eta denbora gutxian aritu direlako lan honetan bestea.

Gauza positibo bezala «B» ereduko koordinatzaileen lana azpimarratuko nuke. Era honetako lanen bidez artertuko bait da «B» ereduaren balioa denbora baten barnean.

Azkenik, berriro ere, aipatuko nuke bai Eskola Publikotan bai Ikastoletan lanean ari diren irakasleen bitartekoen eza eta etsipen sensazioa gauza berri baten aurrean. Nire ustez, eta arenga batez bukatu behar badut ere, aurrera egin behar dugula beldurrik gabe, bide berriak urratzen, gauza berriak asmatzen... beti.

Itziar Zubizarreta



IRAKASUNTZ ELEBIDUNAREN HELBURUAK

Irakaskuntza moeta hau gizabako eta gizatalde elebakarrak elebidun bilakatzen saia daiteke, edo baita ere galdua edo hiltorian dagoen nortasun historikoaren jabe diren zenbait herri eta komunitateren hizkuntza berpizten.

Lehenbiziko nahiak bigarren hizkuntza, edo hizkuntza arrotzaren irakaskuntza bultzatuko du, komunikapena erraztea, asmoa delarik.

Horrela, kasu honetan, bigarren hizkuntza baten irakaskuntza arazoak planteiatuko dira, metodoari, motibazioari, pedagogiari eta abarri dagozkienak.

Bigarren pretentsioak, aipaturiko arazoetatik gain, beste batzuk ere planteiatuko ditu: Soziologikoak, politikoak, linguistikoak e.a.

Zenbait herritan, Estatu Batuetan kasu, bi etapa ezberdin bereiz daitezke irakaskuntza elebidunaren aurrean. Lehenengo Mundu Gerrate aurretik atzerritar hizkuntzen erabileraren aurrean jarrera negatibo bat zegoen. Gaztelera-hiztunen bultzadaz, hizkuntza minoritarioak errebindikatzen dira eta 1967an «BILINGUAL EDUCACION ACT» bezala ezagutuko den legea onartzen da, eta elebitasunean irakatsiko duten zentru pilotuak sordaitzeen diru laguntza ematen da.

Europar, minorien kultura eta

hizkuntza errebindekakapen mogimendua hedatzen doa. Pizkunde honetan badira eragina izan duten faktore batzuk:

- Ikuspegi zientifiko batetatik abiatuz sistema linguistiko guztiak berdintasun baten barnean ikusten dituen kontsiderazio linguistikoak.
- Hainbat espezialista, linguistika, soziologo, hezitzaile, sikologo eta antropologok, errealitatearen kontzezioan beraren integrakuntzan eta kulturaren bilakaeran, hizkuntzak duen inplikazioaren azterketan izan duten interesa.
- Kulturaren oinarrizko elementuetariko bat hizkuntza izanik, kultura bakoitza bakarra eta trukaezina delaren kontzientziatze sendoa.

Faktore guzti hauek garbi adierazten dute irakaskuntzak ezin dezakeela gizarte elebidun baten arazo linguistikoak konpon zokoratze edo sustutuzioen bitartez, aitzitik, bere kulturaren eta gizartean pertsonaren integrakuntza posibilitatu behar duela.

Egun, azterketa eremu izugarri zabala da, izan ere, elebitasunak hedatzera jotzen bait du. Azterketa honetan interesatuak gero eta uga-

riagoak dira, eta ez da jada arazoa sikologiko eta sozial ikuspegitik aztertzen soilik, gero eta gehiago interesatzen dute beste aspektu batzuk, linguistikoak, sikologikoak eta pedagogiko-didaktikoak.

Elebitasun moeta ezberdinek, kontsiderazio ezberdinak eskatzen dituztenez, pedagogi aplikapen orduan ere joakaera ezberdinetara garamatzate. Jaiotzatik kultur garaiko bi hizkuntzen artean bizi den gizabanakoaren kasuan esatebaterako, elebitasun jokaera familiaren barne ematen da.

Ezberdina da, sendien artean familia hizkuntza darabilen bitartean, eskolan beste hizkuntza ezberdin batetan diharduenaren kasua. Hauxe da komunitate diglosikoen egoera arrunta. Gehiago ematen da oraindik, urte luzetan elebakarra izan ondoren bigarren hizkuntza batetan murgiltzen denaren kasua.

Bestalde, ez dago irakaskuntza elebidun baten eredu bakarra; politika, sozial, ekonomi eta kultura testuinguru ezberdinek, egoera linguistiko bakoitzari dagozkion metodo eta helburu egokiak topatzen ahaleginduko dira, eskolarizatze, be-reziak eskatuko dituzten egoera linguistiko ezberdinei erantzunez.

F. Etxeberria



HIZKUNTZA ETA ESKOLA

Eskolak ba ote ikusirik haurren hizkuntzaren jabetzeaz?

Bistan denez, haurrak hizkuntza konkretu batetan hitzegiten ikasten du, bere ingurugirokoek mintzabide erabiltzen duten hizkuntza berean.

Gertakizun honek Vygotsky'k diona baieztatzen du alegia:

- Hizkuntza elkarrizketa dela beti, hasera haseratik.
- Hurrek inguruarekiko harremanak hizkuntza bidez aurkitzen dituztela.

Gogoratu besterik ez dugu egin behar haur sortu berriari hizketa bidez zuzentzen zaizkiola bere ingurukoak eta batez ere bere ama; beraz, haurrak ikasten duen hizkuntza eta helduak, berarekin erlazionatzeko, erabiltzen duenaren artean bada lokararik asko.

Alde batetik, inguruak zeinu sistema bat ikastera behartzen du haurra, eta bestetik, hizkuntzaren erabiltzenerako giroaren eratzaila gertatzen zaio inguruak.

Hizkuntzak duen funtziorik nabarmenenetakoa komunikazioa da. Haurrak helduengandik ikasten du komunikatzen, bere bizi giroko egoera desberdinek hortara bultzatzen dutelarik. Haurrak komunikatzen ikasiko du komunikazio nahia sentitu eta inguruan komunikatzeko prest dagoen solaskideren bat duen heinean. Hau da hemen aipatu nahi dena, alegia; haseran haurrak amarekin eta bere ingurukoekin duen afektu lotura komunikazioaren eragile dela eta lotura hau oso ahula balitz ez legokeela haurrak komunikatzen ikasteko behar duen giro egokirik.

Bruner'ek ere komunikapen gaitasunaren garapena aztertzerakoan helduen eta haurren arteko elkareragina azpimarratzen du. Beraz, aipa beharrekoa da familiaren eragina haurren hizkuntzaren garapenean.

Adibidez, haurrak txikitatik bere ama edo ordezkoren baten bitartez jasotzen du elkarrizketaren oinarria, imitazio eta jolasaren bidez sortzen diren harremanetan batak bestea txandatzea eskatzen bait du: amak soinu bat egiten du ahoz, haurrak hori bera gero. Hemen, batak bestearekiko behar duen aditasunaz jabetzen da haurra komunikapen alorreko praktikara hurbilduz.

Hitzez komunikatzen hasten dan garaian ere inguruak indartzen du haurren konportamendua ez onartuaz ala oniritzia emanaz zenbait erantzun eta zeinu bidez (txalo eginez, baieztatzearen buru kinua eginez, hizketa luzatuz, adiskidetasunaren irrifarrrez...).

Beraz, haurrak biziz ikasten du hizketan. Sortu bezain laister ikasten ditu bere ingurugiroko bizi-ohiturak, jan-edanarenak, loarenak garbitasunarenak eta maitasunarenak. Bizi ezperientziaren inguruan oinarritzen bait da hizkuntzaren ikaskuntza. Hizkuntz beraren ikastun izanagatik ere badago alderik asko haur batzuren hizkuntz jabetzatik bestetara eta erabilpen batetik bestera ere. Desberdintasunaren erroa nortasun edo pertsonalitatean aurki badaiteke ere, uka ezinezko eragina du haurra murgildurik bizi den textu-inguru soziokulturalak.

Honetarako nahikoa da ikustea edo ezagutzea Odette Brunet'ek eta Irene Lezinek Frantzia haur hizkuntzari buruz egindako ikerketa saioak, berauen eritziz seasketxean ala familian hazitako haurren arteko hizkuntz diferentziak nabarmenak dira.


Eskolaren eragina

Haurrak, bere lehen hizkuntzaren eskuratzerik haundiena familian egiten du, hiru urtetan eskolan hasi denerako ikasi bait du hizkuntz sistemaren oinarria. Eskolan sartzean ingurune berri batetan aurkitzen da, familiakoak ez diren haur eta irakasleekin. Prozesu soziolinguistiko honetan sartzeak komunikapen eremu zabalago batetara bultzatzen du haurra eta aldi berean bere hizkuntzari buruzko zenbait kontrastaketa eta gonbaraketa egiteko bide da egoera berri hau. Etxeko hizkuntza eta eskolako bat balira ere ohartuko litzateke bere hizkuntza eta bestearen artean dagoen desberdintasunaz, eta zer esanik ez eskolako hizkuntz standartzatu eta berak erabiltzen duenaren arteko diferentziaz. Bide batez, hizkuntzaren zabaltasun edo aberastasunaz eta bere erlatibotasunaz ere jabetzen joango da haurra.

Aldi berean, eskola bidez, jakintzaren eskuratze bide da hizkuntza, beraz uka ezinezko eragina du eskola barrutiko ekintzetan. Maiz gerta izan da hizkuntzaren baitan utzi dela haurrak barneratu behar duen kontzeptualizazio lana, alegia hitzez bakarrik ikasgaiak azalduz edo eta buruz definizioak ikasieraziz.

Jokabide honen ondorioa litzateke, haurrak hizkuntza mailako ezalpena egiten jakitea eta nozioen ezagutzarik ez izatea.

Eman dezagun, haur hati galdetu zaiola: zer da hegazti bat?, eta berak erantzun duela: «Hegan egiten duen lumadun animalia». Honako egoera hau ere aurkezten zaiola: hemen dituzu «tximeleta, euli, uso



eta oilo», hauetatik esan ezazu zeintzuk diren hegazti. Elementu guztiak hegazti direla erantzungo balu, hegalaria izatea bakarrik kontutan hartu duela pentsa daiteke eta ez hitzez egindako definizioaren arabera agertzen diren ezaugarri mugatzaileak.

Alderantzizkoa era gerta daiteke, alagia edukien ezagutza izatea bainan hizkuntza bidez adierazpen kaxkarra egitea, kasu honetan aurkitzen da bigarren hizkuntzan eskolatzen ari den haur asko. Beraz, eskolaren egiteko nagusia haur bakoitzaren hizkuntz garapenaren alde jokatzeko da eta honetarako ikasgelako haurren egoera linguistikoa ezagutzea beharrezkoa zaio.

Hizkuntza eskolan

Errealitatean komunikazio sistema desberdinak erabiltzen badira ere, hizkuntza da, inongo zalantzarik gabe, komunikabiderik erabiliena eta eraginkorrena ere. Esperientzia hutsez ere badakigu eskolako ekintzen euskarri dela hizkuntza eta sarritan irakaskuntz-ikaste prozesuan erabiltzen den bitarteko bakarra. Honela dio Flandera-ek: -irakaskuntza- tradizionaleko irakasleek eskolako denboraren % 70 hizketazko azalpenak egiten igarotzeko joera dutela, beraz, a zer nolako asperraldia entzule izatera behartzen den haurarentzat.

Hemen, aztertu beharko litzateke oinarri pedagogiko desberdinetako eskola modeloen eragina haurraren hizkuntz garapenean eta eskuratze prozesuan.

Zentzu logikoaz badirudi haurraren ekintza bidea duen eskolaren eragina edo eta elkarrizketarik onartzen ez duenarena ez dela berdina izango.

Alor honetan egindako ikerlanen artean, Moncaddak (1972) Estatu Batuetan eta Bastoul-ek (1974) Frantzia egindakoen ondorioak aipa daitezke:

- Haurrak famili giroan askoz gehiago hitzegiten duela eskola giroan baino. Irakasleak gehiegi hitzegiten duela eskolan eta haurrak ez behar adina.
- Eskolaren planteamendu pedagogikoen arabera eskolako hizketa bidezko harremanak asko aldatzen direla.

Bide beretik, Baudelot eta Establet-ek (1971) Frantziako eskolari buruzko analisisian oinarriturik eskola emaitzen porrota eta eskolako ekintzetarako gogo eza, eskolan erabiltzen den hizkuntza desegokiari eta irakasle-ikasle arteko komunikazio arazoei atxikatzen die.


Zentzu berean, Bernsteinek ere «hizkuntza» jartzen du eskolarizazio garapenaren edo porrotaren iturburu. Honen eritziz, eskolak erabiltzen duen hizkuntz koda ez da behe mailako haurren hizkuntzaren parekoa, eta oreka ezak sortzen du porrota. Bere abiapuntuko teoria, gizarte maila bakoitzak bere hizkuntz koda berezia duela bazan ere hainbeste kritika jaso ondoren eta sozializazio tankera desberdinen eraginari buruzko azterketa lanean jarraitu du Bernsteinek.

Nola nahi ere, behe mailako gizarteak haurrari eskaintzen dizkion hizkuntz ereduak eta hizketa tankerak ez dira goi mailako gizarte giroak eskaintzen dizkionak bezelakoak izango, hizkuntzaren erabilpen egoera desberdinen erabera egiten bait da.

Adibidez, haur batek egoera linguistiko desberdinak bizi baditu bere inguruan: irrati, telebista, antzerki, zine, liburuetako hizkuntza eta abar, hasera batean behintzat, eskolako hizkuntz modalitatearekin harremanetan jartzeko gertuago egongo da etxe giroko hizkuntza besterik bizi ez duena baino.

Eskolaren jokabidea, askotan, haurraren hizkuntz egoera alde batera utzi eta bere modalitatea ezartzea izan bada ere, gaur egun irakaskuntzan, komunikapen sistemaren inguruan hizkuntzak duen egitekoaz bada kezkarik asko eta aldi berean hizkuntzak, orokorki, hezkuntza alorean suposatzen duenaz ere bai: alegia, haurrak irakaslearekin eta beste ikaskideekiko dituen harremanetan, ezagutza mailako lorpenetan eta komunikapen gaitasunean... Hala ere, ikaskuntza prozesua baldintzatzen duen barietate bakarra ez da hizkuntza, pixu haundikoa bada ere eta ikaskuntza prozesuari buruzko arbigideak lortuko badira ikerketa bidea urratzen hastea behar beharrezkoa da. Hara bada zenbait galdera:

- Hizkuntza ote eskolatzearen arrakasta ala porrotaren eragile nagusia?
- Bigarren hizkuntza ikaskuntza prozesuaren faktore eragileenak zeintzuk ote?



Hizkuntza eta Euskal Herriko eskola

Euskal-Herrian izan dugun eskolak ez du inoiz haintzakotzat hartu gure herriaren izate kulturalik ez eta hizkuntzarenik ere.

Bastertze edo zapalkuntza honen arrazioak pedagogikoak baino gehiago historiko-politikoak dira.

Herri eta kulturen arteko ezberdintasunak hankaz gora bota dituen eskola izan du Euskal-Herriak. Kulturaren faktorerik integratzaileena eta aldi berean herriaren bereizgarri edo identifikazio ezaugarri nabarmenena hizkuntza bada era, gure kasuan euskara, eskolaren planteamenduan lekurik izan ez duen elemendua izan da urte askoren zehar. Eskolak euskara bazterrean utzi du egoera sozio-politiko jakin baten erabakiz eta ez euskaldunen nahiaz. Eskolak, euskal gizartearekiko bete beharrak ditu eta ez betetzeak, herri baten hezkuntz proiektua egitura politikoen menpe dagoela adierazi du behin eta berri.

Bestalde, egoera berberak eraginik, euskarak ez du gaztelera edo Frantsesaren statusik izan, ez eta kultur eremuko hizkuntzaren tratamendurik jaso. Ofizialtasunik gabeko hizkuntza izan bait da beti.

Beraz, komunitate berean bi hizkuntza edo gehiago, egoera horretan elkar bizitea zaila gertatzen da beti. Eta egunetik egunera euskal hiztunen egoera minoritariogo bihurtu da. Nahiz eta gaur egun, 1981eko zentsuaren arabera, Euskal komunitate autonomoan, ia 700.000raino iritsi euskal hiztunen kopurua.



Ikastola

Azken hogeitortetan sortu da Euskal-herrian bere identifikatze kulturalaren aldeko zenbait mugimendu eta horietariko bat ikastolarena dugu.

Ikastola euskarari bizirik eusteko kezka kezka sortu zen. Bertan eskolatuko ziren haurrak euskal hiztunak zirenez irakaskuntza elebakarrean, euskaraz, egiteko sortu zen.

Ikastolako haur kopurua urtez urte ugaltu da eta ez ingurune euskaldun batetan, baizik eta eskualde zeharo erdaldunetan ere. Fenomeno hau ikastolaren hasierako planteamenduaren eragozpen bihurtu da ikastola askotan, euskara behar bezala eskuratu ez duen haurrak traba askorekin aurkitzen bait da euskara hutsean egindako irakaskuntzaren aurrean.

Horrela, euskaraz irakasteak daraman arazoaz gain honako beste problema honekin aurkitu da ikastola.

Beraz, bi egiteko desberdinen aurrean aurkitzen da ikastola, baina bere egitura eta planteamenduak haserako helburuari zuzentzen zaizkio eta ez bereganatu duen arazo berriari, euskararik ez dakiten haurren euskalduntzeari alegia.


Baita ere azpimarratu beharrezkoa da, euskal girorik gabeko ingurunean ikastolak izan dezaken eragina eskasa dela eta haurrak ez duela euskararen beharrik sentituko, beraz bigarren hizkuntzaren ikaskuntza prozesurako behar diren faktore eragileen topaketa ere zaila gertatuko da ingurunearen laguntzarik gabean. Askotan uste izan dena baina uxatu beharreko pentsamendua, zera da: «eskola haurrak euskalduntzeko gai dela». Hau uste izatea amets hutsa da eta eskolaren gain euskalduntzea uztea euskararen bukaerara jotzea litzateke. Eskolak bakarrik ez dezake euskara erabiltzeko premiarik sor eta erabilpenik gabeko hizkuntzak epe motzeko bizia luke.

Ikastolak egin kontutan hartzekoa da, 1979.an alebitasun dekretua argitaratu arte, bera bakarria izan da bere hezkuntz projektuan euskararen berreskuratzea helburutzat jarri duena. Hala ere, aipa beharrezkoa da egin den esperientziaren ebaluaketa zehatzik ez dela egin ez eta ikerketa eremuko aztertze lanik.

Beraz, esperientziak kontrolatu eta emaitzak ebaluatzeko gai den planifikazioaren beharra somatzen da Euskal-Herriak behar duen eskolaren bidea urratuko bada.

Gaur egungo eskolaren jarrera

Euskararen irakaskuntzaren balorazioa eta ebaluazioa egitea gauza konplexua eta bestetik azkarregi bada ere, eskolaren aldetik nolabaiteko aldaketaren bat somatzen da euskararen arloan, askotan hizkuntz toleratu baten planteamenduak egiten badira ere.



Euskarak, bestelde, lortu berria du bere konstituzionaltasun baldintza: explizituki errekonzitua izan bait da., «lengua oficial de la comunidad vasca», espainako konstituzioan eta komunitateari dagokion autonomi estatuan.

Aldi berean, Lurralde Autonomoko Hezkuntza sailaren egitekoa da, Administraritzaren Publikoarena beraz, Hezkuntza Sistemaren bidez eskolaren hedadura egoki bat lortzea euskararen eta Euskal Kulturaren berreskurapenerako.

Gaur egun, eskolak berreskalduntze eremuan duen egitekorik funtsezkoenetakoa euskararen irakaskuntza da. Honen inguruan aztertu beharreko faktore asko bada ere, psikopedagogi alorrean hizkuntzen ikaste prozesuak ezagutu eta aztertu beharrekoak dira.


Hizkuntzen ikasteari buruz bi ikaste prozesu berezi behar dira, bata H_1 , lehen hizkuntzari buruzkoa eta bestea H_2 , bigarrenari buruzkoa. H_1 , lehen ikastea behar naturala da, inongo bortzarik gabe ikasten da. Bigarrena, berriz ez. H_1 , inguruarekiko harremanetarako beharrezkoa da, nork bere beharrak azaltzeko eta komunikatzeko beharrezko tresna da, nahiz eta hizkuntz komunikapena baino lehen beste zeinuen bidez ere komunikatu.

H_2 , bigarren hizkuntza berriz ez da H_1 , bezain beharrezkoa lehen hizkuntza eskuraturik bada, eta ez da inolako larririk sentitzen bigarren hizkuntza ikasteko. Beraz, bigarren hizkuntzak nahizko motibazioak ditu baina ez haurrenak, euskararen kasuan, baizik eta gurasoenak. Euskaldun haurrentzat gaztelaria edo frantsesa ikastea beharrezkoa gertatu bada ere ingurugiroaren indarrez ez da berdin gertatu euskaldun ez direnentzat, agian erdaldunak bizi daitezke euskararik gabean ere.

Dena dela, bigarren hizkuntza ikaste prozesuak ezaugarri bereziak ditu, eta zailtasunak ere bai.

Bigarren hizkuntza ez da lehena bezala ikasten, hau bizitzaren esperientzian oinarritzen denez inguruko errealitatea da bere erreferentzia: garbitasuna, jolasa, janaria... eta bigarrenaren erreferentzia errealitatea baino gehiago lehen hizkuntzaren bidez egindako ezagupen eta kontzeptuak dira, nahiz eta errealitatearekin harremanetan jartzea ere lortu.

Ikaslearentzat beharrezkoa da ikasten duen hizkuntza erabiltzea, aldiz ikaskuntzaren helburua komunikazio gaitasuna da. Beraz, euskararen irakaskuntzak ez ditu gaztelania edo beste hizkuntz arrotz baten pareko arazo didaktikoak bakarrik planteatzen, baizik eta berreskalduntzearen helburuak, motibazioak eta bitartekoak euskal kulturaren ingurunean txertatzea eta bertan erroturiko irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren hedadura bideratzea.



HELDUEN ALFABETATZE – BERREUSKALDUNTZEA – H.A.B.E.

Euskal Herriaren berreuskalduntze-arazoa aztertzeari ekiten diogun bakoitzean, zenbait giza-ekintza bururatzen zaizkigu berehala, irakaskuntza, komunikabideak, administrazioa... Gaiari sakonagotik heltzen badiogu eta lehentasunak zehazteari ekin, eztabaida gogorren artean aukerak egiten hasi beharreko egoeran aurkituko dugu geure burua.

Zurrumbilo guzti horren barruan, helduen euskalduntze-alfabetatze-lanak eginkizun berezi eta apartekotzat har genezake. Eginkizun eztabaidatua, bestalde. Gure gauregungo gizarte moderno karratu honi eginkizun guzti-guztiak bere lauki mugiezinen ezaugarriak oso aldagarriak bait dira.

1. Helburuak

HABEk dituek helburuak bere izenak berak biltzen ditu: Helduen Alfabetatze-Berreuskalduntzea. Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Diputazioak eskuratzen dizkioten baliabideen arabera, Lurralde Auntonoman bizi diran pertsona helduei euskalduntzeko eta alfabetatzeko aukera eskaini nahi die HABEK.

2. Plangintza

HABEren diru-iturriak batez ere Eusko Jaurlaritza eta Foru-Diputazioen aurrekontuak dira. HABE beraz

ekintza instituzionala da eta zentzu honetan HABEren bidez garatzen da Eusko Jaurlaritza eta Foru-Diputazioek euskararen berpizterako duten plangintzaren adar bat. Horregatik HABE, erakunde bezala osatua eta bateratua sentitzen da erakundeen bidez euskara aurrera ateratzeko egiten ari den langintzarekin: Hezkuntza Sailburuordetzak aurrera daramatzanak (EIKE, IRALE, bekak...); Euskal Telebistarekin, Euskadi Irratiarekin, Oñatiko Administrazio Eskolarekin, Foru-Diputazio eta udalek aurrera daramatzen ekintzekin (kanpainak, subentzioak...).

Era berean, HABEk beharrezko ikusten du euskalgintzan ari diren beste erakunde eta elkarteekin plangintza zabala eta eraginkorra burutzea euskararen erabilera zabaltzeko.

3. Bitartekoak

HABEk bere sorreratik bertatik bideok zabaldu ditu euskalduntze-alfabatatze-lanak bultzatu eta sendotzeko.

3.1. Talde Teknikoaren egitekoak

- Programazioak
- Materialak
 - Aldizkariak
 - HABE (hamabostekaria)
 - HABEKO MIK (bihilabetekaria)
 - ZUTABE (lauhilabetekaria)
 - Ikusentzunezko programak
 - Bideo-programak
 - Audio-programak
 - Joko didaktikoak
- Laguntza teknikoa
 - Liburutegi espezializatu publikoa
 - Asesoramendu-lana.

3.2. Euskaltegi publikoak.

- *Pilotoak*
 - Bilbo
 - Donostia
 - Gasteiz
 - Hondarribia (barnetegia)
- *Udal-euskaltegiak*
 - Bizkaia
 - Barakaldo
 - Ermua
 - Leioa
 - Santurtzi
 - Zornotza

Gipuzkoa

- Arrasate
- Bergara
- Irun
- Legazpi
- Tolosa
- Urretxu
- Zarautz

3.3. Subentzioak

HABEren bidez Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Diputazioek subentzio-politika bat daramate Lurralde Autonomoan euskalduntze-alfabetatze-lanetan ari diren erakundeak bultzatzeko eta sendotzeko. 1982-83 ikasturtean 256 milioi banatu ziren hiru Lurralde Historikoetan.

4. Ikaslegoa

4.1. Ikasle heldua

Ikaslegoa 18 urtetik 50ra bitartekoa da eta bere % 64a 18tik 30 urtera bitartekoa, pertsona larria, heldua beraz.

Ezaugarri honek erabat baldintzatzen du eta mugatzen ditu martxan jarri beharreko programak. Programa horien jasotzaileak adin jakin bat dute, kultur maila bat, adimena modu eta era batera garatua, edozein erabaki hartzeko gai dira, beren buruaren jabe dira, askatasun pertsonala eta ekonomikoa lortu dute, oro har. Beraz, unearen menpekotasuna adimen-maila ez-garatu urruti geratu dira. Era berean, ikasle heldu honek ez du ikastea bera haurraren mondan ulertzen (haurraren betiko kuriositatea), ezta ere gaztearen erromantizismoaren ikuspegitik.

Halaber, ikasle heldua denez, ikasle-irakaslearen arteko harreman-moduak ahalik eta horizontalenak izan behar dute.

4.2. Ikasle motibatua

Pertsona heldu honek bizitzako une jakin batean mila gogoeta egin ondoren aukera gogor bat egin du: euskaraz alfabetatu behar dut edota euskara ikasi behar dut. Mila arrazoi izango zituen buruan «euskara da nire aberriaren hizkuntza», «euskara ikasten ez badut ez dut lanik aurkituko», «inguruko jende asko ari da eta ni ezin naiteke atzean gelditu».

Ikaslea motibaturik etortzeak irakaskuntzaren ikuspegitik oso aberatsa gerta daitekeen ikasprozedura bultzatzeko gaitzake. Ikaslearen aurretiazko jarreraren bidez eragin ikaragarria izan dezake helburuetara errazago eta arinago heltzeko irakasleak motibazio horretaz behar bezala baliatzen badaki.



4.3. Ikasle borondatezkoa

Alfabetatzera edo euskalduntzera datorren ikaslea bere borondatez dator, gaurregun euskaraz alfabetatzea edo euskalduntzea ez da derrigorrezkoa, ez da inor behartzen; datorrena bere kabuz dator; badauki zertara datorren eta zer nahi duen.

4.4. Ikasle lanpetua

Gizarte moderno bateko pertsona helduak lanean aritzen dira sekotore batean edo bestean. Euskal Herrian ere bai. Euskaraz alfabetatzea edota euskara ikastea eskola-garaian erdietsi ez denez, pertsona heldua gizartean kokatua dagoenean bere lanarekin, familiarekin, eginbehar guzti horiei beste bat gehitzen die: euskara ikastearena. Eginkizun guzti horien artean gatazkaren bat sortzen bada, normalean, hauxe izango da ahulena eta bertatik hautsiz irtengo da aurrera, ikasprozesuaren kaltetan, noski.

Hala eta guztiz ere, jasaten duguneko ekonomi krisi zorigaitzokoa, ikuspegi honetatik begira, euskararen onerako etorri da, langabezia dauden pertsona batzu euskara ikasteko aprobetxatu bait dute duteneko abagadunea.

4.5. Euskara ikastera datorren ikaslea

Eztabaida ugari izan da azken urteotan, zein zen langintza honen eremua zehazteko garaian. Badirudi ikasleagoak berak eraman duela azken batean eztabaida puntu batera: euskara ikastera eta euskaraz alfabetatzera datoz ikasleak. Eginkizun horiek dituen kultur ñabarduretara heltzea ere nekeza gertatzen delarik askotan.

4.6. Erdal giroan bizi den ikaslea

Oro har euskara ikasten ari den ikaslea erdal giroan bizi da: familia, adiskideak, lankideak... Hauxe da duen dramarik handienetakoa: ikasitakoa non erabili ez jakin.

Azkenaldi honetan dexente aldatu izan da giroaren egoera Euskal Telebista eta Euskadi Irratiaren eraginari esker, baina oraindik gizarte honek gaztelaniaz funtzionatzen du, mekanismo gehienak gaztelaraz ari dira eta egoera hau etsigarria da ikaslearentzat. Euskaltegiko giroa artifiziala da ezinbestean eta ez du aurkitzen egiazko gizarte euskaldunarekin topo egiteko aukerarik.

Gainera, sarritan, gizarte horrekin harremanetan jartzeko egin izan dituen ahaleginetan ez da ondoegi onartua izan, zorionak eman dizkiote esfortzuagatik, baina ezpainetan irrifar paternalista antzeman izan du. Bat edo batek «hemendik urte batzutura bai» esan izan dio eta beste zenbaitetan euskara batuari buruzko sermoi ulertezinak jasan behar izan ditu.

4.7. Ikasle helduak adimen garatua eta analitikoa du

Adimena adinean aurreratu ahala aldatu egiten

da: ahalmen batzu itzaten doazen heinean, beste batzu indartu edo berpiztu egiten dira.

Helduen adimena aztertzailea da, analitikoa. Ezaugarri hau ezin daiteke inolaz ere ahaztu bigarren hizkuntzaren irakastea programatzerakoan. Ikasle helduak egin beharreko bidez eta eragozpezez jakitun izan nahi du, ikasprozesuan partaide aktibo izateko asmoz. Hasieratik bertatik ikusi nahi du nondik nora doan, zein helburu lortu behar diren, zenbat denbora beharko duen eta zenbat ahalegin egin beharko duen horra heltzeko.

Era berean, jakin nahiko du zergatik erabiltzen den metodo jakin bat eta ez beste, zertarako egiten diren ariketak, jokoak, beharrezkoa diren... Nekez onartuko du besterik gabe irakaslearen esanak eta aginduak zergatiak argi eta garbi azaltzen ez bazaizkio.

4.8. Populazio helduaren gutxiengoa da

Euskal Herriak bere historian zehar ez du inoiz ezagutu bere hizkuntza berreskuratzeko halako grina eta gogoia; beti izan dira euskara ikertzen, ikasten aritu izan direnak, baina pertsona bakanak. Gaurregun fenomeno hauxe dexente hedatu da eta ez da intelektual edo kulturgintzan ari direnen mailara mugatzen orain urte gutxira arte bezala, aitzitik-maila guztietara heltzen da. Hala eta guztiz ere, ezin daiteke perspektiba galdu, zenbaitetan bait badirudi Euskal Herriko biztanleria osoa ari dela euskara ikasten. Oraindik orain gutxiengo bat ari da eta horren mugen jakitun izan beharrean gara.

4.9. Euskalduntzera edo alfabetatzera datorren ikasle helduak euskararen alde egin izan ditu aurretik aukera gehiago

Euskaltegiko ikasaioei ekin aurretik pertsona heldu bakoitzak aukera egitera heldu aurretiko beste zenbait aukera txiki egin izan ditu: haurrak ikastolara bidali, euskararen aldeko ekintzetan parte hartu, antolatzaile edo laguntzaile izan, euskararen aldeko ekintzetarako dirua eman... Azken finean, ikasprozesu batean murgildu beharraren premia nagusitu egin zaio eta urrats garrantzitsu hori eman du.

4.10. Oro har, alderdi abertzaleei botoa ematen dien ikaslea da

Euskara ikasten eta alfabetatzen ari den jendeak abertzaletasunaren aldeko aukera egin du ia aurretik edota euskaltegian hasieratik bertatik egiten du. Euskara-abertzaletasuna binomioa oso loturik doa ikasprozesu hauetan ari den ikasleagoaren artean.



5. Irakaslegoa

5.1. Irakaslego profesionala

Euskalduntze-alfabetatze-ekintzen porrotaldi asko eta askoren sakoneko arrazoia irakaslegoaren prestaketa ezean datza. Egin diren planteamendu zenbaiten oinarria zera zen: «hainbeste ikasle matrikulatu zaizkigu ea nondik ateratzen ditugun irakasleak». HABEK hasieratik bertatik gainditu nahi izan du egoera hau eta irakaslego profesional espezializatua edota esperientzia haundiduna kontratatzerako du, irakasle-talde profesionala eguneko zortzi ordutan eginkizun hauetara jarriaz.

Eusko Jaurlaritzako funtzionari-jendeak duen lan-egoera xeblean barneko kontratazio-mota bada ere irakasle hauena plantila tinko eta egonkorra sortu nahi izan da.

Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzak, beste edozein irakaskuntza motak ez bezala, irakaslea ia-ia ezinbestekoa du. Gehiegi exajeratu gabe esan daiteke nekez ikas daitekeela hizkuntza bat irakaslerik gabe. Horregatik, irakaslearen eginkizunaren garrantzia oso goi mailakoa da.

Gainera, askotan gertatzen da saio hauetan irakaslea bera, adinez, kultur mailan, prestaketa akademiakoaren arabera, gizartean duen posizio sozial eta ekonomikoaren arabera irakaslea bera baino askozaz goragotik dagoela; egoera honek ikasgelako saioetan beharrezko oreka hautsi dezake.

Halaber, bada ordua, euskara «dakien» edozein pertsona euskarazko eskola emateko gai delaren usua apurtzeko. On handia egingo genieke halako irakaslearekin jartzen diren ikasleei lehenbizi eta euskarari berari bigarrenik.

GAL inkestak dionez.¹

5.2. Irakasle militantea

Irakaslea egiteko hauetan ez da «zerbait erakusten duena» bakarrik. Bere irakaskuntzaren objektua hiltzear dagoen bere herriaren hizkuntza da. Irakatsi behar duenaren egoerak eta bere inguruan dauden berreskuratze-prozesu ezberdinen ezagutzak erabat baldintzatuko du bere lan-egoera.

Ikasle-jendearen jarreratik bertatik hasita, irakasleak euskararen militante izan beharra dauka. Militantismo hori irakasleari berari badario, irakasprozesuan lagungarri eta bultzagarri gertatuko da, beste elemendu guztiekin bat eginik.

5.3. Talde-lanerako gai den irakaslea

Gaurregun hizkuntzen irakaskuntzak dituen abiapuntu metodologikoak kontuan harturik, euskara irakasten duen irakasleak talde-lanerako gai izan behar du, joera pertsonalista guztiak baztertuz.

Talde lanerako gai bi ikuspuntuetatik begira: 1) irakasleen arteko lanak beharrezko banaketa, koordinazioa eta elkarren arteko ebaluazioa izan dezan

ikasprozesuaren laguntzarako eta 2) ikasle helduen artean lan egin behar duenez, ikastalde horietan integratzeko gauza izan dadin, irakasleen prozesu pertsonalak barrutik jarraituz, taldekide izatera hel dadin.


5.4. Nortasun irekizko irakaslea

Gaurregun metodologia motek nortasun irekizko irakaslea eskatzen dute ezinbestean.

Ikastorduetarik gehienak ariketa globalak egitera ematen dira: antzezpena, jokoak... irakaslea hitzegiten jartzeko helburuarekin. Zeregin hauek nortasun irekia eskatzen diote irakasleari. Hizkuntz irakaslea ez bait da dakiena azaltzen den irakaslea, baizik eta azaltze hori amaitu ondoren burutu behar du bere egitekoaren zatirik garrantzitsuena: irakasleak euskaraz hitzegiteko trantzean jarri eta hitzegin erazi, hizkuntz automatismo jakin batzu lortzera iritsi arte.

5.5. Hizkuntzalaritzan eta Pedagogian jantzitako irakaslea

Bai hizkuntzalaritza, bai pedagogi mailan irakasleak bere burua behar bezala jantzita izan behar du. Hizkuntzalaritza mailan ZER irakasten duen argi eta garbi izan dezan eta pedagogi mailan NOLA irakatsi jakin dezan.



6. Irakaskuntza

6.1. Irakaskuntza ez-formala

Euskalduntze-alfabetatze-lanetako irakaskuntza mota helduentzako eta borondatezkoa izateak muga nagusia ezartzen dio edozein plangintzari: inork ez daki, gutxigorabehera ere ez, ikasturtearen hasieran zenbat ikasle matrikulatuko diren herri bakoitzean eta gutxiago zein helburu izango dituzten eta zein mailetan dauden. Begi bistakoa denez, plangintzarako elementu garrantzitsuena eskutan ez izateak zuhurtzia handiz jokatzea bultzatzen du eta askotan aurrera ezin egoeretara eramaten.

Hezkuntza formaleko edozein ikastetxek ondotox daki, jakin, non dagoen bere ikaslego potentziala eta zein ezaugarri dituen, zein urtetan izango duen gorabeherakadaren bat eta gutxienez ezpe ertainera zein aldakin hartu behar dituen aintzakotzat. Egun helduen euskalduntze-alfabetatze-lanek irakaskuntza ez-formalean kokatzen dira honek dakartzan abantaila eta eragozpen guztiekin.

6.2. Irakaskuntza zientifikoa eta herrikoia

Euskararen berreskuratze-prozesuan bi ideia-ardatzen arteko oreka lortzea ezinbestekoa da: bate-tik zientziaren ardatza eta bestetik herrikoitasunaren ardatza. Bi ardatzok a priori ez daude elkarren kontra, gakoa, ordean, elkarren osagarri izatean datza.

Euskararen inguruan martxan dauden programak serioak, neurtuak, beste hizkuntzekiko homologatuak behar dute izan, baina baita ere motibatuak, herriko-iak. Arazoa ez da zerbait behar bezala ikastea, zientziaren ikuspegitik soilik; ezta ere, ordea, boron-daterik onenarekin ahal dena egitea.

Zientifikotasunak programa ongi landuak, programa horien araberrako material didaktiko frogatua eta baliagarria, irakaslego ongi prestatua, ebaluzio-era neurgarriak, ikusentzunekeo programa osagarriak... ekarpen hauek egin beharko ditu.

Herrikoitasunak, bere aldetik, herri bat eraikitzearen ikuspegitiko ekarpena: herri horretako muina den hizkuntza ikastearen jarrera eta motibazioa, prozesu historiko batean parte hartzearen ekarpena, beste herritar heldu batzuekin langintza berebetean aberkide gisa parte hartzearen sentimendua...

6.3. Helburu zehatz batzuekiko irakaskuntza

Azken finean egiteko guzti honen azpikaldean bi programa ezberdin ditugu:

- euskalduntzea
- alfabetatzea


Irakaskuntza mota honen helburuak, beraz, bi prozesu horien helburuak lortzera jo beharko dute, hau da, pertsona helduak euskalduntzera eta alfabetatzera. Arazoa, ondorioz, ez da zenbat jende ari den euskara ikasten eta alfabetatzen baizik eta, zenbat jendek ikasten duen euskara. Helburu horien artean nagusiena, lehenetsun handien duena, ezberrik gabe, hizkuntz edukin eta trebetasunei loturik doana da.

7. Metodologia

Geroz eta argiago daude finkatuta Euskal Herrian bertan bigarren hizkuntzen irakaskuntza mailan erabiltzen diren metodologia moduak: gramatika-itzulpenekoak, ikus-entzunezkoak, audiolingualak, kognoszitiboak, nozio-funtzioen araberrakoa... Gaurregun azken hau, nozio-funtzioena edota «komunikazio hurbilbidea» izenarekin ere ezagutzen dena dugu modaren goialdean.

Metodo-mota guzti horiek egin diote bere ekarria metodologigintzari eta ekarpen horiek ez dago ahazterik. Nire eritzirako gaurregun ez dago itsu-itsuan metodologi bide horietatik bat aukeratu eta beste guztiak alde batera utziaz ildo horri bakarrik jarraitzerik.

Irakasleak kontuan izan behar du metodologi bide horien sustatze-lanetan zenbat eta zenbat interes



ekonomiko dauden eta berak bere irakasle-senarekin eta bere zentzu komunarekin 'doi-doi' aztertzen esaten dioten honetatik zenbat ote den benetazkoa. Adibide gisa nahikoa litzateke aztertzea zer gertatzen ari den mundu mailan «Follow me» metodoarekin.

Nik neuk aukera bat egitekotan metodologia ek-leptikoaren alde agertuko nintzateke, hau da.

- a) *Edozein metodologiak aplikatu beharreko ikasle-entzunekeo araberrakoa izan behar du.*

Metodologo bati zein metodologia mota hartuko zenuke? –galdetzen diotenean zein ikasle mota duzu?– galdetu beharko luke jarraian.

Metodologiak ikasle horien izate-modua eta hartu nahi dituzten helburuak aintzakotzat hartu behar ditu.

- b) *Eskola metodologiko bakoitzaren ekarpenak erabili, positiboak gertatzen diren heinean eta neurri horretan bakarrik.*

- gramatikaren irakasle deduktiboa eta induktiboa
- itzulpenak
- hiztegiaren irakastea
- drills edo ariketa analitikoak
- antzezpenak
- jokoak
- ekitaldi ludikoak
- ...

- c) *Ahalik eta medio tekniko gehienak erabili egintza didaktikoan*

- telebista
- bideoa
- diapositibak
- fonelograma
- diaporamak
- harbela
- audio-zintak eta kasetea
- atzeraprojektorea
- aldizkariak
- ...

- d) *Ikasleentzako beharren arabera erabili medio horiek eta denak programazio zabal batean bildu, bai epe luzera, epe ertainera eta epe motzera.*

- e) *Egintza didaktikoa unean uneko ebaluazioen arabera, berrantolatuta eta birprogramatuta.*



«B» EREDUKO KOORDINATZAILEEKIN SOLASEAN

Elebitasuna eta haur erdeldunen euskalduntzea. Urtetan 'nazional' deituak izan diren zentruen euskalduntzea. Eta asteen bi bider, Gipuzkoan zehar, ikastetxez ikastetxe dabiltzanak. Egoeraren baldintzak aztertuz, gelaren itxura gomendatuz, plangintza banatu eta adieraziz, kezka jasoz, astearen gainontzeko hiru egunetan landutakoa irakasle arrunt, eta sarri, bakartiaren eskuetan jarriaz. Eta aurrerapenak ebaluatu, egunerokotasunean okerrak zuzenduz, sekula ez bezala, lana razionalizatu eta sistematizatuaz.

Bazuten zer esana eta kontaktuan jarri ginen. Ezin ziguten eskatzen genien lana egin. Ez dugu astirik... egunerako bukatu behar ditugu plangintza guztiak... zeu azalduko bazina... Eta elkartu gara mahai baten inguruan. Eta ordubete luzez ihardun dugu solasean egiten dutenaren berri izan dezazuen.

Koordinatzaileak. Gure lana lehenetik dator, prozesu baten barnean dator. Haseran, kezka eta mugimendu bat eman zen. Gurasoi eta irakasle talde batek ikusi zuen bazela garaia zentru publikoetan euskalduntze prozesuan hasteko. Horrela, eskola konkretu batzuetan sartu ginen batzuk. Bost zentru ziren, eta esperimentalki, presio baten eraginez, delegazioak onartu egin zuen. Haserako lana girotze bat izan zen, abestien bidez, jolasen bidez... e.a.

ISILIK.— Zerk ekarri zintuzten egungo koordinaketa era honetara? Ze erabaki egon zen hor? Nor erabaki zuen hori?

KOOR.— E.jaurlaritza izan zen. Gu aukeratuak izan aurretik, «B» eredu hortxe martxan zebilen... guri deitu ziguten eta esandako baldintzak onartu egin genituen.

1981eko martxoan hasi ginen eta haserako lana euskara planifikatzen hastea izan zen. Bost ginen eta probintzia bostan artean banatu genuen. Koordinaketa lana zehaztasun eta seriotasunez 3 urtekoen gelatik hasi genuen. Gero, urtero urtero gehituz.

ISILIK.— Une honetan zein da zuen funtzionatzeko era, antolaketak?

KOOR.— Hasera bateko lana bailarak taldekoen artean bamatzea izan zen. Guretariko bakoitza bailara bat edo bitaz arduratu zen, bailara hortako «B» eredu irakasleekin bileretan hasiaz. Geroztik, euskara maila planifikatu egiten dugu. Astearen bi egunetan bilerak egiten ditugu bailarako irakasleekin. Gaur egun sei koordinatzaile gara eta eskolaurreko hiru urteak eta hasera zikloko lehendabiziko urtea koordinatzen ditugu. Iaz eskolaurrea bakarrik izan zen baina aurreko lehengo maila ere koordinatzen hasi gara.

ISILIK.— Beno, bakoitzak bera, bailara bat edo bi ditu, baina nola funtzionatzen du, zer nolako dinamika darama koordinatzen duen bailara horretan?

KOOR.— Hirurogeiren bat gela koordinatu behar du bakoitzak. Gela guzti hoiek lau taldean banatzen dira: hiru, lau, bost urtekoena eta hasera zikloko lehengo maila. Talde bakoitzean zortzi bat irakasle egon daiteke. Astearen bi egun ditugu bileretarako, astearteak eta ostegunak, hauetariko bakoitzean talde ezberdin bat hartzen dugularik. Kontuan hartzekoa da «B» ereduan irakasleak trukea egiten dutenez, ez dagoela gelak beste irakasle koordinatu beharrik, zerbait jaisten dela irakasle kopurua gela kopuruarekin konparatuz.

ISILIK.— Zein da zuen zeregina horietariko edozein bileretan zaudetarik?

KOOR.— Hasteko kontaktu bat, ikusi zein egoeratan dauden, haur kopurua, lan baldintzak, tokia, haur moeta, ingurua, e.a. Bigarren urrats batetan, hemen, gure artean, egin dugun plangintza ematen zaie (Gipuzkoa osorako plangintza bat egiten dugu), eta gure (anen arteko bat plangintza hori zehaztea eta adieraztea da, nola aurkeztu eta azaldu behar den material hori, nolako prestaketa eskatzen duen, ze pauso

eman behar den, saio «estentsibo»-«intentsibo» etan zer eta nola egin behar den asko azpimarratzen dugularik...

ISILIK.- Zer sartuko zenutekete plangintza horren barnean?

KOOR.- Metodologia, bitartekoak (guk eginak batzuk, lehendik eginak beste batzuk eta E. jaurlaritzako Hezkuntza sailak argitaratutako programak eskainiak beste batzuk), ebaluaketa sistema, e.a.

Bestalde, orain arte ikusi dugu beraien artean koordinaketa eta ekipo lan bat ez dela egon eta guzti hori martxan jartzea eta dinamizatzeak denbora eramaten eta eramango digu. Euskara departamentuaren ideia ere hor dago esate baterako.

ISILIK.- Plangintza horren barnean ba al duzue egiten den lanaren ebaluaketaren bat?

KOOR.- Eskola guztietan «etengabeko ebaluaketa» deritzana egiten da. Hortik aparte egin da bailara batetan beste ebaluaketa bat, egitura, helburu eta balorazio berdindurekin. Gero, Gobernuaren aldetik izan zen ihaz beste bat ekaina aldeira, baina ez ditugu oraindik emaitzak. Uste dugu urtero egitekotan direla.

Aipatu dugun «etengabeko ebaluaketa» hori, asko kotatzen zaie irakasleei aurrera eramatea. Hau prozesu bat bezala ikusi behar da, hor dago, guk eskaintzen diegu, et aurak ahal duten neurrian erabiltzen ahaleginak egiten dituztela uste dugu.

ISILIK.- Zer moduzko erantzuna jasotzen duzue irakasle arrunten aldetik?



KOOR.- Oso ona. Batez ere konturatu direnean gure lana ez dela kontrol mailako zerbait, ikusi dutenean laguntzeko asmotan goazela, ez gara ispezioa. Uste dugu bakoitzak bere gelan erantzutzen duela, egia bada ere, ekipo lan ohiturarik ez dagoela. Eta hau ere aldatzen hasia da. Zenbait tokitan, guk nahi genukeen guztietan ez bada ere, hasi dira lana taldeka prestatzen.

ISILIK.- Nola iksusen duzue, hor egunero, lanean diharduen profesional hori? Zuek hemen elaborazio batzuk egingo dituzue, oinarri teoriko batzuk izango dituzue, baina nola ikusten duzue plasmazten direla profesional hoienean lanean?

KOOR.- Bueno, denetarik dagoela uste dugu. Dena dela, hor garrantzitsuena inplikazio maila dela iruditzen zaigu. Batzuk asko inplikatzeko dira, eta beste batzuk ez hainbeste, bizitzaren beste zenbait alorretan bezala. Orokorki, jendea arduratuta dabilela uste dugu. Honekin batera, sumatzen ari gara gero eta garbiago hizkuntza bat lantzeko kontzientzia, hau da, hinkuntza konkretu baten bidez irakastea, eta hortan sakontzeko gogoia.

ISILIK.- Tira, irakaslegoaren aldetik guzti hori, eta instituzio publikoen aldetik zer? Koordinatzaile talde hau sortu dute eta hortxe zaudete zuek, administrazioa eta eskolaren artean nolabait... Zehazte arren, hilero soldata batetik at zer jasotzen duzue instituzioetatik?

KOOR.- Egia esan oso une zera da... Orainxe hasi berriak gara. Hasieran, Jaurlaritzakoekin bilduz eta abar lan egitea pentsatzen bagenuen ere ezinezkoa izan da, baina kontaktuak izan ditugu eta zerbaiten beharrea aurkitu izan garenean. Eusko Jaurlaritzako arduradunarengana jo dugu. Baina, noski, egunero lana, jasotako oinarri teoriko batzuetatik abiatu bagara ere, hemen egin da. Esan beharra dago, gure atzetik talde teknikorik ez dagoela. Esan zitzaigun ebaluaketari buruz ari zela talde bat lanean eta orain arte zazpi geletan pasa dela besterik ez dakigu.

ISILIK.- Nola ikusten duzue zuen lan honen etorkizuna?



KOOR.- Dexente dira garbi ikusten ez ditugun gauzak, eta noski, kezkatu gaude. Aurtengoz badakigu jarraituko dugula, baina ez dugu ikusten urte luzeetako lana izango denik. Iruditzen zaigu taldeak elkarren artean harremanetan eta koordinatzen doazen heinean gure lanak desgertzera joko duela, eta hala izan beharko luke, guk behintzat horrela ikusten dugu.

Bestalde, hortxe daude honek administrazioari sortzen dizkionak... Talde berezi bat euskal irakaskuntzarako... Isoezioari buruz ere gauza ezberdinak entzuten ditugu, nolabait, zatitzera doazela, batzuk administrazio lana eramango dutela, eta beste batzuk pedagogia lanetaz arduratuko direla, dena dela ez dakigu hori ere horrela izango ote den.


ISILIK.- Beste puntu batetara pasatuz... Non zaudete haseran planteiatu zenituen helburu haiekiko?

KOOR.- Gure ustez ondorioak hemendik bi edo hiru urtetara ikusiko dira. Alde batetik, hiru urtetan horrela lan egin ondoren eskolaurrearen amaieran ikusiko dugulako zer lortu dugun, eta bestetik hasera zikloa aurten hasi dutenek zikloa osatzen dutenean zerbait ikusi ahak izango dugulako.

ISILIK.- Nola ikusten duzue «B» ereduko gela hoiek ikastetxetan duten eragina? Janak geratzen dira edo badute eguneroko eskola bizitzan eragin bat?

KOOR.- Gero eta eragin gehiago dutela ikusten ari gara, eta ez bakarrik eskola barruan, baita ere administrazio mailan.

Dena dela, kontuan hartu behar da oso fronte zabala tokatu zaigula. Beste irakasleak (erdeldunak batez ere) irabazi behar ditugu, gurasoekiko harremana gehiago landu nahi genuke... eta egia esan oso denbora gutxi daramagu.



ISILIK.— Bistakoa da, eta denok entzun ahal izan ditugu eredu sistema honi, eta «B» ereduari konkretuki egin zaizkion kritikak. Zer derizkiozue zuek? Ba al dago eredu horren bidez haurra euskalduntzerik?

KOOR.— Gure ustez bai, ongi eramaten bada bai, eta ikusten dira, oso ugariak ez izan arre, hiru urteren buruan euskaraz txukun moldatzen direnak...

ISILIK.— Zembaiteraino ezagutzen duzue gela hoietako bizitza, sartu ohi al zarete?

KOOR.— Hori da, hain zuzen, behin baino gehiagotan gure artean komentatu izan duguna... ez dugula gehiegi ezagutzen gela hoietako eguneroko barne bizitza. Baina maila batetan, ez dugu sartu nahi izan gehiegi, hasera batetan batez ere. Orain jada, beste konfidantza bat badago eta bestalde, zerbait gehiago esijitzeko ordua iritsi delako edo, zerbait gehiago sartzeko gara. Egia esateko irakasleek eskatu digute gletan sartzeko eta bakoitzak gure ardurapean dugun gela konpuarekin nola ibiliko garen ez badakigu ere, saiatu nahi dugu harremanak estutzen.

Beste gauza bat ere badago. Haseran, gure asmotan plangintza osoa irakasleekin elkarlanean egitea zegoen, baina gero konturatu gara ezinezkoa zela eta behartu gaitu, irakasleen artean kezka eta asmoak jaso ondoren, hemendik egina eramatera, eta horrek harremanetan badu eragin garbi bat.

Noski, eta guzti honekin batera kontutan hartu behar da gela gehiegi ditugula... gela gutxiago bagenu...

ISILIK.— Saltotxo bat emanaz. Eta haurra? Nola ikusten duzue haur hoi euskalduntzea? Zer toki geratzen zaio euskarari «B» ereduaren barnean diharduten haurren artean? Norengan zuzentzen dira euska-

raz? Zer erabiltzen dute elkarren artean?

KOOR.— Euskara oraindik gela barrura mugatzen da. Hortan, bai, andereñoarekin mintzatzen dira euskaraz, eta giro berezi batzutan, elkarren artean ere bai. Unifikazioak izan direla eta, badira «D» ereduko gelen ondoan jarri diren «B» ereduko gela batzuk eta hoiek, beste posibilitate batzuk dituztela pentsatzea ez da inongo astakeriarik.

Dena dela, guzti honetan, kontuan hartu behar da oraingoz euskalduntzea ia, ia, eskolara mugatzen ari dela, eta oinarrizko identifikazio garrantzitsu batzuk ematen direla hizkuntza eta pertsonaren artean, hizkuntza eta denboraren artean, hizkuntza eta gelaren artean eta, hizkuntza eta materialaren artean ez da ahaztu behar.

ISILIK.— Eskatzen al diezue irakasleei nolabaiteko balorazioen bat urte amaieran?

KOOR.— Bi eratako balorazioak eskatzen dizkiegu, batetik haur bakoitzak izan duen prozesuaren baloraketa bat, ebaluaketa deritzana, eta bestetik, talde edo gelan urtean zehar lortutakoaren baloraketa bat.

ISILIK.— Honek, ziur aski, izugarritzko datu pila eskainiko dizue, zer egiten duzue datu hoiekin, zer pentsatzen da egitea?

KOOR.— Oraingoz gorde. Guk uste dugu datu guzti hauek urte batzue barru erabilgarriak izango direla, baldin eta eguneroko gora beheratan aurrera ateratzen saiatzen ari garen «B» eredu honi buruzko azterketa serio eta sakon bat egin nahi bada.

Ordu bata t'erdia zen eta denok bazkaltzeko ohiturakoak ginenez, desentxufatu genuen magnetofonoa.

Ez ginen sakontasun izugarrietan sartu, ez zen hain zuzen, hori gure helburua, ezagutu nahi genituen eta gerturatu gintzaien, iritsiko dira ge-

hiago sakontzeko aukerak. Badakigu non dauden, ez ditugu ahaztuko.





Haurren euskalduntzea Urretxuko ikastolan

1. Euskalduntze historikoa eta ikastolaren hazkundearekin batera sortu den fenomeno berria.

Ikastola sortu zeneko jomuga nagusia euskeraren iraupena zen, irakaskuntza bitarteko egokienetarikoa bat suposatuz. Ikastola, beraz, ikasle euskaldunen eskola zen batipat. Hastapen pauso hauetan, euskeraren irakaskuntza-programa eta metodologiari dagokionez, behinik behin bigarren mailak ekintza bezala kontsideratu zen. «Nahiko» omen zen andereñoak euskaraz ihardutea, haurrek euskera ika seta sakon zezaten. Euskaldunen portzentaia, ikasgeletan, nagusia zen ikasle erdaldunekiko. «Inmertsio» ikasbidea erabiliz, ikastolek emaitza nabariak lortu zituzten haserako urteotan. Zalantzarik gabe.

1973-74-75 urteen inguruan, ordea, oso fenomeno berezia ezagutu zuen Ikastolak: garai hartako faktore desberdinek eraginda (sozialak ta politikoak, batez ere), ikastolaratuko dira ikasle ugari. Ordu arteko hazkunde «eraketa» erabat hankaz gora geldituko da: ikastolaren masifikazioari lekua utzi beharko zaio. Hona hemen datu batzuk:

1971-72 ikasturtean ..	189 ikasle Eskolaurrean 167 ikasle O.H.O.ean	= 356 denera
1975-76 ikasturtean ..	268 Eskolaurrean 439 O.H.O.ean	= 707 denera
1981-82 ikasturtean ..	349 Eskolaurrean 796 O.H.O.ean	= 1.145 denera

Kuantitatiboki aldaketa nabaria bada, kualitatiboki beste horrenbeste dugu: ikasle erdaldunen kopurua, euskaldunen kopuruarekiko igo egiten da portzentaiari dagokionez. Ikasle taldeen antolaketa, aldiz, ez da aldatzen, ikastola sortu zeneko eskema berdinetan jarraitzen da, hain zuzen ere. Metodologia ere, berdina izango da: «inmertsio»aren bitartez erdaldunen euskalduntzea lortuko dela pentsatzen da. Ez dugu luze itxoin beharko aurrekoa kilikolo ikusteko...

Bi urte barru, irakasleen artean komentario bat gero ta sarriago entzungo da: umeren batzuk ez dute euskera ikasten, ume euskaldun asko erderaren jabe azkarregi egiten dira, erdal giroa nagusitzen ari da ikastolan... Datuak, gero ta nabariagoak izanik, gurasoen arteko giroa ere kutsatzen ari da. Errua, nork?... Planteamentuak berrikusteko garaia iritsia da. Une honetan, 1977-78 ikasturtean aurkitzen gara.

2. Euskalduntze prozesuaren ikuspegi berria. 1978 Urtetik aurremantzean...

Erreflesio sakonik egin gabe eta planteamentu orokorrik tajutu gabe, Urretxuko Ikastolak ekiten dio euskalduntze ikasbide berri bati:

- haurren banketa soziolinguistikoaz taldeak antolatzen ditu
- haur erdaldunen taldeak oso kopuru txikikoak dira
- euskararen irakaskuntza sistematizatzearen beharra aldarrikatzen du.

Hala ere, andereñoek ez zaie laguntza teknikorik eskeintzen eta gurasoen aldetik «diskriminazioa», «arrazismoa»,... hitzak aditzen dira. Azkenik, lehen saio hau amaituko da hurrengo ikasturtean, taldeak nahastuz eta gurasoen presioa nabaria izanik.

1979-80 ikasturtean, talde bereizketa birplanteatzen da eta oraingo honetan ez du atzera egingo: ikasturte honetan hasitako haur taldeek bere horretan jarraituko dute Eskolaurre osoan zehar. Andereñoen egoera, aldiz ez da asko hobetuko: laguntza ta orientabide teknikoek eza nabaria da.

3. Geure «B» eredu berezia eta beronen emaitzak.

Ikasle matrikulaketa egiten den garaian, eta gurasoek ematen dizkiguten datuen bitartez, haur erdaldunen nola-

baiteko bereizketa egiten dugu euskera ta umeok duten ingurune soziolinguistikoari dagokionez.

Behin ikasle taldeak osatu eta irakasaioek ekiten zaizkionean, Ikastolaren helburu zehatza Eskolaurrean zera da: haur erdaldun guztiak euskaldundu, OHoa euskaraz egiteko gai izan daitezten. Helburu zehatz honen faseak eta xehetasun «teknikoak» honelaxe mugatzen ditugu:

- Eskolaurreko lehen ikasmilan (3 urte), andereñoak erderaz ihardungo du lehen egunetan, arik eta haurrak ikastolara ta beronen girora egokitzen diren arte. Piskanaka sartuko ditu hitz gutxitako esaldiak eta agindutxo batzuk euskaraz. Gabonak ondoren, emango du salitatiboa: euskaraz soil soil ihardungo du egun osoan, esaten den gutzia ulertzea ikasmila honen helburu zehatza delarik. Erdara, oso une berezitan erabiliko da: haurrak min hartu duenean...

- Eskolaurreko bigarren ta hirugarren mailetan (4 ta 5 urte), euskararen programakuntza askoz xehetua goa izaten da. Andereñoak extentsiboki euskaraz iharduten du eta programaren barruan prestatuko ditu aldi berezi batzuk intentsiboki lantzeko: aurreneko mailan ulermena lantzea helburutzat hartzen bazen, une honetan entzunketa-errepikaketa lan bikoitzaren bitartez, 4 ta 5 urtetako umeengan espresio maila egoki bat lortzea dugu jomuga nagusizat.
- Orain arte egin dugun deskribio honetan, guztiz funtsekoa den zerbait azpimarkatu beharrean gaudete: irakaslearen jarrera. Prozesu hau eramateko euskara bizia eta «etorria» duen irakaslea behar beharrezkoa da, andereño ta haur taldearen bitarteko giro afektiboa ahalik ta beroena sortu behar dela ahazteke.
- OHOeko lehen mailara pasatzeko garaia iristen denean, hizkuntz proba bat eta endereñoak behatu dituen datuen bitartez, «D» eredura pasatuko direnak eta ez direnak erabakitzen dugu. «D» eredua jarraitzeko gai ez direnak, denok ezaguna dugun «B» eredura pasatzen dira. Hala ere, OHOeko 2.mailaren bukaeran, «B» ereduko haurrei aukera bat eskeiniko zaie «D»-ra pasatzeko.

1980-81 ikasturtean, Ikastolak funtsezko erabakiak hartuko ditu:

- 1) Ikastolako umeen euskalduntzea, Plangintza Orokor batek definituko du.
- 2) Plangintza honek mugatuko ditu: ikasle berizketa soziolinguistikoa egiten jarraitzea, bereizketa Eskolaurre osoan mantentzea, andereñoari laguntza teknikoa eskeintzea, talde bereiztuak elkartzeko ikasmila OHOeko 1.a izatea eta Zumarraga-Urretxu herrietan beste Ikastetxe elbidunen bat sortzen ez den bitartean Prozesu honi eustea.

1981-82 ikasturtean, aurreko urtean hartutako erabakien hildo berdinetik jarraitzen du Ikastolak: euskeraren programakuntza hobetu eta hiru urtetako haurrekiko talde tajuketa askoz zorrotzago zehaztu.

1982-83 ikasturtean ta aurreko urte guztiotan jasotako esperientza kaskarra kontuan hartuz, geure Plangintza Orokorra finkatu egin dela esan genezake. Bere ezagugarri nagusiak, ondokoak liriateke:

- Urretxuko Ikastolan bi eredu daude etortzen zaizkigun haurren euskaldun tzea planteatzeko garaian: bat, euskara ta euskerazko irakaskuntzan oinarritua; eta bestea, irakaskuntza elebidu helburutzat duena. Lehena, «D» ereduaz ezaguna, Ikastolaren zutabe nagusia da. Bigarrena, herriko ikastetxeek erantzuten ez dioten herri behar bati erantzuteko sortu da. Azken hau, «B» eredua deitzen diogu, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak proposatzen duena ez izan. Hobeto esana: *geure «B» eredua*.
- Aurreko deskribio hau kontuan izanik, Urretxuko Ikastolaren hizkuntz ekinaldi ideologikoa honako honetan datza: Haur erdaldunen ama-hizkuntzatik

abiatuz, ahal den azkarren talde euskaldunetan txertatu eta ahal den haur kopururik haundiena. Helburu hau lortzen ez duten haurrek berezko aukera bat izango dute -ekonomikoki posible zaigun neurrian- Ikastolan.

Prozesu hau martxan dihoan heinean, Ikastola honek konpromiso bat hartu du bere bizkarrean: Zumarraga-Urretxu herrietako Ikastetxeekin Plangintza Orokorra-Elebitasun ta Euskalduntze prozesuei dagokienez-burutzen saiatzea.

Emaitzak

Ikasleei dagokienez, bi datu adierazgarri azalduko ditugu:

- a) Talde nahasietan («B» eredu gabe) euskaldundu ziren ikasleak:
 - «D» eredura, OHOeko 1.mailan, pasatu ziren.....%33
 - «B» eredura,OHOeko 1.mailan, pasatu behar.....%66
- b) Geuk planifikatutako «B» eredua jarraituta:
 - «D» eredura, OHOeko 1.mailan, pasatu ziren.....%70
 - «B» eredura, OHOeko 1.mailan, pasatu behar.....%30

Masifikazio egoera honetan, erdaldun ta euskaldunak talde nahasitan izateak-geure ustez- sekulako kaltea egiten dio euskalduntze prozesuari. Ehuneko 33 bat euskalduntzea, oso portzentai txikia iruditzen zaigu. Eta halaxe gertatu zitzaigun, 1980-81 bukaeran eginiko hizkuntz proban.

Talde bereizketak, berriz, euskaldun gehiago eta euskera maila ere eskeintzen dizkigu, talde nahasiek eskeintzen dutenarekiko: 81-82 eta 82-83 ekasturteetako emaitzek halaxe frogatzen dute: %70 ikasle euskaldundua.

Emaitzen alorrean, ikastolari dagokionez, alde negatiboak eta positiboak elkar gurutzatzen dute. Alde batetik, «haur erdaldunen arazoa» dela eta, ikastolak indar haundiak egin behar ditu planteamentuak ongi bideratzeko, eremu experimentalak bihurtuz. Esfortzu hauen ginetik, aldiz, Ikastolaren irudi historikoa aldatua izan dela esan genezake: Euskal Eskola izatetik. Elebitasunerako Eskolak izatera iritsiz. Eta berehala datorkigu galdera: honek ekarri digun ordaina, ez al da garestiegia?, ez al da haundiegia?. Gure kasuan, behinik behin, Urretxuko Ikastolaren irudia desprestijiatu nahi izan da herri mailan (diskriminazioak omen,...) eta fenomeno honen ondorioa ez dago neurtzerik oraingo; denbora pasatzen utzi behar.

4. Baloparen eta kritika orokorrak

4.1. Plangintza mailan.

Herri bateko haurren euskalduntzea-eta haur euskaldunen alfabetatzea ez dira Ikastolaren eginkizun bikoitzak. Ikastolak aporata lezake bere esperientzia ta gai-

nerako laguntza teknikoa, baina azken finean herri mailan aztertu, eztabaidatu ta erabaki behar den arazoa da Herri hortako haur guztien eskolarizazio euskalduna nola egin. Alegia, Herri Plangintza egin beharra.

Gure aldetik, berriz, «D» eredu indartzea erabaki duen Ikastola bezala, haur erdaldunen ikastolaratzea plangintza minimo baten arabera egitea erabakia dugu. Erdaldunen kopurua ta euskaldunena kontrolatuz, emaitza orekatsuak lor ditzakegula pentsatzen dugu.

Azkenik, eta geure Ikastolari bakarrik ikutzen ez dion arazoa ez denez, aipatu beharrean dago Administrazioaren politika ekonomikoa. Geure eritziz Hezkuntza Sailak bultzatu ta babestu beharra dauka Ikastola eta bertan egiten ari den esfortzua: talde txikien baimena, irakasleei laguntza teknikoa, eta abar... urteroko eskuzimurkeiak gaindituz.

4.2. Metodologi mailan.

Azken bi urteotan metodologiari dagokionez zerbait aurreratu bada «Hezkuntza Sailaren euskera-programakuntzak direla eta, batez ere), oraindik bide luzea dugula aitortu beharrean gaude.

Aurrerapen kualitatiboren bat egin nahi badugu, metodologi kontrastatua martxan jarri beharrean gaude. Une honetan, geure Ikastolan, euskararen irakaskintza honako puntuotan oinarritzen da:

3 urtetik 5.maila bitarteko programa burutua da. Esperientzi arloan ematen diren interesguneei lotuta daude hizkuntz eduki guztiak.

Euskaraz lantzeko bi ertako «denborak» edo «aldiak» bereizten ditugu: extentsiboa, andereñoak bere jardunaldietan ZER ta NOLA landu behar duen argi ta garbi duelarik; eta intentsiboa entzunketa-errepikaketa jokua era atsegina ta bizi batez aurkeztua.

Andereño kopuruari dagokionez, Eskolaurre osoan zehar ikasle talde bakoitzeko andereño bakarra erabiltzen da. Hasera Zikloan ta Erdiko Zikloan, berriz, bi andereño-maixu erabiltzen dira, bat hizkuntz edukiak ta komunikazio biziak sartzeko (ordubete egunero); eta bestea, extentsiboki, gainerako arlo ta komunikazioetarako. Azken kasu honetan, bi irakasle erabiltzearena alegia, irakasle arteko koordinaketa funtsezkoa zaigu.

Beste aspektu bat: ikasgelatik kanpoko denbora (jolasgaraiak, udalekuak,...) programatzen eta aurrera eramaten saiatzen gara.

Azkenik, eta amaitzeko, lerro hauen bitartez azaldu nahi genuke burutazio bat, ikastolako hainbat irakasleren artean komentatu izan dugun aspektu korapilatsu bat:

«Urretxuko Ikastolan eraman dugun eta daramagun esperientzi berrio honek, haurren amahizkuntzarekiko errespetuan oinarriturik, ez du azken finean guztiz koherente hildo hori jarritzen, euskararen sartzeara progresiboa egin nahi arren, azeleratuegia iruditzen bait zaigu.

Erabat koherenteak izaten gerotan, «Hezkuntza Sailaren B eredu» jarraitu beharko genuke, bai 4 urteta-

koekin eta bai 5 urtetakoekin erderaz ere arituz (denbora portzentai batez, noski). Honek ekarriko luke «B» eredu mantentzea beharra OHOeko maila guztietan zehar, Eskolaurreko haur kopuru berdinarekin. Alegia, ume hauek sekula ez ziratekeen «D» eredura pasatuko.

Baina, eta hona hemen gure kezka larria, galdera hau egin beharko genieke geure buruei: Prozesu hau, Hezkuntza Sailak proposatzen diguna, «D» eredu aukeratu duen Ikastola batena al da? Urretxuko Ikastolarena al da «B» eredu hori, ez al da beste ikastetxe berezi batetan eraman beharrezkoa?»

Burutazio hauen aurrean kontraesanez beterik egon arren, urrututako bideari jarraitzen diogu, oraingoz behinik behin. Bitartean, arazoa argi dezakeenak hitzegin beza.

Axular lizeoko esperientzia

Axular Lizeoak 1.969an iriki zituen bere ateak, Donostiako, Aiete auzoan bertako haur euskaldunei erantzun bat eman nahiz.

Urteak joan urteak etorri auzo txiki bat izatetik, populazio handiko auzo bat izatera pasa ginen eta honekin batera ASULAR Lizeoko giro Sozio-ekonomiko, Sozio-Linguistikoa, hazkundera eta motibapen integratzaileak zeharo aldatuta genituela konturatu ginen 1980 urtean, urte honetan gure ikasleen irakaskuntzaren azterketa egiterakoan zera nabaritu genuen:

Axularren geneukan irakaskuntza elebakardun eredu, ikasle multzo batentzat desegokia zela eta behar bada helburu honekin jarraituz ikasle hauentzat O.H.O.-ko eskola oinarririk gabe geratzeko arriskua sumatzen genuen, batez ere, 2. zikloan elebakardun helburu hau mantentzen bagenuen.

Genituen datoak pisatuz, egoera honela ikusten genuen:

Axularren dauden ikasle kpuruaren gehiengoa jaiotzaz erdalduna edo erdal munduan murgildua dela, beraz, euskara bigarren hizkuntza bezala ikastera beharturik aurkitzen da.

Gure egoera eta errealitate konkretua ikusita giro aski kontraesankorra zela hizkuntz era kultur edukizko plangintzaren aldetik ikusten genuen.

Alde batetik elebakardunentzat prestatutako kultur eta eduki guztiak lortu behar zituzten gure ikasleen, eta bestetik gaineratu dizkiegun euskara eta euskal kulturako edukiak.

Argi zegoen egoera honek zama larria ezartzen zuela gure ikaslegoaren baitan eta gauzen egoera hau lehenbait

	3 urte	4 urte	5 urte	DENERA
Kopurua	23	29	28	80
%	35	41	43	40
Kopurua	44	41	37	122
%	65	59	57	60

lehen berrikusi beharra zegoela *gure irakaskuntza errazionalizatu nahi bagenuen.*

Une honetara iritxi ginenean garbi ikusi genuen -Irakasleok behinbat- Axularko ikasle kopuru ba, irakaskuntza elebidun baten barruan kokatu behar genuela, ez zela aski eskolaurrean hartutako euskara maila.

Bigarren hizkuntza -EUSKARA- behar adina landu gabe eta ahozko mailan menderatzen ez delarik, irakurketa teknikak berorren bidez ikasteak eragozpen eta zailtasun nabarmenak sorterazen ditu apendizaiia prozesu orokorrean zehar, haur kopuru handi baten baitan. (Hots: gure kasuan 30 ikasle gelako kriterioa onartua zegoen.)

O.H.O.k hiztegi Teknikoa eskatzen du

O.H.O.ko gaiak menperatzeko hiztegi zehatza erabili behar da. Gaiaren hitz hauen konzeptua jakin behar dute. Honetaz espresatzeko gai izan behar dute.

Goiko arazo ikastoletan

A.- Hiriburuetako gizartea erdalduna konsidera dezakegu. Honek hizkuntz heldurik ez dagoela suposatzen du: Hizkuntza arruntan ere zehaztasun falta dago.

Oinarria hain ahula izanik, hiztegi zehatza menperatzeko sortzen diren zailtasunak gogorrrak dira.

B.- Zertan datza zailtasuna?

Haurrak hitzaren euskal hotsa ikasten «memori» ona baldin badu jasoko du.

Zenbait eta «memori» hobe hainbat hitz jasoko ditu.

Hitzaren euskal «HOTSA» esaten dugu «EDUKIA» ez bait du hartu. Gure haurrek itzulpena egiten dute.

Azterketa sakon batetan sartu ginen

- Elebitasunaren tipologiak.
- Eredu desberdinen arazoak.
- Euskararekiko planifikazioa.
- Ikastetxearekiko plangintza.

Aspekto hauek, denak, behin eta berriz ikusi ondoren plangintza konkretu batetara heldu ginen eta batzar nagusian aurkeztu, eztabaida gogorrrak sortu baizituen ere, azkenik, plangintza aprobata izan zen.

ZERTAN datza gure plangintza.

Plangintza honen barruan euskarari ematen diogun tratamendua: *ESKOLAURREA eta O.H.O. HASIERA*

O.H.O. 1- EUSK	AITAK EUSK.	AMAK EUSK.	AITAK ERDAL	AMAK ERDAL	BIAK EUSK.	BIAK ERDAL	BIETAKO BATEK EUSK.	EZ DUTE ERANTZUN
KOPURUA 27	16	16	7	7	13	4		4
O.H.O. 1- ERDAL. 19	59%	59%	25%	25%	48%	14%		
	5	6	14	13	2	10		7
	26%	31%	73%	68%	10%	52%		36%
O.H.O. 2- 32	19	15	13	17	12	12		
	59%	46%	40%	57%	37%	37%		
O.H.O. 3- 28	17	19	11	9	15	7		6
	60%	67%	39%	32%	57%	25%		21%
O.H.O.4- 21	12	13	9	8	9	3		9
	57%	61%	42%	38%	42%	14%		42%
O.H.O.ko AROA	69	69	54	54	51	36		36
	54%	54%	42%	42%	40%	28%		28%



ZIKLOA, maila bakoitzean bi gela ditugu, «D» eredu euskaldun kontsideratzen ditugunak, nahiz eta euskaldun desorekatuak izan eta «B» eredu erdaldun direnak.

ZERTAN oinarrizten gara zatiketa hau egiteko?

- Ama hizkuntza.
- Aita hizkuntza.
- Anai-arreben hizkuntza.
- Etxeko hizkuntza.

Nahiz eta AMA euskalduna izan zehaztasun gehiago eskatzen ditugu.

Zenbat ordu pasatzen ditu haurrak amarekin, aitarekin e.a. Ikastolatik kanpo, haur horrek, euskal tratamendua jasotzea, esijitzen diegu gurasoei «D» ereduaren egon daitezen. «B» ereduaren erdaldun hutsak direnen edo gutxi dakitenen seme alabak daude.

Eskolaurrean euskaraz hitz egiten zaie dena, erdaralantzea gurasoen eskutan utziaz.

3 urtekoei, hasieran ordea, eta haurra eskolara ohitu bitartean (lehen 4-8 astea), ia dena beren ama hizkuntzan egingo zaie, euskararekiko harremana poliki poliki sortaraziz. Beste denei eta ulertzeko gai direnez gero euskaraz bakarrik, bi eredutan, egiten zaie.

Euskararen irakaskuntza estentsiboa eta intentsiboa.

Garbi ikusi genuen hasiera batetik bi era hauetan euskara landu beharra.

Honetarako irakasle espezifikoa bat ez ezik, irakasle osoa, konpromiso eta prestakuntz berezi baten aurrean aurkitzen ginela.

Euskara intentsiboaren saioak nola antolatu.

1982-83 ikasturtean saio hauek erdal haurrei bakarrik, zuzenduak izan ziren.

Nahiz eta gure haur euskaldunak ere metodologia honen barruan egotea komeni zela ikusi zantzen arazo izan genituen, eta denen gaitetik ekonomikoa.

«B» erduko talde bakoitza bitan banatu genuen (10-15 haur). Talde bakoitzak egunero 30 minutuko saio intentsiboa jasotzen zuen, honetarako irakasle eta gela berezi batez baliatuz. Gela ahal zen eta atsegina jartzen saiatu ginen, haurrak gustora joaten diren leku bat izateko. Ez dago esan beharrik beharrezkoa dela giro lasai bat, afektibitate lokarri bat izanaz, espresibitate aske bat sor dadin klasean.

Metodologia honetaz baliatzerakoan, haurrek euskara zuzen eta aktiboki erabiliko dute. Haur erdalduna berehala jartzen da euskara ulertzera, euskara pasiboaz azkar jabetzen da. Baina ulertzen duen hori ezin adierazi, eus-

kara ez du aktiboki erabiltzen hitz egin eraziz bakarrik lor daiteke. Horregatik aurretik mailakatutako eta zeharo programatutako Metodologiaz baliatzea beharra ezinbestekoa da.

Errekurtsoak

- Lantzen ari garen hizkuntz egitura apoiatzeko, edozein marrazkik, txartel, jostailu, ontzi, janari, erropak balio du.

Ariketak

- Eredu bat eskaini.
- Behin eta berriz, denek batean errepikatu.
- Banan bana esan erazi.
- Beraien artean galderak egin.
- Aginduak.
- Drill ariketa, e.a.
- Txikiekin gorputz dinamika, abesti eta antzeko errekurtsoak erabili.

Mintzamena

Errekurtsoak

- Mimo
- Giñola
- Antzerkia

Helburuak

- Haurren espontaneitatea probokatu.
- Jaso dituzten egiturak espontaneoki botatzeko posibilitateak eman.

Giñolaren ahoan jartzen diren, ipuinak, gertaera, e.a. oso biziak, dispartez osatuak, haurren interesak kontuan izan. Aurretik idatzita egon behar du gidoiak, guk nahi ditugun egitura eta galderak eginaz. Haurren erantzun psikolinguistikoa aurretik sumatu beharko dugu, guk nahi dugun bidetik eramateko.

Haurrei egitura, eta perpausa osoak esan eraziko diegu.

Hau da, gutxi gora behera ihaz eraman genuen metodologia, euskarari dagokionez.

Urte bateko esperientzia, noski, oso txikia da benetazko ebaluaketa egiteko baina haurrei pasatutako aprobetan eta obserbatuz ikusi duguna zera da:

- Umeak oso gustora etorri izan direla saio intentsibo hauetara, beraz ez dela inongo erretxazorik egon.
- Landu ditugun egituren aprobak-haurrei pasatutako aprobak landutako gehien gehiena jaso eta mekanizatu dutela.
- Gure helburu nagusia, erduz aldatzea, hots, «B» erduko haurrak ahal den neurrian «D» erdura pasa, neurri batean bete dugu, 5 urteko 25 haurretatik 10, erduz aldatu ditugu.

- Jaso dugun arantzunagatik, bide honetik goazela iruditzen zaigu eta ikastaro honetan «B» eta «D» erduko emango zaie euskara, metodologia honen barruan.

Azkenez eta bukatzeko zera esango dugu:

Daramagun plangintza eta metodologi honek irakasleen aldetik saioen prestaketa sakon bat behar duela, inprobisazioari gauza gutxi utziz eta buruan garbi edukiz saio bakoitzean zer eta nola landu behar den. Hortik aparte euskarazko koordinadore baten beharra ikusten dugu, programaketa jarraitzeko, dauden akatsak zuzentzeko eta beste irakasleekin elkarlana egiteko, hots, dauden kezkek aztertzeko, saioak eztabaidatzeko, e.a.

KURTZEBARRI

eskolako euskalduntze proiektua

82-83 IKASTURTEA

1. Nola hasi ginen

KURTZEBARRI Eskolako Irakasle talde batek proiektu hau proposatu zuen, bertara datozen umeak euskalduntzeko asmoz eta aldi berean Eskola eta Herria.

Haurren jatorrian oinarriturik B eta D Ereduetan zentratu gara, batzuk jatorri erdalduna baitute (B eredu-koek) eta besteak euskalduna (D eredu-koek). Bietan daude salbuespen gutxi batzuk.

Laburtuz eta zehatzuz, ikerketa lan honek bi helburu ditu:

1. B eta D eredun planifikazioa.
2. Beraien aplikapena.

Lan hau aurrera eramateko izan diren laguntzak hauek dira:

- A. Laguntza ekonomikoa.
Eusko Jaurlaritzak emana materialetarako.
- B. Laguntza teknikoa.

I.C.E. izan da honen arduradun baina ez dugu izan laguntza konkreturik, inork ez baitu zehazki proiektu hau jaurraitu.

Eskoriatzako Irakaslego Eskolako bi Irakasle izan dira, Iñaki Mendiguren eta Mitxel Kaltzakorta laguntza tekniko hori eskaini digutenak astero bi orduetan.

Dena dela aipatzekoa da bertako talde inplikatuak egin duen ahalegina helburu horiek lortzen inolako etenik gabe.

Urtean zehar behin baino gehiagotan nabaritu da norbaitek lan hori berrikusi, beharra, aspergarritasun baten ez erortzeko eta gauza batzuk aldatzeko esperimentatu ondoren. Hau ez da posible izan eta uda honetan ikastaro batzutan parte hartuko dute irakasleek, nolabait eritziak konfrontatzeko.

«B» Eredua

Eredu hontan 5 talde izan dira: 1,3 urtekoa; 1,4 urtekoa; 1,5 urtekoa eta 2,6 urtekoak.

Hemen, Euskara, bi erataria landu da; estentsiboki eta intentsiboki. Saio intentsiboek izan dute garrantzi gehien eta hau, Eusko Jaurlaritzako Orientabideak eskaintzen dituzten helburuak finkatzen saiatu dira. Helburu nagusiak Ulermena eta Mintzamina izan dira.

Egin den lana eta eritzia

3 eta 4 urtekoena

Girotzea

Arlo honek izugarriko garrantzia du Eskolaurrean eta batez ere 3 eta 4 urteko haurrentzat.

Hau kontutan izanik girotzea ezin daiteke muga momentu edo denbora konkretu batetara; egun osoak girotze bat izan behar du, hau da: saiatu behar dugu haurra motibatzen, ariketa ezberdinak prestatuz, jokuak, abestiak, elkarrizketa, e.a...Guzti hau girotze bat da, eta hau da bere helburua, «Haurrak giro on batetan egonik kurtsoko helburuak menperatzea».

Aipatzen dugun girotzekik aparte, beste girotze mota bat dago, hau da: gela girotzea.

Gai bakoitzari dagozkion ormirudiak, marrazki muralak e.a., gelan eginak izan behar dute. Girotze honek haurra gehiago zentrateko balio du. Honek suposatzen du irudiak aldatzen joatea, gaiari lotuta egonik eta ez kurtso guztian irudi berdinak ikusten egon.

Hau gogoan izanik, ahalegintzen gara girotze egoki bat lortzen, haurren lanetan eta motibazioan gehiago zentratuz.

Ulermena.

Honen helburua hau da: «Haurrak, andereñoak esaten duen guztia ulertzeko gai izatea.

Hau oso garrantzitsua iruditzen zaigunez honako hauek lantzen ahalegintzen gara.

Aginduak:

Ipinak, entzun, errepikatu, kontatu, antzetu.

Mimika

Jokuak

Abestiak

Olerkiak, diapositibak

Muralak, e.a.

Helburu honen eritzi kritikoa:

Uste dugu, ulermen maila, andereñoak erabiltzen duen euskararen arabera dagoela.

Adibidez; Andereñoak, inoiz ez badu erabili zuhaitza eta bai «arbola» hitza, haurrek kurtso bukaeran ez dute ulertuko «zuhaitza», e.a.

Kutsoan zehar egoten dira momentu kritiko batzuk, (kurtso hasieran, gai berria hasterakoan, e.a.) irakaslearentzat. Sarritan pentsatzen dugu umeek ez dutela ulertzen, baina kurtso bukaerarako nabaritzen da ulermenaren prozesu bat, eta batez ere 3 urteko taldearekin; 4 urtekoak badutelako aurrez ulermen maila bat.

Oztopoak. Kurtsoan zehar nabaritu ditugunak:

Haurrak, ama hikuntzan ez badu prozesu ebolutibo egoki bat, oztopo handiak izaten ditu 2. hizkuntza ulertzeko.

Umearen eskolara etortzea.

Adimena

Lasaitasun giro bat lortzea, irakasle eta ikaslearen aldetik.

Mintzamena

Hiztegia. Arlo honek garrantzi handia du guretzat eta batez ere haurrak bereganatzea erabiltzen den hiztegia, (noski, bere giroan erabiltzen dena). Adibidez, garrantzi handiagoa du «mantala» hitzak «orratza» hitzak baino. Helburua umeentzat erabilkorra izatea baita.

Gai bakoitzean ikasi ditugun hitzen promedia 25etik 35era dago.

Ikasterakoan zailtasuna nabaitzen dugu luzeran. Beraz, hitzak ahozkatzeko zailak direnean eta abstraktoak direnean... Adibidez luzeragatik: alkondara berogailua.

Ahozkatzeko zailtasunagatik: katuska, xixarea, ziburu.

Abstraktoak. Ahizpa, bero, hotz, ilun, argi, jaiotza, sehaska.

Uste dugu, hiztegian beste arloetan bezala, andereñoak zerikusi handia duela. Konturatu gara sarritan umeak failatzen dutela, hitz errazetan, adibidez: «berokia, guk ez dugulako berdin erabiltzen hau da: txamarra, kanguroa, e.a. eta baita ere guk pentsatzen dugulako hitza erraza dela, umeak badakiela, eta ez da behar bezala errefortzatzen.

Dena dela nabari da umeak badutela gaitasuna hiztegia ongi ikasteko, askoz ere errazago ikasten dute hiztegia, morfosintaxia baino.

Eguneroko esaldiak

Arlo honetan ikusten dugu zerikusi handia duela umearen ekintzak eta eguneroko esaldiak lantzen ditugu umeen ekintzetan finkaturik. Adibidez: umeak pixa egin nahi duela esaten digunean, aprobetxatzen dugu eguneroko esaldia errepika eta erabil arazteko, baina beti umearen esperientziatik abiaturik (pixagurea).

Arlo honetan arazoak sortzen edo agertzen dira umeen esperientzitik kanpo daudenean, esate baterako, «elurra ari du» baina ez du elurrik egiten. Orduan, txartelen bidez erakutsi beharra izaten dugu eta ez da hain menperatuta gelditzen, ez da oso motibatzailea eta abstrakzio maila batetan hitz egin behar da. Ikusten dugunez askoz ere egokiagoa litzateke eguneroko esaldiak gaitan finkaturik egotea baino, umearen ekintza eta inguruko gauzetan finkaturik egotea.

Interesgarriagoa iruditzen zaigu gai bakoitzean 10 eguneroko 10 esaldi ikastea baino, 5 ikastea, beraiek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobetxatuz. Honetarako, andereñoak haurrarekiko arreta mantendu behar du, berak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzeko.

Esan dugun bezala, mailakatutako progresio gramatikal baten barruan eta haurren interesak kontutan izanda programatu beharrean gaude, bai saio intentsiboetarako, bai estentsiboetarako.

Umearen interesa aipatu dugunez gero esan beharra dago, gure eskuetan dagoela interesa esnatzea, bai proposatzen dugunarekin, bai nola proposatzen dugun ikusiz. Gure espresibitatea, mogimendu, ahots aldaketak, keinu eta gainontzeko gorputz ariketak zeharo lagungarriak izango ditugu haurrei interesa eta hizkuntz aktibitateasuna esnatzeko.

Saio bakoitza zertan datza.

- 1.- Gai konkretu bati lotuta joan beharko du.
- 2.- Gai honi hiztegia
 - Izenak
 - Adjetiboak
 - Adberbioak
 - Aditzak, egokiak bilatu beharko dizkiogu
 - Morfosintaxia
 - Deklinabidea
 - Aditz
 - Joskera, aurretik programatuta egongo dira.
- 3.- Gaiari dagozkion, olerki, esaera, asmakizun, abesti, ipuin eta «eguneroko esaldiak» aukeratuko ditugu.

Saio intentsiboak hiru zatitan banatzen ditugu.

- Giroketa (buruz ikastea)
- Errepikaketa
- Mintzamena

Giroketa, (saioa girotzeko zenbait gauza buruz ikasten ditugu).

Errekurtsoak

- Ipuin txikiak, olerkiak, abestiak,
- Entzunketa, grabaketa, gorputz ariketak.

Helburuak

- Aditasuna
- Ahoskera
- Entonazioa
- Erritmoa

Motibazioa

- Bere ahotsa entzun
- Egitura asko, luze eta zailak, bururatzeko gai direla, konturatzea.
- *Estimulazioa* beste batzuk ikasteko.

Errepikaketa

- Hizkuntz egitura jakin batzuk errepika erazi.
- Baiezko
- Ezezko
- Galdera perpausak landu.

Helburuak

- Hizkuntz egitura desberdin batzuk landu, mekanizazioa lortu arte.
- Hizkuntz erabilkeran, perpausa hauek, behartasunei egokitu eta erabili.
- Erabiltzen jakin.

Morfosintaxia

Arlo hau ikusi dugu zailena dela: praktikan jarri behar baitu aurrez aipatutako guztia.

Arlo honetan ere garrantzi handia du irakaslearen jarrerak eta baita ere umeran euskararekiko jarrerak eta ohiturak.

Morfosintaxi arloan helburuen erantzuna ez da hain orokorra, beste gauza askok kondizionatzen duelako: Adibidez; asistentzia, umearen heldutasuna, jarrera, e.a....

Nabaritu dugu estruktura batzu errazak egiten zaizkiela, baina beste batzu nahiko zailak.

Zailak egiten zaizkienak, hauek dira: -Zu-pertsona zaila egiten zaie, eta ez Ni edo 3. pertsona.

- Ezezko esaldiak, batez ere luzeak.
- Deklinabidea: NONDIK kasua, Norentzat, norena kasuarekin nahasten dute.
- IBILI aditza.

Lortzeko errekurtsuak

- Txartelak

Ipuinak, olerkiak eta hiztegia ikasteko erabili ditugu. Onak dira Morfosintaxia lantzeko, ikusmenaren bidez ikasten dutelako. Baina ikusi dugunez, kurtso bukaerarako metodo hau aspergarria egin zaie. Metodo ona da baina bere erabilera uste dugu neurtu egin behar dela.

- Abestiak

Oso errekurtsu ona da, asko gustatzen zaie eta asko ikasi ditugu kurtsoan zehar. Egokia da gaiaren sarrera egiteko, baita ere mimika lantzeko.

Magnetofonia

Ariketa ezberdinak egin daitezke errekurtsu honekin: lasaitasuna lortzeko, dantza egiteko, entzumena lantzeko. Ona da eta nahiko erabili dugu kurtsoan zehar.

- Olerkiak

Fonemak eta aho expresioa lantzeko erabiltzen dira. Olerki gehienak hizkuntza estruktura bat daramate barenan eta beraien bidez tonalitatea ere lantzen dugu.

Asko gustatzen zaie eta erraz bururatzen dituzte behartu gabe.

Gai bakoitzerako gutxienez bi erabiltzen dira. Txartelen bidez landuaz.

Ipuinaren prozesoa hau da:

Andereñoak kontatu

- Denak kontatu gurekin batera (errepikatu)
- Banaka errepikatu
- Galderi erantzun, denak batera.
- Galderi erantzun, banaka.
- Motza bada, buruz ikasi eta kontatu.
- Antzeztu.

Metodo ona da baina prozesoa aspergarria egiten zaio haurrari. Lehenengo eta bigarren aldiz gustatzen zaizkie, adi egoten dira, gero derrigorrezkoa da prozesoa aldatzea. Gustatzen zaien ipuinak, motzak eta esaldi errazeguz eginak dira, baita ere hots onomatopeikoak eta elkarriketok dituzten ipuinak atseginak egiten zaizkie.

- Txontxongiloa

Egiturak lantzeko erabiltzen dugu, baina beti ere elkarriketa inprobisatuak sortu ditugu sarritan. Asko gustatzen zaie eta adi egoten dira. Sistematikoki erabiliz gero identifikazio bat lor daiteke. Orokorki esan dezakegu txontxongiloa haurrek asko maitatzen dutela.

- Jostailuak

Hizkuntza lantzeko oso ona da errekurtsu hau. Talde osoari baino banaka edo 3, 4ko talde bati zuzenduz ondorio hobeagoak ateratzen dira. Jolas librea lantzeko erabiltzen dugu. Jostailu moeta guztietatik (gelan dauzkagunetatik) gehien erabiltzen eta gustatzen zaizkienak hauek dira: plastilina, puzzleak, telefonoak, e.a.

- Ormirudiak

Motibatzen dira, baina ez ditugu sistematikoki hizkuntza lantzeko erabiltzen.

- Bideoa

Orain arte, eskolan dagoen materiala ez da guztiz egokia, (azkar hitzegin eta egitura zailak erabiltzen dituztelako) 3 eta 4 urteko haurrentzat. Sarritan, guk lagundurik, ulermena eta entzumena lantzeko behintzat erabili dugu. Asko gustatzen zaie eta 15-20 minutu adi egoten dira, gehiago ez.

- Jokuak

Jokua, joku libretik aparte, psikomotrizitateari, musikari lotuta lantzen dugu, ekilibrio, mimika eta expresibitate ariketak eginez. Ariketa hauetan zailtasuna nabaritzen dugu, denak batera egin nahi dutelako, besteek egiten dutena ez dutelako ikasten etab. Baina hau lortu behar dugun gauza bat da, eta joku motzak eginez baliatzen gara. Beraz, jokoan iraupena laburra da.

– *Guraoen klasea*

Klase honen helburuak hauek dira:

- Haurrek ikasten dutena beraiek ere ikasi behar dute, gero etxean hurrekin eskolan ikasi dutena erabiltzeko haurra errebortxatuz, neurri apal batetan, noski.
- 15 klase eman ditugunez, ez dira kasu guztietan oso ondorio garbiak eta onak nabari, baina kasu batzuetan bai. Gurasoek diotenez haurrak ez die-te kasurik egiten, euskaraz ez dakitela esanez, hori Josunek esaten duela baina berak ezetz, ez dela horrela esaten, etab. Baina hasiera bezala esan daiteke, nahiko ondorio onak izan dituela euren aldetik jarrera ona adierazi dutela. Ariketa hau jarraituz, beste kurtsoei begira, ondorio positiboak atera daitezkeela ikusi dugu.

5 Urtekoena

Sarrera.

Hasteko, interesgarria deritzat taldearen deskribapen ororkor bat egitea, talde nolakoa den, halakoak izaten bait dira, ematen dituen erantzunak.

Haur kopurua 24-koa da. 24 hauetatik 15 ume ihaz ere «B» ereduan eta nirekin aritu ziren. Erdarazko irakaslea aldatun dute baina euskarazkoa ez. 6 ume eskola pribatu batetatik etorri dira eta erdaldunak izan arren 2 edo 3 urtetatik «D» ereduan eskolatuak izan dira. Beste bat ikastolan ibilitakoa da, 2 urtetatik «D» ereduan. Eta azkenik, beste bat azaroan etorri zena, erdaldun hutsa eta inoiz eskolatu gabea.

Gelaren konposaketa nolakoa den ikusirik erraz pentsa daiteke umeen euskara maila guztiz desberdina dela, edo behintzat kurtso hasieran batzuk besteak baino askoz ere maila hobegoa zutela. Eta horrela da, «D» ereduan ebilitakoek ohitura zuten euskaraz hitzegiteko eta gehienek, ez denek, erabiltzen zuten. Ume hauen euskararen erabilpena oso probetxugarria izan zitekeela pentsatu nuen eta kurtso bukaerarako denek ohitura berdintsua izatea aurrerapen handia izango litzatekeela pentsatuz hasi genuen kurtsoa. Ume erdaldun batek euskara erabil dezan noski, kondizio batzuk jarri behar dira eta garrantzitsuena girotzea da.

Girotzea

Ume hauei euskaraz egitea asko kostatzen zaie eta gure helburua euskara erabiltzea da, beraz giro egoki bat bizi behar dute, euskara bultzatuko duena, eta noski, giro hau eskolan lortu behar da, familia eta auzoko giroak ez bait die ezer edo oso gutxi laguntzen. Eskolako girotze honetan irakaslearen irudia da garrantzitsuena, hau da, umeek entzuten duten euskara bakarra iraslearengandik entzuten dutenez, irakaslea maite behar dute, umeek honen erabiltzen duen hizkuntza maite dezaten, eta ez dadin «rechazo» ideia bat sortu. Maitasun giro hau lortzea nahiko erraza da eskolaurtean behintzat.

Maixuak edo andereñoak egin behar duen bakarra zera da; umearengana hurbildu, umearekin komunikazio

fisikotik hasi, musuak, kariziak, balakuak, komunikazio mintzatura heltzeko, eta batez ere umeari, maite duzula eta errespetatzen duzula adierazi. Hau lortuz gero, zera lortuko da, umea pozik etortzea eskolara eta hori da lehenengo abiapuntua ikerketarako orokorki eta bigarren hizkuntza ikasteko bereziki. Honen inguruan pertsona-hizkuntza identifikazioa ere oso garrantzitsua da, umeak jakin dezan irakasle bati dena, ahal duen neurriak noski, euskaraz egin behar diola. Hau oso garrantzitsua denez, lortzeko bidea, insistitzea litzateke batez ere.

Aurten nire gelan oso gauza berezia gertatu da. Aurrenean, hau da, kurtso hasieran, nik bultzatzen nituen euskaraz hitzegitera umeak, lehen esan dudana bezala asko insistituz. Gabon inguruan gauza berezi bat gertatu zen, gelako ume bat edo bi besteei euskaraz egiteko esaten hasi ziren. Hasieran 1 edo 2 ziren eta geroz eta gehiago eta orain kurtso bukaeran nirekin denek euskaraz hitz egiten dutela esan daiteke eta pertsona-hizkuntza identifikazio hori lortua dagoela.

Gero, beste maila batetako girotzea ere badago, gai bakoitzari dagokiona. Gai bakoitzak girotze berezi bat behar du eta hau ez da beti berdina izaten. Gai bat girotzeko edo gai hontarako interes bat sortzeko umeengan, ekintza bat prestatzen da. Batzutan ekintza hau irteera bat izan daiteke, animaliak edo edozein landare ikusteko, beste batzuetan mural bat jartzea eta umeekin mural hori komentatzea, beste batzutan umeengandik sortzen da interes hori eta espontaneoki elkarrizketan edo galdera erantzunak agertzen. Beraz, gai bakoitzak girotze desberdin bat izan dezake, edo berdina, noski, hau da, prozesu berdina jarraituz.

Ulermena

Gelan egiten den edozein ekintzatan lantzen da ulermenena. Normalki erabiltzen dugun hizkuntza oso hizkuntza basikoa da, hau da, saiatzen gara ulerteko duten hiztegia erabiltzen aurrez ikasitakoa edo momentuan lantzen ari garena. Erabiltzen ditugun egiturak ere oso sinpleak izaten eta keinuz lagunduak joaten dira gehiengotan.

Talde honetako konposaketa dela eta, ez dira ulermen problema handiak izan. Beti agertu izan da hitzen bat ulertzen ez dena baina mimikaz baliatuz adierazi izan dut. Hitz baten itzulpena ez dut inoiz ematen eta hitz zailen bat agertzen bada, hitz hori dakien umeren batek esaten du erdaraz, eta ez nik, «hori nola esaten da erdaraz?» galdetzeko ohitura sor ez dadin.

Hasieran gaiei zegozkien ipuinak eta honen inguruko ekintzak kontatzen nituen bakarrik gelan, baina kurtso bukaeran edozein ipuin edo edozein ekintza ulertzeko ulermen maila dute umeek, hori bai, ikasi dugun hiztegia eta egiturak erabiliz gehienbat. Honez aparte askotan zera gertatzen da: morfosintaxia arloan landu gabeko egiturak ere erabiltzen hasten direla. Hau edozein modutan ez da orokorra eta asko erabiltzen diren egituretan edo ume konkretu batzuekin gertatzen da. Aurten «zapataik gabe», «bukatu gabe» eta horrelakoekin gertatu zait eta baita ere konparatiboarekin, «nirea zurea baino handiagoa da», baina hau ume konkretu batzuekin eta ez guztiekin. Ulermena lantzen, lehen esan bezala eskolan egi-

ten dugun edozein ekintzak lagun diezaguke. Hala ere badaude aktibitate berezi batzuk ulermen maila hau jakiteko: aginduak betetzea. Ariketa hau egitea asko gus-tatzen zaie umeei eta edozein eratako egiturak erabil daitezke: erlatibozkoak, konpletibak, denborazkoak... umeek poliki-poliki hartzen has daitezten, askotan entzunez erabiltzera pasako dira eta. Ariketa hauen bigarren pausoa hitzegiteari zuzendua dago. Hau da, irakasleak errepikatu ondoren, umeak ulertzen dituenan, berak esaten hasi beharko du, honela ulertzen duena has dadin.

Morfosintaxia

Arlo honetan jarraitu dugun prozesua eta eman ditugun egiturak 1. mailan eman dituztenak izan dira. Eman-dako gaiak eta gai bakoitzean hiztegi, adberdio, adjetibo, eguneroko esaldiak...berdinak edo berdintsuak izan dira. Baita ere erabilitako errekurtoak, diapositibak, ormirudiak, txontxongiloa...

Bereziki erabili dudana hau izan da:

Txontxongiloa; bi eratako txontxongiloak erabili izan ditut. Lehenengoa egiturak sartzeko erabilia, hau da, aurreneko aldiz egitura bat sartu behar nuen, txontxongiloak nirekin izaten zuen elkarrizketa batetan sartzan nuen. Adibidez, NONGOA kasua landu genuenean, hasieran «NONGOA zara zu» txontxongiloari galdetuz, gero «nongoa naiz NI», gero «nongoa da Roberto» umeek entzun dezatez. Gero txontxongiloak neri galdetzen dit eta azkenik, txontxongiloak umeei.

Bigarren era, txontxongilo errepresentazioak egite-ra izan da. Panpin bat ateratzen da eta zerbait, be-rari gertatutakoan kontatzen dum umeei galderak egiten dizkie e.a. Bestela panpin bi edozein egoera-tan. Normalki, hauek, gaien erabilitako egiturak eta hiztegia erabiltzen dute.

Lehenengo maila

Taldearen deskribzioa

Talde honetan 23 haurn daude.

Taldearen barnean, euskarari dagokionez hainbat azpital-de bereiz daiteke batzuk (3) «D» eredian ibilitakoak eta 5 urtekin elebidun taldean sartu zirenak.

Beste batzuk (9) iaz etorri ziren lehenengo aldiz eskolara (elebidun taldera).

Azkenik, 2 urtetan elebidun taldean egon direnak.

Gaiak

Urtean zehar 6 gai landu ditugu:

1. Gorputza. Zentzumenak
2. Gela. Eskola
3. Gabonak
4. Jantziak. Ihauteriak
5. Familia. Etxea
6. Lagunekin. Animaliak
7. Zirkoa

Ebaluaketa

Laugarren gaia ikusi ondoren, eta frogak gela guztiari pasatu ondoren emaitzak aztertu eta gero, ez zirela behar den mailara iristen ikusten da.

Orduan programaketan atzera egitea pentsatzen dugu: Hiru urtekoen programaketa jarraitu eta hasieratik hasi. Aldaketa hau morfosintaxian izango da batez ere. Hiztegia eta gaiak 5-6 urtekoenak izango dira. Ipuinak ere programaketetakoak izango dira baina sinplegoak, landu nahi diren estrukturak kontuan izanik eta hauei moldatuak.

Helburua

Hasieratik hasita, hau, NOR-ZER estruktura lantze-rakoan, haurrek zihurtasunez hitzegitea eta dakiten gutxi hori erabiltzea.

Badirudi hau lortzen doala poliki poliki, eta saio in-tensibotik kanpo, ia egunero erantzuten diote galdera hauei:

- Nor zara zu?
- Nor naiz ni?

Bitartean, besteek beste zerbait egiten dute. Baina hiru edo lau aste pasatu ondoren, umeak aspertu egin di-rela hau egiten eta uztea erabakitzen du andereñoak. Gai-nera estruktura hauek eta beste batzuk landutzat ematen ditugu, baina 2.froga pasatu ondoren, honelako akatsak agetzen dira:

- Zu mutila zara? «Bai ni mutila zara»

Orduan, aurrera ez jarraitzea eta estruktura hauek lantzen eta lantzen jarraitzea erabakitzen dugu:

- NOR-ZER
- NORK
- NOLAKOA: hau, hori
- NON: dago, nago, zaude, hemen, hor
- NORENA: nirea, zurea
- NOREKIN: nator, dator
- NORENTZAT: niretzat, zuretzat
- NORA: noa, doa, zoaz
- ZERTAN ARI: da, dira
- NONDIK: nator

Aldaketa honek, metodologian ere aldaketa supo-satzen du: Hasieratik oso zaila da, saio intensibo aberats bat lortzea, ezer egin gabe, entzuten edo besteen hitzak ebtzuten egotea. Askoz ere trankilago zeuden beste akti-bitateren bat egiten genuenean.

Oso mugikor agertzen dira.

Orduan saio hau, marrazkien bidez egitea pentsatu ge-nuen, landu behar genuen estruktura errepresentatuz be-raiek paperean eta hortik galdera erantzunak sortuz. Bes-talde, hiztegia baldin bada, plastilinen bidez, marrazki bidez ere. Eta horrela lan gehiago egin daiteke.

Giroetzea

Giroetzea, gai guztiaren zehar agertzen da. Batez ere gaiari buruz beraiek egiten dituzten lanen bidez.



Gaiari dagokion ipuina da oinarria; honetaz baliatuz egiten dira galderak, gaian poliki poliki zentratuz, baina batez ere baraiak egiten dutena da garrantzizkoena.

Girotzearen helbururik nagusia nire ustez, beraiek hitzegitera bultzatzea izan beharko litzateke eta hau ez da lortu.

Beraien artean euskaraz mintzatzea ez da lortu, gehienetan, ia beti, erderaz hitzegiten dute eta niregana zuzentzen direnean ere, askotan, lehenengo erderaz eta bigarrenean euskaraz behartuak direlako esaldi zuzena emana.

Ulermena

Ulermenaren helburu nagusia, gelan hitzegiten den guztia ulertzean litzateke.

Orokorki saio intentsiboetan hitzegiten dena eta euskarazko gaiari lotuta dagoen guztia edo ia gehiena ulertzen dute.

Zailagoa da esatea, esperientziatako gai batetan, adibidez, esaten duten guztia ulertzen duten ala ez. Batzuk, nik esango nuke ia gehiena ulertzen dutela, baina beste askok (erdiak) ez dute ulertzen saio estentsibo hoietan hitzegiten dena.

Errekurtsoak

Ipuina. Gai bakoitzean bat. Estrukturak lantzeko gehien bat.

Ipuin kontaketa: Ulermena lantzeko.

Beraiek egindako ipuiak: Elkarrizketak sortzeko.

Errexak direnean, antzetu egiten dira, beraiek hitzegin dezatela eskatuz.

Ormirudiak: Pertsonai asko azaltzen direnak; baidak bat aukeratzen du hari buruz zerbait esateko galderen bitartez lagunduz. Askotan kontestutik aterata; gehien bat hitzegitera bultzatuz eta baita ere hiztegia eta ulermena lantzeko.

Diapositibak: Esperientziatako gaietan oinarriturik.

Elebitasunaren arazoa «Alegiako» eskolan

1. Kondaira laburra:

1979, urte arte Alegiako ikasketen egoera horrela aurkitzen zen. Alde batetik Ikastola eskolaurretik hasi eta O.H.O.ko 3.mailaraino, eta bestetik garai arteko «Eskola Nazional Komarkala». Bertan, Abaltzisketa, Larraitz, Orendain, Ikaztegieta, Baliarrain eta Aldabako haurrak biltzen ziren.

Ikastolako hurrek, 3.maila bukatzen zutenean, ikasketak euskaraz jarraitzekotan, Tolosara edo ikastola haun-

diago batetara joan behar zuten; Eskola Nazionalera inguruko herrietatik biltzen ziren haurrak, euskaldunak ziren eta Eskola Nazionalera joaten ziren. Alegiako haurren gurasoen nahia ere, haurren heziketa euskaraz izatea zela kontuan izanik, herrian Euskal Eskola Publiko baten beharra ikusi zen.

Helburuz lortzeko Udaletxeak, gurasoen nahia jaso eta Eskola kontseiluak, jartzen zuen bidea jarraitu, beharrezko ziren pausoak eman eta zenbait bilera egin ondoren, 1970-80 ikastarorako Ikastola eta «Eskola Nazionala» bat egitea erabaki zen.

Bainan elkarte hau ez zen bat batean egin, baizik eta Eskolaurretik hasi eta O.H.O.ko maila guztiak hartu arte, elkartzea mailaka egitea erabaki zen, eta Ikastolako 3.mailako hurrei jarraipen bat emate arren, hasiera hasieratik Eskolan bi 4.maila sortu ziren; bata Ikastolako eta inguruko herrietako haur euskaldunak osatua, et bestea ordurarte ikasketak erdaraz egin zituztenekin osatua. Beraz, 1979-80 ikastaroan Eskolaurrea aurki zen, hiru talde zeuden. Lehenengo mailan, bi talde zeuden. Haurrak, gehien bat euskaldunak zirela ikusirik, erdaldunak talde hauetan integratuak aurkitzen ziren.

Alegiako ingurunea oso euskalduna dela ikusirik haur guztiak elkartuta egotea ez zen oztopoa, eta guztiak euskalduntzeko bide egokiena, iruditu zitzaigun.

Berezitasun berdina zuen bigarren maila bat ere bazegoen.

Eta orain 1980-81 ikastarora iristen gara. Ikastaro honetan euskaldunak eta erdaldunak banatuta aurkitzen dira.

Alde batetik, eskolaurreko bi mailetan talde euskaldun bana zegoen.

Bestalde, eskolaurreko bi mailetako haur erdaldunak elkartu ziren.

Zatiketa honen zergatiak hauek dira: haur euskaldunen kopurua 17 izanik nahiko iruditu zitzaigun talde bat osatzeko. Talde nahastuetan euskaldunen kopurua erdaldunena baino askoz handiagoa denean, erdaldunen integrazioa erreztu egiten da, bainan ez zen hau gure kasua.

Hiru talde horien irakasleak euskaldunak dira eta helburua talde erdaldun hau euskalduntzeazainik bere lana koordinaturik daramate.

Eta 1981-82 ikastarora iristen gara. Eskolaurreko hiru talde eta beste bat eskolaurrea eta Hasierako Zikloa nahasturik zeuden. Eskolaurreko lehenengo kurtsoan talde euskaldun bat eta hamaika laguneko talde erdaldun bat. Eskolaurreko bigarren mailan talde euskaldun bat eta gero lehen aipaturiko talde nahastua, hau da, bigarren eskolaurre eta Hasiera Zikloko haur erdaldunekin osatua. Horrela bada, erdaldun taldea jarraitu egiten da. Ikastaro honetan lehenengo aldiz euskarazko «B» erdua erabiltzen da. «B» erduaren helburuetako bat, haurrak irakurketa eta idazketa bere ama hizkuntzan ikastea dela izanik, eta ikasketaren funtsezko maila honetan nahasketan gerta ez daitezen haur erdaldun eta euskaldunen arteko banaketa hau beharrezkoa gertatzen da. Hasierako Zikloa honela osatua geratzen da, lehenengo maila bat, haur euskaldunekin, eta bigarren maila aldiz, euskaldunak

izanagatik, «B» eredurā iristen ez diren haur integratuekin.

Hurrengo ikastaroan 82-83, haur erdaldunen taldeak jarraitzen da, batzuk H. Zikloko lehenengo mailan eta besteek bigarrenengan. Ihaz bezela «B» eredia jarraitzen da irakasle euskaldun baten bitartez.

Ikastaro honetan Hasierako Zikloa lehen eta bigarren mailako haur euskaldun talde hauekin osatua gelditzen da.

83-84 ko ikastaro honetan talde erdaldun hau Hasiera Zikloko 2. mailan eta Erdi Zikloko lehenengoan babatu dira.

Hasierako Zikloa honela osatuta gelditzen da, bigarren mailako talde euskaldun bat eta lehenengo mailako bi talde. Lehenengo mailako haur erdaldunak gutxi direnez talde euskaldunetan integratuak gelditzen dira.

2. Elebitasunaren aktibitate eta helburuak:

Eskola honetako eskolaurre eta Hasiera Ziklotan euskarazko «D» eredia erabiltzen da, ume gehienek lehenengo hizkuntza eta inguruko hizkuntza euskar dutelako.

Hemendik dator eskola honetan ikasle erdaldun hauek integratzeko dagoen gogoia, horretarako ikasle erdaldunak euskarazko «B» eredia erabiltzen dute.

Honek ematen die bigarrenengo hizkuntza hau ikasgai eta une berean, berehalako integrazioaren erraztasuna.

Eskola honetan eta aktibitate garrantziko bezala ikasle erdaldunek bere mailako euskarakoekin elkartzen dira; idatzi eta irakurtzeko ez diren gainerako gaietarako, hauek ongi ikasi arte.

Honela ba, egiten dugu integrazio hau erdarazko ikasle gutxi, euskaldun ikasle askorekin.

Era guztietara, bi irakasle daude dedikazio osoa dutenak, erdarazko bi miltzo hauetarako, bata erdaraz eta besteak euskaraz ematen dituzte ikasketak.

Ume bakoitzak bereizten ditu bi irakasleak, bakoitza bere hizkuntzarekin.

Irakasle batek «erdal hizkuntza» eta «matematika» ematen ditu. Besteak «euskara» (intentsiboan) eta gainerantzako gaiak (estentsiboan). «Gizartea» «B» ereduko liburuekin, «eskulanak» eta «psikomotrizitate». Gai hauek beren indarra edukiko dute bere lagun euskaldunekin elkartzen direnean, lehen esandugun bezala.

3. Ikasle erdaldunen bereizgarriak:

Haur erdaldun batzuk hemen jaiok dira eta beste batzuk ez. Ezberdintasun asko dago bien artean. Aurrenekoen guraso batzu jaiotzez «euskaldunak» dira eta bere semeek nolabait ere euskara ikasteko modu hobeak dituzte kanpotik etorritakoak baino. Askotan, hauek, bere gurasoen lana dela eta denbora gutxian egon ohi dira hemen. Eta ez dira gutxi gainera.

Hauetako kasu batzuk badaude gure ikastolan. Besteekin bezalako integrazio lana egin beharrean ote gara hauekin ere?

Gure ikastolan dagoen arazo bat da hau, eta asko landua gainera.

Eman den soluziobide bat erdaldun hutsez osatutako talde bat edukitzea da, eta hori da ikastola honetan oraindik ere bi talde erdaldun (10 eta 13 ikasle) edukitzearen arrazoia.

Bestalde «haur zailak» deiturikoen arazoa dago. Zer egin hauekin?, denbora guztian gure herrian egoten diren haurrekin batera eduki beti?, besteekin bateratu?. Ez bat eta ez beste, bakoitzak bere hizkuntzan ikas-teknikak indartzen dituenen bakarrik ahal izango da horiek integratzea.

Dena den, maila berdinetako beren lagun euskaldunekin integraketa-lan hori praktikan jarri, gure helburu nagusia deritzagu.

4. Esperientzen zabalkundearen beharra:

Euskarazko «B» ereduaren ezarpenerako baldintzak nahiko mugatuak direnez, eredu honek ez ditu haur asko beregantzen, babesten. Hau honela izanik, egoera honek ikastetxeen arteko koordinazio lana eta eginkizun sistematikoa ez ditu batere errazten. Horregatik, eskola konkretu bakoitzean egiten den lana ezagutzeko, maila ezberdinetako lotura lortu nahi da.

Aipatutako baldintza horiek direla eta, «B» eredia era ezberdin askotan ezar daiteke eta metodoloji hutsune handi bat dagoenez, behar beharrezkoa da, eskola bakoitzean beste eskoletan egiten diren lanekiko parekaketa bat egitea.

Nahi eta nahiezkoa da esperientzi hauen zabalkundea, horrela guztiok elkarren lan eta esperientziak berri jakingo bait dugu. Guk urte bat edo bestean, Tolosa bailara mailan lan egin ahal izan dugu, koordinatzaile baten laguntzarekin. Honela elkar-lan bat egiten genuen eta norabide komun batzuk jarraitzen genituen.

Erdiko zikloan aldaketa egiten da, irakasle batek euskeraz hitzegiten du eta besteak erderaz.

Oraingoz bigarren etapan euskera asignatura bezala ematen da, baina gure plana aurrera jarraituz datorren ikastaroan 6. maila euskeraz izango da.

Orion 80 bat gutxi gora behera euskera da etxeko hizkuntza.



B



ELEBITASUNARI BURUZKO LIBURURIK INTERESGARRIENAK

1. «BILINGUISMO Y EDUCACION»
Renzo Titone. Edit. Fontanella
Liburuaren edukia elebitasun arazo orokorrari buruzkoa da. Aldi berean, gizarte desberdinetan elebitasunaren arabera antolatu izan diren hezkuntz ereduen berri ematen du.
2. «LA PROBLEMATICA DEL BILINGUISMO EN EL ESTADO ESPAÑOL»
Jornadas de Bilingüismo. Zarautz 1979. I.C.E. U.P.V.
Espainia barruan elebitasunaren engurruan egindako zenbait esperientziren azterketa eskaintzen du.
3. «BILINGUISMO Y BICULTURALISMO»
Varios. Edit. CEAC
Elebitasun arazoa kultur ikuspegiaren arauera aztertzen da eta, aldi berean, erakaskuntza elebidunak sortzen duen problematika aztertzen du.
4. «ENSEÑAR A HABLAR»
Laurence Lentin. Edit. Pablo del Rio.
Lehen hizkuntzaren eskuratze prozesuan haurraren ingurruak, zuzenki, helduekiko harremanen eragina azpimarratzen du.
5. «EUSKARAREN BORROKA»
Jakin. 26-27. 1983
Eusko Jaurlaritzaren Gizarte azterketarako Lantaldeak burututako azterketa soziolinguistika azaltzen da. Jakinek bere eritzia ematen du euskararen egoera eta inguruko zenbait arazori buruz.
6. «ELEBITASUNAREN AUZIA IKASTOLETAN»
Jakin 19-20. 1981
Askoren artean egindako ale honek, euskararen irakaskuntzak planteiatzen duen arazo ugari kanporatzen du. Ikastolen politika linguistikoaren analisisiaz gainera, elebitasun egoera eta euskararen irakaskuntza tratatzen ditu.
7. «IDIOMA Y PODER SOCIAL»
Rafael Ll. Ninyoles. Edit. Tecnos.
Elebakarra ez den gizartean sortzen den hizkuntz borroka aztertzen da. Aldi berean, elebitasunaren ikuspegi politiko sozialaren berri ematen da.
8. «BILINGÜES A LOS TRES AÑOS»
Renzo Titone. Edit. Kapelusz.
Bigarren hizkuntza nola irakatsiari buruzko gidoi bat eskaintzen da. Beraz, glotodidaktika mailako planteiamendua azaltzen da.
9. «PSICOLINGUISTICA APLICADA»
Renzo Titone. Edit. Kapelusz.
Hizkuntz ikasteari buruzko oinarri psikologikoak eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntzak planteiatzen duen zenbait arazo argitaratzen du.
10. «LENGUAJE Y EDUCACION»
J. A. Rondal. Edit. Medina y Tecnica S.A.
Hezkuntza alorrean iharduten dutenentzat interesgarria da liburu hau. Bertan agertzen bait da hizkuntzaren inguruan sortzen den zenbait arazo psikopedagogiko. Lau ataletan banaturik agertzen da bere edukia:
 1. Hizkuntza, komunikazio tresna den ikuspundua eta hizkuntzaren garapena.
 2. Testuinguruaren eragina haurraren hizkuntz garapenean.
 3. Hizkuntz hezkuntza haurraren lehen urtetan.
 4. Eskola giroko bitartekoak hizkuntz hezkuntzan.

Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia
egun eta gauez, edozein ordutan.



Ez al duzu izan inoiz diru-beharririk arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?

Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskeintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.

Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD Txartela eska ezazu.



CAJA LABORAL POPULAR

LAN KIDE AURREZKIA

Euskadiko Kutxa

